



ardatz

Gobernantzaren. Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030

Hau izango da gizateriak izan duen trantsiziorik azkarrena (...). Teknologia gizartearen alderdi askotan eragingo du, aurrekaririk gabeko abiadura, eskala eta zabaltasunarekin. Erantzun politikoek ikuspegi zabala eta proaktiboa izan behar dute, teknologiaren erronkak aukera bihurtzeko. (NBE)



Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| 1. SARRERA | 4 |
| 1.1. <i>GBPGDPE 2030</i> en beharra eta egokitasuna | 5 |
| 1.2. <i>GBPGDPE 2030</i> egiteko prozesua | 9 |
| 1.3. Gobernantza, berrikuntza publikoa eta gobernu digitala | 12 |
| 1.3.1. Gobernantza publikoa | 12 |
| 1.3.2. Berrikuntza publikoa | 16 |
| 1.3.3. Transformazio eta gobernu digitala | 17 |
| 2. TESTUINGURUA ETA ESPARRU ESTRATEGIKOA | 25 |
| 2.1. Nazioarteko testuingurua | 26 |
| 2.1.1. 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuak | 26 |
| 2.1.2. e-Gobernua Nazio Batuen Erakundean | 26 |
| 2.1.3. Gobernu digitala eta berrikuntza publikoa ELGAn | 31 |
| 2.2. Europako testuingurua | 34 |
| 2.2.1. Gobernantza | 34 |
| 2.2.2. Europa digitala | 35 |
| 2.2.3. Europar Batasuneko ikerketa- eta berrikuntza-programa | 42 |
| 2.2.4. Europarako suspertze-plana | 43 |
| 2.3. Estatuko Administrazio Orokorra | 44 |
| 2.3.1. Administrazio publikoen erreforma | 44 |
| 2.3.2. Estatuko Administrazio Orokorren transformazio digitala | 45 |
| 2.3.3. Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana | 45 |
| 2.4. EAEko testuinguru estrategikoa | 46 |
| 2.4.1. XII. Legealdirako Gobernu Programa | 46 |
| 2.4.2. Beste gobernu-plan estrategiko batzuk | 47 |
| 2.4.3. Lurralde historikoak | 55 |
| 2.5. Maila anitzeko gobernantza | 57 |
| 3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA | 60 |
| 3.1. Egoera eta bilakaera-ikuspegia | 61 |
| 3.2. Aurreko planaren ebaluazioa eta abiapuntuko gogoetak | 64 |
| 3.2.1. <i>GBPPE 2020</i> ren mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak | 67 |
| 3.2.2. Funtsezko elementuak | 72 |
| 3.3. Gobernantzaren eta berrikuntza publikoaren eta gobernu digitalaren arloko erronkak | 74 |
| 3.3.1. Kudeaketaren eta antolaketaren kulturaren arloko erronkak | 77 |
| 3.3.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko erronkak | 79 |
| 3.3.3. Euskara, lan- eta zerbitzu-hizkuntzaren arloko erronkak | 80 |
| 3.3.4. Araudiaren arloko erronkak | 81 |



| | |
|--|------------|
| 3.3.5. Pertsonak kudeatzearen arloko erronkak | 84 |
| 3.3.6. Antolaketaren arloko erronkak..... | 85 |
| 3.3.7. Azpiegituren arloko erronkak..... | 87 |
| 3.3.8. Herritarrei arreta ematearen arloko erronkak | 89 |
| 3.3.9. Interneteko presentziaren arloko erronkak..... | 92 |
| 3.3.10. Zerbitzuak eta prozeduen arloko erronkak | 93 |
| 3.3.11. Datuen eta informazioaren gobernantzaren arloko erronkak | 98 |
| 3.3.12. Plangintza, ebaluazioa eta kontu-ematearen arloko erronkak | 102 |
| 3.3.13. Maila anitzeko gobernantzaren arloko erronkak..... | 106 |
| 3.3.14. Gobernu irekia..... | 107 |
| 4. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA ETA PLAN ERAGILEA..... | 114 |
| 4.1. Printzipioak..... | 115 |
| 4.2. Xedea, ikuspegia eta helburu programatikoa | 118 |
| 4.3. Eremu estrategikoak eta ardatzak | 120 |
| 4.4. Plan eragilea | 124 |
| 4.5. <i>GBPGDPE 2030ek</i> testuinguruarekin bat etortzea | 127 |
| 4.5.1. Nazioarteko testuingurua, herritarren beharrak eta Gobernu Programa | 127 |
| 4.5.2. EAeko Administrazio Orokorraren plangintza estrategikoa..... | 137 |
| 5. PLANAREN GOBERNANTZA..... | 138 |
| 5.1. Funtsezko elementuak..... | 139 |
| 5.2. Antolaketa- eta kudeaketa-eredua..... | 142 |
| 5.3. Koordinazio eta lankidetzarako formulak..... | 145 |
| 5.3.1. Barne-koordinazioa | 145 |
| 5.3.2. Koordinazioa beste administrazio publiko batzuekin..... | 145 |
| 5.4. Gardentasuna eta parte-hartzea..... | 147 |
| 5.5. Aldaketaren kudeaketa..... | 149 |
| 5.6. Jarraipena eta ebaluazioa..... | 151 |
| 5.6.1. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema..... | 151 |
| 5.6.2. Adierazleak eta aginte-taula..... | 154 |
| 5.6.3. Koordinazio eta jarraipenerako tresnak | 158 |
| 6. OINARRI EKONOMIKOAK..... | 159 |
| 1. ERANSKINA. Gobernantza publikoaren eta gobernu digitalaren zeharkako ikuspegia. (<i>GBPGDPE 2030</i> en aginte-koadroa: Helburuak eta adierazleak)..... | 167 |
| 2. ERANSKINA. Gobernantza, berrikuntza eta gobernu digitalari buruzko ekimen sektorialak | 215 |
| 3. ERANSKINA. <i>GBPGDPE 2030</i> en inpaktu-adierazleen sistema..... | 248 |



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. SARRERA



1.1. GBPGDPE 2030en beharra eta egokitasuna

[XII. Legegintzaldirako 2020-2024 Gobernu Programak](#) Jaurlaritzak EAeko gizartearekin hartutako konpromisoak jasotzen ditu, eta horien artean dago **Gobernu Digitalaren Euskal Estrategia** abian jartzea:



1. irudia. Gobernu Digitalaren Euskal Estrategia konpromiso gisa kokatzea. Egileak egina



Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2020ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, [XII. Legegintzaldirako Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda eta horiek izapidetzeko prozedura onartzen dituen Erabakia hartu zuen](#). Plan horien artean daude Gobernantzaren eta Berrikuntza Publikoaren Plan Estrategikoa eta Gobernu Digitalaren Estrategia. Horiek egin eta koordinatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren ardura da.

Gaur egun arte, gobernantzaren eta berrikuntza publikoaren arloko plangintza estrategikoei (*Berrikuntza Publikoaren Plana, BPP 2011-2013; Berrikuntza Publikoaren Plana, BPP 2014-2016; eta Gobernantza eta Berrikuntza Publikoaren Plan Estrategikoa, GBPPE 2020*) ardatz estrategikoen artean beti izan dituzte administrazio elektronikoa eta zerbitzu digitalak, baina beste izen batzuekin.

Europako beste ekimen batzuen ildoari jarraituz, XII. Legegintzaldian *Gobernu Digitalaren Euskal Estrategia* onartzearen aldeko apustua egin da. Estrategia hori guztiz zeharkakoa da Eusko Jaurlaritzaren jarduketara-erlo guztietan, eta Eusko Jaurlaritzaren ia politika publiko guztiei eragiten die.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da gobernantza, berrikuntza eta gobernu digitalaren arloko plangintza estrategikoa osotasun bakar gisa lantzea, dokumentu bakar gisa: *Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa*. Hala, erraztu egingo dira, batetik, hura modu koherentean egitea, eta bestetik, hedatzeko eta barnean hartzen dituen neurriak eta jarduerak modu eraginkorrean gauzatzea, bai eta horien kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egitea ere.

Planaren 4.4.1. atalean XII. Legegintzaldirako Gobernu Programan definitutako ardatzekin, konpromisoekin eta helburuekin duen lotura zehazten da.

Hala, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak *administrazio publikoan kudeaketa-eredu berriak eta gobernantza-kultura berria sustatzeko estrategia ezartzeko* konpromisoa hartu zuen, Eusko Legebiltzarrean 2020ko urriaren 25ean egindako [agerraldian](#). *Hori guztia lankidetzakogobernantzako eta erakunde eta organismo publikoen arteko koordinazioko esparruan* XII. Legegintzaldiko ildo eta helburu estrategikoetako bat *administrazioa modernizatzea* zela adierazi zuen, eta *herritarrekiko harremanean administrazio digital, sinple, parte hartzeko eta garden baterantz aurrera egiteko neurri sorta bat* iragarri zuen.

Sailburuak gogorarazi zuen COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoak inoiz baino nabarmenago utzi duela administrazioa modernizatze



beharra, eta horretarako pertsonen eta administrazioen arteko harremanak digitalizatu behar direla.

Pertsonak Eusko Jaurlaritzaren politiken eta helburuen erdigunean jartzearen garrantzia azpimarratu zuen, eta administrazioa gizatiartzearen aldeko apustua egin zuen, herritarrengana hurbilduz, sinplifikatuz, eraginkortasuna areagotuz, herritarren parte-hartzea sustatuz eta, aldi berean, gardenagoa bihurtuz.

Era berean, adierazi zuen administrazio publikoaren esku dauden datuen erabilera aurrera egin behar dela, zerbitzuak diseinatzeko eta berrikuntza sortzeko; datu publiko horiek jarduera ekintzaileetarako erabil ditzakete enpresek eta herritarrek.

Azken finean, EAEko herritarren eta gizartearen **beharrei** heldu behar zaie:



2. irudia. Gobernantzaren, berrikuntzaren eta gobernu digitalaren balio publikoa sortzea, herritarren beharrei erantzuteko.

Zehatzago, *GBPGDPE 2030*en helburua da ezaugarri hauek dituen administrazio publiko baterantz aurrera egiten laguntzea:

- Kudeaketaren eta antolaketaren kultura edukitzea, eta horren balio eta estandar etikoei, eta integritatekoek, eta kontuak emateak, bide ematea herritarrek kudeatzaile publikoengan berriz ere **konfiantza** izateko.
- **Berdinzalea** izatea emakumeentzat eta gizonentzat.
- **Euskara** laneko eta zerbitzurako hizkuntza izan dadin sustatzea.




- **Kudeaketa publiko aurreratuko** sistemak izatea eta berrikuntza eta etengabeko ikaskuntza lortu nahi izatea.
- Enplegatu publikoak eta talentuaren kudeaketa integrala kudeatzeko bide berriak aztertu eta erabiltzea, erakundea eta pertsonak unean uneko lan- eta kudeaketa-moduetara egokitzen direla bermatzeko.
- Unean-unean planteatzen diren erronkei egokitutako **tresnak izatea**.
- Gobernantza publikoaren eta gobernu onaren betekizunekin bat datorren **egitura, antolaketa eta funtzionamendua izatea**, etengabe herritarrak erdigunean jartzen dituen, unean uneko beharretara arin egokitzeko eta epe laburreko zein luzeko erronkei erantzuteko gai dena ziurgabetasun-testuinguruan.
- **Herritarrei** kalitatezkoa, integrala eta kanal anitzekoa den arreta eskaintzea.
- **Zerbitzu publiko** modu proaktiboan eta pertsonalizatuan eskaintzea herritarrei; kalitatezkoak, sinpleak, irisgarriak eta erabilgarriak; efikazak eta efizienteak.
- Era instituzionalizatuan **planifikatu eta ebaluatuko** diren politika eta zerbitzu publikoak garatzea, eta horien emaitzen **kontu ematea** aldian-aldian.
- **Datuen gobernantza**, eta informazioarena, segurua izatea, datu pertsonalak babesten dituen eta balio sozial eta ekonomikoa sortzen duena.
- **Maila anitzeko gobernantza**-ereduan oinarritutako harremanak ezartzea administrazio publikoen artean, hainbat eragile publikori eragiten dieten politiken diseinuan eta ezarpenean adostasuna lortzeko eta datuak eta informazioa trukatzeko.
- Herritarrei administrazioaren jarduketa zuzenean kontrolatzeko aukera ematea, eta politika zein zerbitzu publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzerakoan **rol erantzunkidea** izatekoa.



1.2. GBPGDPE 2030 egiteko prozesua

GBPGDPE 2030 egiteko prozesua *fase* hauetan gauzatu da:



3. irudia. Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030en faseak. Egileak egina.

[XII. Legegintzaldirako Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda eta plan horiek izapidetzeko prozedura onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren Erabakian](#) onartutako orientabide eta irizpideei jarraitu dira. Alde horretatik, GBPGDPE 2030ek honako ezaugarri hauek ditu:

- a) Gobernu Programan ezarritako **edukiei** erantzuten die (ikusi 4.4. atala).
- b) Bere jarduketa-eremua **nazioarteko eta Europako politikekin bat dator** (ikusi 4.4. atala).



- c) Eusko Jaurlaritzaren **aurrekontu-programazioarekin eta plangintza ekonomikoarekin** bat dator.
- d) Abiapuntutzat hartzen du **aurreko aldian inplementatutako plan estrategikoa**, behar bezala ebaluatua (ikusi 3.2 atala).
- e) **Indarraldia** bat dator Europako eta nazioarteko plangintza-mugarriekin: 2030erako da plana, Nazio Batuen 2030 Agenda bezala, eta Europako Agenda Digitalarekin bat datozen tarteko ebaluazioak aurreikusten dira.
- f) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren **zerbitzu propioak** erabiliz egin da.
- g) **Adierazleen sistema** bat du, emaitzen urteko jarraipena egiteko aukera emango duena. Haren alderdi nagusiak bat datoz Gobernu Programa gauzatzearen jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin (ikusi 5.6.2 atala).
- h) Urteko **jarraipen-txostenak**, Legegintzaldien amaierako tarteko ebaluazio-txostenak eta betetze-mailaren amaierako ebaluazio-txostena jasotzen ditu (ikusi 5.6.1 atala).
- i) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren **laguntza eta babesa** izan ditu plan-proposamena egiteko prozesuan.

Komeni da nabarmentzea, gobernantzarekin, berrikuntza publikoarekin eta gobernu digitalarekin lotutako ekimenak jasotzen dituzten beste plan batzuk ez bezala, **GBPGDPE 2030** Legegintzaldiko Plan Estrategikotzat jotzen dela. Horregatik, plan hori egitean, berariaz hartu dira kontuan Eusko Jaurlaritzako sail guztiak, Sailarteko Batzordearen bidez (5.2 atala).

Gainera, plana **elkarlanean** eta parte-hartzean oinarrituta egin da. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta administrazio instituzionaleko organismo eta erakunde guztiek parte hartu dute. Bestalde, **herritarrek parte hartzeko** prozesu bat ireki da, pertsona eta erakunde guztiei irekia, gobernu irekiaren www.irekia.euskadi.eus atariaren bidez.

Azkenik, [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen](#) eta [Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII.](#)



Planaren konpromisoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko berdintasun-teknikariak prestatu du plana.

Hauek dira *GBPGDPE 2030*en **giltzarriak**:

Esparru estrategikoa eta testuingurua

- Haren beharraren eta aukeraren justifikazioa jasotzen du; gizartearen erronkei eta herritarren beharrei egiten dien ekarpena; eta beste ekimen batzuekin duen lerrokatzea.

Printzipioak, misioa, ikuspegia

- *GBPGDPE*ren izateko arrazoiak, helburuak, balioak eta gidatzen duten printzipio inspiratzaileak jasotzen ditu.

Formulazio estrategikoa: eremu eta ardatz estrategikoak

- *GBPGDPE*ren programaren esparru eta jarduera-ildo nagusiak dira.

Helburuak

- Eremu eta ardatz bakoitzeko helburuak ezartzen ditu, bi denbora-horizonterekin: 2025 eta 2030.

Plan Operatiboa

- Helburuak lortzeko ekintzek, proiektuek eta ekimenek osatzen dute.

Kontrola, jarraipena eta ebaluazioa

- Ekintza-planaren gauzatzearen jarraipena egiteko eta emaitzak eta eraginak ebaluatzeko mekanismoak jasotzen ditu (helburu operatiboak lortzea).

4. irudia. *GBPGDPE 2030*en giltzarriak



1.3. Gobernantza, berrikuntza publikoa eta gobernu digitala

1.3.1. Gobernantza publikoa

Gobernantza publikoa ona dela esaten da, erabakiak hartzeko eta ezartzeko prozesuak demokratikoki –eragindako eragileen artean– gauzatzen direnean, eta efizientek direnean; hau da, lortu nahi diren helburuen araberako baliabide orekatuak erabiltzen dituztenean. Administrazio publikoaz gain, herritarrak ere badira gobernantza publikoaren eragile, zentzurik zabalenean: herritar antolatuak eta antolatu gabeak, eragile ekonomiko eta sozialak, etab. Gobernantza publiko ona garapen-faktore erabakigarria da, eta komunitate politiko aurreratu eta oparoak bereizteko irizpide fidagarria.

Europako Batzordearen [Gobernantzaren Liburu Zuriak](#) bost printzipio aipatzen ditu administrazioaren funtzionamendua antolatzeko:

- Efizientzia
- Kudeaketa publiko koherentea
- Gardentasuna
- Kontu-ematea



– Herritarren parte-hartzea

Gobernu ona balio publikoa sortzen duena da: gizartearen arazo garrantzitsuei erantzuna ematen diena, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzako aukerak sortzen dituena, eta deliberazio demokratikoa sustatzen duena, herritargoa, komunitatea eta demokrazia sortzeko; honako **oinarri** hauek ditu gobernu onak:

– Legezketasun-printzipioa.

– Langileen eta kargu publikodunen **integritatea** eta **etika**.

– **Adostasuna**, gizartean dauden interesen arteko bitartekaritza behar duena, giza garapen jasagarria lortzeko.

– Kudeaketaren **efikazia** eta **efizientzia**, alegia, erabilitako prozedurek lortu nahi diren emaitza eta inpaktuetara eramatea, horretarako eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz.

– **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ekitatea eta diskriminaziorik eza**, kide guztiek komunitatearen parte direla sentitzea eta beren ongizatea hobetzeko edo horri eusteko aukerak izatea bermatzen duena.

– **Gobernu irekiaren** printzipioak:

- **Gardentasuna:** Herritarren aurrean kontuak ematea sustatzen eta bultzatzen duen gobernu, eta egiten ari denari eta jarduketa-planei buruzko informazioa ematen duena. Horri esker, kontrola daiteke, eta balio ekonomikoa edo soziala sor daiteke, administrazioak edonoren eskura jarritako datu publikoetatik abiatuta.
- **Elkarlana:** Administrazioaren lanean herritarrak inplikatzeko eta konprometitzen dituen gobernu.
- **Parte-hartzea:** Herritarrek politika publikoak eratzekoan parte-hartze aktiboa izatea sustatzen duen gobernu.



Gobernu on batek *administrazio* on bat behar du, honako **tresna** hauek dituen:

- **Herritarrei arreta emateko** sistema integral eta kanal anitzekoa.
- **Kudeaketa publiko aurreratuko** sistemak.
- **Datuen eta informazioaren gobernantzarako** tresnak.
- Politika eta zerbitzu publikoen **plangintza eta ebaluaziorako** mekanismoak.
- **Arauek**, prozesuak eta **administrazio - prozedurak** sinplifikatzeko, arrazionalizatzeko eta haien kalitatea hobetzeko berrikuspen-tresnak.
- **Lana antolatzeko** eredu malguak, unean uneko beharretara egokitutako egiturak eta lanpostuen profilak.
- **Enplegatu** publikoen eta zerbitzu publikoen erabiltzaileen inplikazio-ereduak.
- Informazioaren eta komunikazioaren **teknologiak**, prozesuak automatizatzeko eta informazio publikoa egoki erabiltzeko.
- Herritarrentzako plataformak, **informazioa jaso, elkarlanean aritu eta parte hartzeko**, proposamenak eta iradokizunak egiteko, kontrastatzeko eta aktiboki entzuteko aukera ematen dutenak.

Gobernantza publikoaren **dimentsioak** eta **irismena**, beraz, honela laburbil daitezke:

| Dimentsioa | Alderdia | Irismena |
|------------------|------------------------------|--|
| Kanpo dimentsioa | Herritarrei arreta ematea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Integrala ▪ Kanal anitzekoa |
| | Gardentasuna | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontu-ematea ▪ Publizitate aktiboa ▪ Informazioa eskuratzeko eskubidea |
| | Herritarrekiko harremanak | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Parte-hartzea ▪ Elkarlana |
| | Kogobernantza instituzionala | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarlana ▪ Koordinazioa |



| Dimentsioa | Alderdia | Irismena |
|------------------|--|--|
| Barne dimentsioa | Datuen gobernantza | <ul style="list-style-type: none"> Datu bakarra eta estekatua Datu pertsonalak Datu irekiak eta balioa sortzea |
| | Plangintza estrategikoa eta ebaluazioa | <ul style="list-style-type: none"> Plangintza estrategikoa Emaitzetara bideratutako aurrekontuak Arauen, politika publikoen eta zerbitzu publikoen ebaluazioa |
| | Erakundeen integritatea eta etika | <ul style="list-style-type: none"> Kargu publikodunen integritatea Enplegatu publikoen integritatea |
| | Kudeaketa publikorako tresnak | <ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua Pertsonak kudeatzea Antolaketa, egiturak eta lanpostuen profilak Administrazio-prozesuak eta -prozedurak |
| | Sistemak, baliabideak eta tresna teknologikoak | <ul style="list-style-type: none"> IKTen kudeaketa Administrazio elektronikorako plataforma komuna Interneten agertzeko eredua Gobernu Irekiaren plataforma |

1. taula. Gobernantza publikoaren dimentsioak eta irismena

Gobernantza publikoaren erronkei aurre egiteko, bi dimentsioek elkarri lotuta egon behar dute, horietako bakoitzak bestearen arabera bakarrik hartzen baitu zentzua. Barruko eta kanpoko dimentsioen arteko nahitaezko lotura egituratzeko, **administrazio-antolaketa justifikatzen duen azken xedea zerbitzu publikoa dela** hartu behar da oinarri.


Gobernantzaren kanpoko dimentsioak herritarrekiko harremanak barne hartzen ditu, eta harreman horiek ardatz honetako honen inguruan antolatu behar dira: ebaluazioa eta kontu-ematea, gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana.

Hiruki kontzeptual bat, ziklo koherente gisa pentsatuta; izan ere, gardentasuna beharrezkoa da herritarrek behar besteko informazioa, kalitatezkoa, eduki dezaten, gai publikoetan erantzukizunez eta dokumentatuta parte hartzeko, eta biak -gardentasuna eta parte-hartzea-, era berean, ezinbestekoak dira politika publikoen benetako eragina

ebaluatzeko. Halaber, elkarlanaren dimentsioak gobernantza osatzen du, administrazioa ez baita balio publikoa sortzen duen eragile bakarra. Ebaluazioak, bestalde, zentzua ematen dio gardentasunari, eduki erabilgarriak ematen dizkio, erakusleihu huts batera murriztuta geratzea saihestuz.

1.3.2. Berrikuntza publikoa

Berrikuntza publiko deritzogu kudeaketa publikoaren esparruan ideia eta jardunbide berritzaileak aplikatzeari, lehendik dauden elementuak hobetuz eta/edo berriak ezarriz, gizarte-balioa sortzeko eta, beraz, gizarte-premiak eta kalitatezko zerbitzu publikoak behar bezala beteko dituzten politika publikoak lortzeko, baliabide publikoak esleituta eta modu efizientean erabilia. Administrazio publiko moderno, bizkor eta efizientea ezinbestekoa da ongizatearen eta bizi-kalitatearen maila handiagoak dituen gizarte bat lortzeko.



5. irudia: Sektore publikoko berrikuntzarako oinarritzko sei gaitasun. Iturria: [Hola mundo: la inteligencia artificial y su uso en el sector público. Jamie Berryhill, Kévin Kok Heang, Rob Clogher, Keegan McBride. Gobernantza publikoari buruzko ELGAREN dokumentuak 36.zk.](#)



Gainera, Carles Ramiók adierazten duen bezala¹,

*«(...) Berrikuntza-estrategiak eraginkorrak izan daitezen eta benetako balio publikoa eman dezaten, beharrezkoa da administrazio publikoek inbertsio handia egitea **datuen gobernantzan** gaitasun instituzionalak handitzeko, hizkera akademikoan esanda.*

Gaur egun eta etorkizunean, edozein berrikuntza-bektore datuen gobernantzaren baitan dago. Hau da, administrazioan unitate sektorialak eta zeharkakoak sortzearen eta diseinatzearen baitan dago, informazioa benetako aldaketa-eragile gisa sistematizatu eta aztertzeko, administrazio zientifikoagoa eta berritzaileagoa lortze aldera.


Informazioaren kudeaketan aurretik egindako ahalegin horiek gabe eta horretan espezializatutako unitateak azaleratu gabe, berrikuntza-ekimen gehienek ez dute gaitasunik izango aldaketa eraginkorrak, efizienteak eta balio publikokoak ezartzeko. Posible da administrazio bat erabat berritzailea izatea metodologian, baina erabat iragazgaitza izatea berrikuntzan, bai antolamenduan, bai politika eta zerbitzu publikoetan(...)».

1.3.3. Transformazio eta gobernu digitala

Europako Parlamentuak honela definitu zuen **administrazio elektronikoa**: *«agintari publikoek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiliz zerbitzu publikoak hobetzeko eta ekarpen demokratikoa areagotzeko egiten dituzten ahaleginak»*. Administrazio elektronikoen helburua gobernuaren **efizientzia hobetzea** da, informazio elektronikoen eta komunikazioen kudeaketa-kostua murriztuz, gobernu-erakundeak **berrantolatuz** eta **informazio-administratioko silo isolatuak murriztuz**. Are garrantzitsuagoa dena: **herritarren eta enpresen karga administratiiboak murriztu ditzake**, agintari publikoekin dituzten interakzioak azkarragoak, komenigarriagoak eta merkeagoak izan daitezen»².

¹ «La insostenible levedad de la innovación pública: una diáspora» *es.publico* bloga, 2020. Carles Ramió.

² «Administrazio elektronikoa. Teknologiaren erabilera zerbitzu publikoak eta parte-hartze demokratikoa hobetzeko». Europako Parlamentua, 2015eko iraila.



6. irudia. Teknologiaren eta kudeaketaren bilakaera. Hemendik egokitua: «Transformación digital para las Administraciones Públicas. Crear valor para la ciudadanía del siglo XXI». Sergio Jiménez. Innap Innova. INAP, Administrazio Publikoko Institutua, 2019

Gobernu digitalaren definizio ugari daude, baina guztiek aipatzen dute teknologia eta tresna informatikoak erabiliz balio publikoa sortzea, **administrazio erabat digitala** lortzeko. Administrazio horrek, gaitasun analitiko eta prediktibo handia izango du, aldeaz aurretik **datuetan oinarritutako erabaki arinak** hartu ahal izateko eta **zerbitzu digital sinpleak** garatzeko. Hala, unean uneko benetako beharrei erantzungo die, gizarte-ongizatea eta hazkunde ekonomikoa indartuko du eta barne-kudeaketaren efizientzia eta politika publikoen efikazia hobetuko ditu.



7. irudia. Gobernu digitalaren definizioen elementu erkideak.



Gobernu digitaleko estrategiak ezarriz gero, honako alderdi hauek nabarmen hobetu daitezke:


- **Efizientzia:** aurrezkiak sortzen dituzten izapide eta informazio arinak.
- Zerbitzu publikoaren **kalitatea**.
- Informaziorako **sarbidea** eta gardentasuna.
- **Berrikuntza** eta balio publikoko aukera berriak sortzea.
- Herritarren **ahalduntzea:** parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko aukerak.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA), «gobernu digitalaren» programaren «[ELGA e-leaders 2020](#)» bileraren esparruan, [Gobernu Digitalaren Indizearen \(GDI\)](#) lehen edizioa argitaratuko duela iragarri du. Bertan, **gobernu elektronikotik gobernu digitalera igarotzeko** politika publikoen emaitzak eta joerak aztertzen dira. Prozesu hori honela ulertu behar da: onlineko administrazio batean administrazio-prozedurak digitalizatze hutsetik erabiltzailearengan pentsatuta diseinatutako zerbitzu publiko erabat digitaletara igarotzea, sinpleagoak, irisgarriagoak, proaktiboagoak eta herritarren beharrak benetan asetzen dituztenak.

Trantsizio hori neurtzeko erabilitako ebaluazio-metodologia eta inkesta [Gobernu digitalerako arau-esparruan oinarritzen da \(Digital Government Policy Framework-DGPF\)](#). ELGak egina da, eta sei dimentsioz osatuta dago: digitala diseinutik beretik, datuetan oinarritutako sektore publikoa, gobernua plataforma gisa, berez irekia, erabiltzailea ardatz duena eta proaktibotasuna.

Gobernu digitalaren indizea lortzeko, sei dimentsio horiek aztertu behar dira³:

³ ELGA digitala. Gobernu-politika Esparrua: [Gobernu digital baten sei dimentsioak](#).



8. irudia. Gobernu digitalaren dimentsioak. Honako hau oinarritzat hartuta egokitua: «Kontseiluaren gomendioa gobernu digitalaren strategiari buruz». ELGA

ELGak adierazi du paradigma-aldaketa bat dagoela gobernu digitalaren gobernantzan eta sektore publikoko datuetan. Beraz, funtsezkoa da zerbitzu digitalak produktu isolatu direlako ideia baztertzea, sektore publikoa eraldatzeko eragile nagusiak baitira. Ulertu beharra dago, gobernuak ez dituztela zerbitzu publikoak diseinatzen erakunde, interes-talde edo makina bati zerbitzua emateko, baizik eta pertsonen beharrei erantzuteko. Horrek, barne-prozesuak eta -eragiketak birpentsatzeko bultzada ematen du, administrazioaren zati desberdinak konektatzeko, efizientzia eta eraginkortasuna, eta erabiltzailearen esperientzia hobetzeko, eta gobernuarekiko konfiantza sendotzeko.

Digitalki gobernu helduagoa sustatzeak, ELGaren gobernu digitalerako arau-esparruaren sei dimentsioen arabera, haren eta herritarren arteko elkarrekintzak birmoldatzen lagunduko du, parte-hartze handiagoaren, teknologia hobearren, enplegatu publiko ahaldunduen, kontuak maizago ematearen eta adimen kolektiboaren modu berrien bidez hazteko.

A . Digitala diseinutik beretik

Gobernu bat zerbitzu eta politiken diseinutik beretik baldin bada digitala, antolamendu-lidergo argia ezartzen du, baita koordinazio- eta betearazpen-mekanismo eraginkorrek ere. Horietan, «digitala» gai teknikotzat ez ezik, politika-prozesuetan txertatu beharreko nahitaezko elementu eraldatzailetzat ere hartzen da. Horrek berekin dakar:

- «Digitala» politika publikoen bizi-zikloan txertatzea.

- Transformazioaren lider izatea eta koordinatzea.
- Beharrezkoak diren teknologiak eta gaitasunak garatzea.
- Sinpletasuna, erraztasuna eta elkarlana bilatzea.
- Inklusio digitala ziurtatzea.



9. irudia. Zerbitzuak digitalizatzeari buruzko hurbilketak.

Honako hau oinarritzat hartuta egokitua: «Kontseiluaren gomendioa gobernu digitalaren estrategiari buruz». ELGA

B. Datuetan oinarritutako sektore publikoa

Datuek bultzatutako sektore publiko batek datuak gobernatzeko neurriak hartzen ditu, balio publikoa sortzeko funtsezko aktibo estrategikoa baitira, eta politika publikoen plangintzan, entregan eta monitorizazioan aplikatu, eta arau eta printzipio etikoak hartzen ditu datuen berrerabilpen fidagarri eta segururako:

- Datuak gobernu digitalen funtsezko gaitzaileak dira.
- Datuen gobernantza.
- Konfiantza publikoa.
- Ekosistema inplikatzeari.



10. irudia. Datuetan oinarritutako sektore publiko baten alderdiak.
Honako hau oinarritzat hartuta egokitua: «Kontseiluaren gomendioa gobernu digitalaren strategiari buruz». ELGA

C . Gobernua plataforma gisa

Gobernu batek erabiltzaileen beharrak asetzeko plataforma gisa jarduten du, baldin eta ekipamenduei jarraibideen, tresnen, datuen eta softwarearen iturri argi eta gardenak ematen badizkie, erabiltzaileak sustatutako zerbitzu-prestazioa emateko, sendoa, arina, integratua, proaktiboa eta sektoreartekoa:

- Eskalako transformazio digitala.
- Gobernua plataforma gisa eraikitzeiko ikuspegi sekuentzial eta iteratiboa.

D . Berez irekia

Gobernu bat irekita dago berez, gobernuaren datuak eta politikak formulatzeko prozesuak (algoritmoak barne) herritarren eskura jartzen dituzenean, dagoen legeriaren mugen barruan eta interes publikoarekin orekan.

E . Erabiltzaileak sustatua

Gobernu bat erabiltzaileek areago sustatua da, pertsonen beharrei rol nagusi bat ematen zaienean prozesu, zerbitzu eta politiken konfigurazioan, mekanismo inklusiboak ezarrita horretarako.



F. Proaktibotasuna


Proaktibotasuna da gobernuek eta enplegatu publikoek pertsonen beharrei aurrea hartzeko eta horiei azkar erantzuteko duten gaitasuna.

Hala ere, transformazio digitala ez da tresna informatikoak eta IKTak erabiltzea bakarrik⁴. Ezinbestekoa da ziurtatzea prozedura eta zerbitzu publikoen digitalizazioak, zerbitzu elektronikoen, honako hauek ekarriko dituztela: prozesuen berringeniaritza, administrazioa sinplifikatzea, herritarrentzako kargak murriztea, hizkera argi eta irakurterrazekoa erabiltzen duten dokumentuak normalizatzea, eta lana antolatzeko eta enplegatu publikoen inplikaziorako eredu malguak; hau da, **berrikuntza publikoko eta administrazio-modernizazioko** politika eta proiektu ausartei ekin behar zaie, osagai teknologikoa ez ezik, kudeaketa, arau-aldaketa, etab., ere ekarriko dutenak.

Esparru horretan sartzen da **herritarrekiko harreman digitala eraldatzeko konpromisoa** (zentzu zabalean: pertsona fisikoak zein juridikoak), administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu digitalen modernizazioaren bidez. Transformazio-prozesu hori helburu estrategiko espezifiko hauetara bideratu behar da:

- Herritarrek administrazio publikoekin duten **harremana sinplifikatzea**, hizkera argi eta inklusiboarekin.
- Zerbitzu publiko digitalak generoa kontuan hartuta **pertsonalizatzea**.
- Administrazio guztiak sektore publikoaren transformazio digitalean **integratzea**.
- Administrazio publikoen azpiegitura teknologikoak **eguneratzea**, finkapenerantz, segurtasunerantz eta ingurumenarekiko errespeturantz aurrera eginez.
- Zerbitzu publikoen digitalizazioa **sustatzea** eta adimen artifiziala txertatzea politika publikoak antolatu eta betearazterakoan.

⁴Hala barneratu du, adibidez, [2030 Nafarroako Estrategia Digitalak](#). Estrategia horrek gobernu digitalaren ardatz espezifiko bat barne hartzen du (zerbitzuak, datuak, efizientzia eta jasangarritasuna, e-Segurtasuna, e-Justizia, e-Ogasuna).



11. irudia: Bederatzi digitalizazio-printzipio. Iturria: [Hola mundo: la inteligencia artificial y su uso en el sector público. Jamie Berryhill, Kévin Kok Heang, Rob Clogher, Keegan McBride. Gobernantza publikoari buruzko ELGAren dokumentuak 36.zk.](#)

Funtsezkoa da transformazio digitala **herritarrentzako arretarekin** lotzea eta koordinatzea; izan ere, kanal elektronikoa herritarrei zerbitzuak emateko beste kanal bat baino ez da, eta zerbitzu horiek % 100 modu digitalean egon behar dute eskuragarri.

Administrazio elektronikoa eta gobernu digitala ezinbesteko baldintza dira **gobernu irekia** oinarri sendo baten gainean eraiki ahal izateko; izan ere, datuetan oinarritutako kudeaketa ahalbidetzen du, eta hori oinarritzko baldintza da plangintza estrategikoa egiteko, politika publikoak ebaluatzeko eta **kontuak emateko**; eta, aldi berean, beharrezkoa da **gardentasuna** (publizitate aktiboa eta informazio publikoa sarbide-eskubidea) eta herritarren **parte-hartzea** eta lankidetzaren sustatzeko.

Administrazio elektronikoak eta gobernu digitalak **informazioa eta datuak** modu efikaz eta efizientean ematen dituzte. Batzuetan, indartu egin behar da herritarrek informazio eta datu horiek berrerabiltzea, eta adierazi den bezala, funtsezkoa da berrikuntza publikoan.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2. TESTUINGURUA ETA ESPARRU ESTRATEGIKOA

2.1. Nazioarteko testuingurua

2.1.1. 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuak

2020. urtea garapen globalaren agendan gertatu den aldaketa eraldatzaile baten lekuko izan da, Garapen Jasangarrirako Ekintzaren Hamarkada abiaraziko dela iragarri baita. Gobernu digitala horrekin bat dator, pertsona guztientzako zerbitzu publiko jasangarriak, inklusiboak eta bidezkoak ematen baititu, inor atzean utzi gabe, eta, are gehiago, gero eta garrantzitsuagoa baita berrikuntza sustatu, efikazia indartu eta soluzioak sortzeko lanetan.⁵

4.4.1 atalean, *GBPGDPE 2030en* formulazio estrategikoaren eta [2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuen](#) (GJH) arteko lotura jasotzen da.

2.1.2. e-Gobernua Nazio Batuen Erakundeetan

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) bi urtean behin egiten du gobernu elektronikoari buruzko inkesta. Inkestak informazioaren eta komunikazioen teknologiek sektore publikoa eraldatzeko duten erabileraren eta ahalmenaren ebaluazio sistematikoa aurkezten du, efizientzia, efikazia, gardentasuna, kontuak ematea, zerbitzu

⁵ [Gobernu elektronikoari buruzko 2020ko inkesta](#) («Gobernu digitala garapen jasangarriaren aldeko ekintzaren hamarkadan»).



publikoetarako sarbidea eta herritarren parte-hartzea hobetuz 193 estatu kideetan eta garapen-maila guztietan.

[Gobernu elektronikoari buruzko 2020ko azken inkestaren](#) emaitzetatik («Gobernu digitala garapen jasangarriaren aldeko ekintzaren hamarkadan»)⁶, emaitza eta gogoeta garrantzitsu hauek ondoriozta daitezke:

A. Haziz doan gobernu digitala

Transformazio digitalaren ikuspegi berrien barruan honako hauek sartzen dira: gobernu elektronikoa plataforma gisa, lineako eta lineatik kanpoko zerbitzuen integrazioa, zerbitzu digitalen garapen arina herritarren parte-hartzearekin, parte-hartze elektronikoa, datuetan oinarritutako ikuspegia, pertsonak erdigunean jartzen dituzten zerbitzuak eskaintzeko gaitasun digitalak indartzea eta teknologia berrien erabilera berritzailea, (adimen artifiziala eta *blockchain*, adibidez).

Gobernu elektronikoa ez da zerbitzuak emateaz soilik arduratzen, honako hauek indartzen ere laguntzen du:

- Alfabetatze digitala, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartuta.
- Inklusio digitala.
- Konektibitate digitala.
- Identitate digitala.

2020. urtearen hasieratik, COVID-19aren pandemiak gobernu elektronikoaren eginkizuna biziberritu du: batetik, gobernu elektronikoak balio publikoa sortzeko aukerak sortu ditu, baina, bestetik, arrakala digitalak ere agerian utzi ditu.

B. Eskualdeko eta tokiko gobernu digitalaren garapena

Eskualdeen lehentasunen artean honako hauek daude: merkataritza digitala, ekonomia digitala, gobernu irekia eta datu irekiak, erabiltzaileak erdigunean jartzen dituen

⁶ Argitalpen honetan «gobernu elektronikoa» eta «gobernu digitala» terminoak erabiltzen dira, oraindik ez baita bereizketa formalik egiten termino akademikoan, politika-formulatzaileen eta profesionalen artean. Herrialde askotan, gobernu elektroniko terminoa politika eta estrategia nazionaletan txertatuta eta instituzionalizatuta dago, nahiz eta kasu batzuetan *gobernu digitala* aipatzen den, *gobernu elektronikoaren* hurrengo fasetzat erabilia.



gobernu elektronikoaren ebaluazioa, arriskuen minimizazioa eta zerbitzu publikoen eskala handiko digitalizazioa.

Ingurune batzuetan, dagoeneko teknologia berrienak baliatzen ari dira: adimen artifizialeko txatbotak erabiltzea zerbitzuak hobeto emateko eta barne-kudeaketa arintzeko; big data erabiltzea politika publikoak diseinatu eta inplementatzeko eta baliabideak optimizatzeko; gauzen Internet erabiltzea osasun- eta garraio-arloetako edo larrialdi-egoeretako aplikazio adimendunetarako; errealitate areagotuaren eta errealitate birtualaren erabilera, etab.

C. Parte-hartze elektronikoa

Gobernantzaren funtsezko dimentsioa eta jasangarritasunaren oinarrietako bat. Ebaluatzeko, herritarrei informazioa ematearekin, kontsultarekin eta erabakiak hartzearekin lotutako gobernu elektronikoaren atarien eta webguneen ezaugarriak hartzen dira kontuan.

Parte-hartze elektronikoko ekimenen porrota, sarritan, honako hauek eragin dezakete: helburu argirik ez izatea, parte hartu nahi duten alderdien arrazoiei buruzko azterketarik ez egitea, eta kostuen eta onuren azterketarik eta ebaluaziorik ez egitea.

Parte-hartze elektronikoa instituzionalizatzeko prozesuak (zeregin eta prozesu erregularrak dituzten jarduerak) eskasa izaten jarraitzen du, eta administrazio-kulturak ez du oraindik barneratu.

Herritarrek parte-hartze elektronikoa onartzea eta etengabe erabiltzea, neurri batean, erakundeengan duten konfiantzaren baitan dago, baina baita Interneten oro har, eta parte hartzeko plataformen osagaietan duten konfiantzaren baitan ere. Parte-hartze elektronikoko plataformetan funtzio anitzeko plataformetarantzko joera ikus daiteke, hala nola politika berriei buruzko ideia-foroak, kontsultak eta/edo eskaera elektronikoak, iritzi-inkestak, salaketa-sistemak eta ideiak eta berrikuntzak sortzea.

D. Datuetan oinarritutako gobernu digitalerantz


Datuak erregaia edo moneta dira gobernu elektronikoarentzat, baita, oro har, gobernuarentzat ere. Funtsezko baliabidetzat eta gobernuentzako aktibo estrategikotzat jotzen dira. Datuen gobernantzarako eta datuetan oinarritutako gobernu elektronikorako esparruak eta estrategiak hartzera behartzen du aldaketak, balio publikoa modu berritzaileetan sortzeko.




Datuetan oinarritutako politika publikoak formulatzea bideragarria izateaz gain, agindu estrategiko bihurtu da.

Datuen erabilera optimizatzeak erakunde publikoen produktibitatea, erantzukizuna eta inklusibotasuna handituko ditu. Datuetan oinarritutako gobernu batek fidagarritasuna eta konfiantza publikoa sortzen lagunduko du. Datuen balio publikoa lortzeko, beharrezkoa da epe luzerako ikuspuntua eta ikuspegia izatea, honako hauek ekarriko dituen:

- Datuen lehenetasun politikoa eta lidergoa.
- Datuen gobernantzaren eta kudeaketaren ekonomia eta politika menderatzea ikuspegi zeharkako, global eta genero batekin.
- Datuek segurtasun eta pribatutasunaren arloan izango dituzten aldaketetara modu efikazean egokitzea.



12. irudia. Datuen gobernantza e-Gobernuan. Hemendik egokitua: [Gobernu elektronikoari buruzko 2020ko inkesta](#) («Gobernu digitala garapen jasangarriaren aldeko ekintzaren hamarkadan»)



13. irudia. Datuen gobernantzak ebidentzietan oinarritutako politika publikoen formulazioan duen eginkizuna.
 Hemendik egokitua: [Gobernu elektronikoari buruzko 2020ko inkesta](#)
 («Gobernu digitala garapen jasangarriaren aldeko ekintzaren hamarkadan»)

E. Transformazio digitalerako gaitasunak

Gaitasunak garatzea funtsezkoa da gobernu elektronikoa garatzeko; izan ere, transformazio digitala teknologia gobernantzan txertatzea baino askoz gehiago da.

Gobernu digitalaren indizean balio handiak dituzten herrialdeek jarraitu duten oinarritzko estrategia bat izan da erakunde- eta antolaketa-egiturak berrantolatzea, automatizazio-prozesua ezarri aurretik lan-fluxu horizontal eta bertikal egokiak ezartzeko.

Gobernu digitalaren transformazioa, funtsean, gobernantzaren transformazioa da, eta garapen jasangarriko ikuspegiaren eta estrategiaren aldeko kultura-aldaketa. Ikuspegi holistikoa behar du, balioek bultzatua eta gobernu-maila guztietan instituzionalizatua, eta inklusio digitala sustatu behar du. Gainera, ziurtatu behar du pertsona guztiek, talde zaugarriak barne, teknologia berriak eskura ditzaketela beren ongizatea hobetzeko, herritarren premietan arreta jarritz.



Hauek dira gobernu digitala eraldatzeko **funtsezko oinarriak**:

- Ikuspegia, lidergo eraldatzailea, pentsamolde eta gaitasun indibidualak digitalerantz aldatzea.
- Esparru instituzional eta arautzaile integrala garatzea.
- Erakundeen konfigurazioa eta kultura eraldatzea.
- Sistemen pentsamendua eta ikuspegi integratuen garapena sustatzea, politikak formulatzeko eta zerbitzu publikoak betetzeko. Datuen kudeaketa estrategikoa eta profesionala bermatzea, horietan oinarritutako politika publikoak formulatzeko.
- IKTen eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna.
- Baliabideak mobilizatzea eta lehentasun publiko-pribatuak bat etorraraztea.
- Administrazio publikoko eskolen eta baliokideen gaitasuna hobetzea.
- Gizarte-mailako gaitasunak garatzea, arrakala digitalak gainditzeko eta inor atzean ez uzteko.

F. Gobernu digitalaren eginkizuna COVID-19aren pandemian

Gobernu digitalak funtsezko zeregina izan du krisiari aurre egiterakoan, eta COVID-19aren pandemiaren garaian administrazioetako arduradunen eta gizartearen arteko komunikazio, lidergo eta elkarlanerako elementu bihurtu da.

Pandemiak erakutsi du IKTak erabakigarriak direla gobernantzan, bereziki garai zailetan, behar bezala aprobetxatzen baldin badira.

2.1.3. Gobernu digitala eta berrikuntza publikoa ELGAN

A. Gobernu digitala ELGAN

1.3.3. atalean dagoeneko laburbildu da [ELGAko gobernu digitalerako politikaren erreferentzia-esparrua](#), «Gobernu digital baten sei dimentsioak» dokumentuan jasotzen dena.

[ELGak gobernu digitalaren estrategiei buruz egindako gomendioa](#) honako puntu hauetan laburbiltzen da:

- Teknologia erabiltzea gobernuak **kontuak hobeto emateko** eta gizarteratzea eta elkarteak hobetzeko.



- **Sektore publikoan datuetan oinarritutako kultura** sortzea.
- **Teknologia digitalen** erabilera koherentea bermatzea politika-arlo eta gobernu-maila **guztietan**.
- **Gobernu digitalaren eta gobernantza publikoko** agenda zabalagoen **arteko loturak** sendotzea.
- Arriskuak kudeatzeko ikuspegi bat islatu behar du, **segurtasun eta pribatutasun digitaleko** arazoei heltzeko.
- **Kasu** komertzial **argiak** garatzea, teknologia digitalari buruzko proiektuen finantzaketari eta arrakastari eusteko.
- Proiektuaren ezarpena kudeatzeko eta monitorizatzeko **gaitasun instituzionalak** indartzea.
- Dauden aktiboak ebaluatzea, **teknologia digitalen erosketa** gidatzeko.
- **Lege- eta arau-esparruak berrikustea**, aukera digitalak baliatu ahal izateko.

B. Berrikuntza publikoa ELGAn

Sektore Publikoko Berrikuntzari buruzko Adierazpena 2019ko maiatzaren 22an onartu zen, eta, bertan, berrikuntza modu zabalean ulertzen da, hau da, testuinguruan zerbait berria ezartzea, inpaktua sortzeko. Adierazpen horren helburua berrikuntza legitimatzea da, eta sektore publikoko erakundeen funtzionamenduaren eta zerbitzari publikoen eguneroko lanaren erdigune eta estrategia bihurtzea:

- a) Jarrera partekatua egituratzen du gobernuentzat, berrikuntza nola babestu, hobetu eta hedatu jakin dezaten, askotariko erronkei aurre egiteko eta aukera berrietan abantaila izateko.
- b) Printzipioak, kontzeptuak eta hizkera komuna ematen ditu, eta, horri esker, gobernuak berrikuntzaren kudeaketarako hurbilketa garatu eta sustatu dezakete, beren helburu eta administrazio-testuingurura egokituta.
- c) 5 printzipio orokor biltzen ditu, baita beste ekintza batzuk ere, berrikuntza erakunde eta zerbitzarien funtzio publikoaren erdigune eta estrategia gisa legitimatu eta babesteko:
 - Sektore publikoan berrikuntza barne hartzea eta hobetzea.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030



- Zerbitzari publikoei tresnak ematea, berrikuntzari ekin diezaioten.
- Aliantza berriak lantzea eta ahots desberdinak sartzea.
- Miaketan eta probetan laguntzea.
- Irakaspenak zabaltzea eta praktikak partekatzea.



2.2. Europako testuingurua

2.2.1. Gobernantza

Europar Batasunean dinamika demokratiko zabala bultzatzeko xedez, Batzordeak gobernantzaren erreforma sakonari ekin zion ([Batzordearen 2001eko uztailaren 25eko Komunikazioa, «Europako gobernantza - Liburu zuri bat»](#)).

Gobernantzari buruzko Liburu Zuriak oinarriak ezarri zituen Europaren etorkizunari buruzko eztabaidarako eta, Laekengo Europako Kontseiluan hasitako erakundearen erreforma-prozesu zabalak ekarpen handia egin dio. Prozesu hori Lisboako Ituna sinatuta amaitu da.

Lau aldaketa handi proposatzen ditu:

- Herritarren inplikazioa handitzea.
- Politika eta legedi efikazagoak definitzea.
- Munduko gobernantzari buruzko eztabaidan konpromisoa hartzea.
- Politikak eta erakundeak helburu argietara bideratzea.

2.2.2. Europa digitala

Europar Batasunak [Europako gobernu digitalaren urratsen kronologia osoa](#) argitaratzen du, aztertzen eta/edo arautzen ari diren gaien jarraipena egiteko aukera ematen duena.

[Europako merkatu digital bakarrerako estrategiak](#)⁷ garatze aldera, [Europarako Agenda Digitalak](#), Administrazio Elektronikoa buruzko 2011-2015 Ekintza Planak eta [Administrazio Elektronikoa buruzko 2016-2020 Ekintza Planak](#) honako hauek izan zituzten ardatz, labur-labur aipatuta:

- **Herritarrak ahalduntzea**, bi modutara: batetik, erabiltzaileen premien arabera diseinatutako eta beste batzuekin elkarlanean garatutako administrazio elektronikoko zerbitzuen bidez; eta bestetik, informazio publikorako sarbidea erraztuz, gardentasuna areagotuz eta prozesu politikoan interesa duten parte-hartzaileak inplikatzeko metodo eraginkorragoak erabiliz.
- **Europako barne-merkatuan mugikortasuna sendotzea** administrazio elektronikoko zerbitzu integratuekin, Europar Batasuneko edozein herrialdetan enpresak sortzeko eta kudeatzeko, ikasteko, lan egiteko, bizitzeko eta erretiroa hartzeko.
- **Efizientzia eta efikazia hobetzea** administrazio elektronikoa erabiltzeko etengabeko ahaleginari esker, eta horrela administrazio-kargak murriztea, antolaketa-prozesuak hobetzea eta ekonomia jasangarria sortzea.

2021-2027 aldirako [Europa Digitala Programa](#) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua 2021eko martxoan [onartu zen](#), eta honela laburbil daiteke.

Helburu orokorra da EBren, estatu kideen eta industriaren inbertsioak sustatzea, Europako ekonomiaren, industriaren eta gizartearen transformazio digitala laguntzeko eta, horrela, lehiakortasuna hobetzeko, arrakala digitala murriztuz eta EBren autonomia estrategikoa indartuz.

⁷ Dokumentu honetan aipatzen den informazio objektiboaren erreferentziak Batzordearen zerbitzuen [«Estrategia bat Europako Merkatu Digital Bakarrerako – Analisia eta frogak» \[SWD\(2015\) 100\]](#) lan-dokumentuan ageri dira Planteatzen diren eronkei eta estrategiaren aldeko frogari buruzko xehetasunak ere ematen ditu dokumentu horrek.



Helburu espezifiko lotu eta interdependenteak honako hauek dira:

- Goi-errendimenduko informatika.
- Adimen artifiziala.
- Zibersegurtasuna eta konfiantza.
- Gaitasun digital aurreratuak.
- Hedapena, gaitasun digitalen erabilera hobea eta elkarreragingarritasuna.

Honako **jarduera mota hauek** aurreikusten dira:

- Identifikatutako hiru teknologia digitaletan (goi-errendimenduko informatika, zibersegurtasuna, adimen artifiziala) funtsezko **gaitasunak** garatzea eta indartzea, bai eta beharrezkoak diren gaitasun digital aurreratuak ere.
- **Teknologia digitalak** ekonomia osoan eta gizartean **hedatzea** eta hobeto erabiltzea. Berrikuntza Digitaleko Zentroek (Digital Innovation Hub) funtsezko eginkizuna izango dute teknologia digitalak enpresa-eremuan hedatzeko. Programa integrala denez, Europako Batzordeak helburutzat hartzen du, halaber, ETEei eta administrazio publikoei teknologia digital berrienetarako irispidea erraztea, berrikuntza digitaleko zentroyen sare bat sortuz.

Europar Batasunaren **estrategia digitalaren jarduketa-eremu** nagusiak honako hauek dira:

A. Subiranotasun digitala

COVID-19aren ondorengo ingurunean, EBk bere subiranotasun eta lidergo digitalak babestu eta indartu nahi ditu nazioarteko balio-kate digital estrategikoetan, eremu digitaletan **autonomia estrategikoa** bermatzeko funtsezko elementuak baitira. Gainera, aldi berean EBren balio erkideak sustatu eta oinarrizko askatasunak errespetatu nahi ditu, datuen babesa, pribatutasuna eta segurtasuna barne.

Aurre egin beharreko erronka nagusia subiranotasun digitala da, hau da, merkatu bakar benetan digitala lortzea, bere arauak zehaztu, erabaki teknologiko autonomoak hartu, eta bere soluzio digitalak garatzen dituen.

Europako Kontseiluak 2021eko martxoan eztabaidatu du Batzordeak [Iparrorratz Digital globalari](#)⁸ buruz egindako proposamena; bereziki 2030erako helburuak, eta hurrengo etapetarako orientazioa eman du. Proposamenetik honako ondorio hauek atera ditu:

- a. **Digitalizazioak** Europak dituen erronka askori irtenbideak emateko ahalmena du. Teknologia digitalak pertsonak komunikatzeko modua ez ezik, bizitzeko eta lan egiteko modua ere aldatzen ari dira. COVID-19aren pandemiaren bultzada gehigarriari esker, EB trantsizio teknologikoa bizkortzeko lanean ari da.
- b. Soluzio digitalek **enplegua** sortzen, **hezkuntza** garatzen eta **lehiakortasuna eta berrikuntza** areagotzen laguntzen dute, eta herritarren **bizitza hobetu** dezakete. Teknologia digitalak funtsezko zeregina du Europako ekonomiaren eta gizartearen transformazioan, **EB klimaren aldetik neutroa izan dadin** hemendik 2050era. Horixe da EBko agintariek adostutako helburua.
- c. **EBren balioak, oinarrizko eskubideak eta herritarren segurtasuna** babestea trantsizio digitalaren funtsezko elementua da. Europar Batasunak ikuspegi antropozentrikoari jarraitu nahi dio, hots, Batasuneko desberdintasunak errespetatuko dituen bati.
- d. Digitalizazioa funtsezko osagaia da EBk COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoari ematen dion erantzunean. **COVID-19aren pandemiaren** ondorioz, areagotu egin da Europan trantsizio digitala azkartzeko beharra.

Proposamenak Europaren transformazio digitalerako ikuspegi bat aurkezten du, [hemendik 2030era bitartean lortu beharreko helburu eta mugarri zehatzekin](#)⁹, eta lau eremu nagusitan egituratzen da:

- Gaitasunak.
- Enpresak.
- Zerbitzu publikoak.
- Azpiegiturak.

⁸ [Ikusi infografia osoa.](#)

⁹ Ikusi halaber

- [Aro digitalera egokitutako Europa \(Europako Batzordea\).](#)

- Komunikazioa: «Europaren etorkizun digitala konfiguratzeari» (Europako Batzordea).

- Merkatu digital bakarraren konfigurazioa: 2014-2019 (Europako Batzordea).



B. Zerbitzu digitalak

Lineako plataformak EBren merkatuaren eta ekonomia digitalaren zati garrantzitsua dira. Estatu kideek aitortzen dute beharrezkoa dela zerbitzu digitalei buruzko arauak indartzea, modernizatzea eta argitzea, erabiltzaileen **segurtasuna** bermatzeko eta enpresa digital berritzaileen **hazkundera** ahalbidetzeko.

- Lineako erabiltzaileen **segurtasuna** bermatzea.
- Enpresa digital berritzaileei **hazteko** aukera ematea.

EBk zerbitzu digitalei dagokienez duen esparru juridikoa ez da aldatu 2000. urtean merkataritza elektronikoari buruzko zuzentaraua onartu zenetik. Bien bitartean, teknologia digitalak, negozio-ereduak eta zerbitzuak aurrekaririk gabeko erritmoan aldatu dira. Europako Batzordeak kontsulta publiko bat egin zuen, 2020ko irailaren 8an amaitu zena, ekimenak oinarritzeko informazioa biltzeko, eta [Zerbitzu Digitalen Legearen paketea](#) aurkeztu zuen 2020ko abenduan (Zerbitzu Digitalen Legea eta Merkatu Digitalen Legea). Haren bidez, arau berri eta asmo handiko batzuk proposatu zituen espazio digitala eta zerbitzu digitalak hobeto arautzeko, bereziki gizarte-hedadabideen plataformak. Hauek dira bere **helburu** nagusiak:

- Erabiltzaile digitalek **produktu seguruak** eskura ditzaten zaintzea eta horien oinarritzeko **eskubideak** babestea.
- Sektore digitaletan lehia aske eta zintzoa ahalbidetzea, **berrikuntza eta hazkundera** sustatzeko.

C. Datuen ekonomia

Teknologiaren garapenari esker, gero eta datu gehiago daude eskuragarri. EBko estatu kideek onartzen dute datuen ekonomiak Europarentzat duen garrantzia, aro digitalean haztea eta aurrera egitea nahi badugu. Ekonomia hori garatzea du helburu, pertsonak ardatz hartuta eta EBko balio erkideekin bat etorritik, sektoreen artean eta mugez gaindi datuak gehiago trukatzeko eta berrerabiltzeko bermatuz; horrek zerbitzu eta aplikazio berritzaile ugari susta ditzake.

2014az geroztik, Europako Batzordeak hainbat urrats eman ditu datuen erabileran ekonomia arin bat garatzeko. Horretarako, honako hauek onartu ditu: Datu ez-



pertsonalen zirkulazio askeari buruzko Erregelamendua¹⁰, Zibersegurtasunari buruzko Legea¹¹, Datu irekien eta sektore publikoko informazioaren berrerabilpenari buruzko Zuzentaraua¹² edo Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra¹³. Era berean, 2018an, Batzordeak adimen artifiziala sustatzeko ikuspegi europar bat¹⁴ aurkeztu zuen lehen aldiz, eta estatu kideekin koordinatutako plan bat¹⁵ adostu zuen. 2020an, Zibersegurtasunerako Europako Estrategia ere aurkeztu zuen.

Datozen bost urteetan transformazio digitala erraztuko duen [Datuen Europako Estrategia](#) proposatu du Europako Batzordeak. Europako Kontseiluak pozik hartu zuen Estrategia, Europako datu-ekonomia lehiakor benetakoa eraikitzeko; eta, aldi berean, Europako balioak, datuen segurtasun- eta babes-maila handia eta pribatutasunaren babesa bermatzen dira.

2020ko abenduaren 7an, telekomunikazio-ministroek orientazio-eztabaida bat izan zuten [Datuen Gobernantzari buruzko Legearen proposamenari](#) buruz.

D. Adimen artifiziala

2019an ELGak «[Adimen artifiziala eta haren erabilera sektore publikoan](#)» argitaratu zuen eta 2020ko urrian EBko Presidentetzak [Oinarrizko eskubideen errespetuaren bermeari buruzko ondorioak](#) aurkeztu ditu.

Adimen artifiziala lagungarria izan daiteke ekonomia berritzaileagoa, efizienteagoa, jasangarriagoa eta lehiakorragoa lortzeko, eta, aldi berean, herritarren segurtasuna, hezkuntza eta arreta sanitarioa hobetzeko. Mesedegarria da klima-aldaketaren aurkako borrokarako ere. Adimen artifizialaren teknologiaren garapena sustatzeaz gain, EBko estatu kideek arrisku potentzialak onartzen dituzte, eta teknologia horren ikuspegi etiko eta antropozentrikoa hartzearen alde egiten dute.

2020ko urriaren 2an, Europako Kontseiluak honako hau eskatu zion Batzordeari:

¹⁰ Europako Batzordea (2019) «[Regulation on the free flow of non-personal data](#)».

¹¹ Europako Batzordea (2020-) «[The EU Cybersecurity Act](#)».

¹² Europako Batzordea (2019) «[Open Data Directive \(Directive \(EU\) 2019/1024\)](#)».

¹³ Europako Parlamentua eta Kontseilua (2016) «[2016/679 \(EB\) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa](#)».

¹⁴ Europako Batzordea (2018) «[Artificial intelligence: Commission outlines a European approach to boost investment and set ethical guidelines](#)».

¹⁵ Europako Batzordea (2018). «[Member States and Commission to work together to boost artificial intelligence "made in Europe"](#)».



- Ikerketan, berrikuntzan eta adimen artifizialaren hedapenean Europako eta estatuko inbertsio publikoak eta pribatuak handitzeko moduak proposatzea.
- Koordinazio hobea eta sare eta sinergia gehiago ziurtatzea bikaintasunean oinarritutako ikerketa-zentro europarren artean.
- Arrisku handiko adimen artifizialeko sistemen definizio argia eta objektiboa ematea.

E. Konektibitatea

COVID-19aren pandemiak argi utzi du EB osoan konektibitate azkarra eta nonahikoa behar dela, europar guztiei teknologia digitala erabiltzeko aukera emango diena. EBk konektibitate-helburu batzuk ezarri ditu 2025erako, honako hauek, hain zuzen:

- Gigabit konektibitatea motor sozioekonomiko nagusi guztientzat,
- 5G estaldura, etenik gabe, hiriguneetan eta lurreko garraio-bide handietan,
- Gutxienez 100 Mbps eskaintzen dituen konektibitaterako sarbidea Europako etxe guztietarako.

2020ko ekainaren 9an, EBko ministroek 5G eta 6G sareak ezartzeko ekintza-plan berri bat egiteko eskatu zioten Batzordeari. EBk, halaber, zibersegurtasunarekin lotutako arriskuak arintzeko eta 5G modu seguruan ezartzen dela bermatzeko planteamendu koordinatua behar dela uste du.

F. Zibersegurtasuna

Mehatxuak eta delitu zibernetikoak gero eta ugariagoak eta konplexuagoak direnez, EB lanean ari da erantzuteko gaitasuna hobetzeko eta azpiegitura digitalen eta komunikazio-sare eta -zerbitzuen zintzotasuna, segurtasuna eta erresilientzia babesteko. Zibersegurtasunaren arloko erantzun irmoagoak teknologia digitalean konfiantza handiagoa izatea eta ziberespazio seguru, ireki eta babestua edukitzea berma dezake. 2020ko urriko ezohiko Europako Kontseiluan, EBko agintariek eskatu zuten EBk zibermehatxuetatik babesteko duen gaitasuna hobetu zezala, komunikazio-ingurune segurua eskaintzeko, batez ere zifratze kuantikoaren bidez, eta datuetarako sarbidea bermatzeko ondorio judizial eta polizialeterako.



2021eko martxoan, EBko ministroek [Europar Batasunaren Zibersegurtasun Estrategiari buruzko Ondorioak](#)¹⁶ onartu zituzten. Ondorio horiek Europako Batzordeak eta EBko Atzerri Gaietarako eta Segurtasun Politikarako goi-ordezkariek aurkeztu zituzten 2020ko abenduan.

Ondorioetan adierazten denez, zibersegurtasuna funtsezkoa da Europa erresiliente, ekologiko eta digital bat eraikitzeko, eta funtsezko helburutzat hartzen da autonomia estrategikoa lortzea, eta aldi berean ekonomia irekia zaintzea. Horretarako, zibersegurtasunaren esparruan erabaki autonomoak hartzeko gaitasuna handitu behar da, EBren lidergo digitala eta gaitasun estrategikoak indartzeko.

G. Europako identifikazio digitala

2020ko urrian, Europako Kontseiluak identifikazio elektronikoko publiko segururako esparru bat garatzeko eskatu zuen EBrako, batez ere sinadura digital elkarreragingarriak, herritarrek beren identitatea eta datuak linean kontrolatu ahal izateko eta zerbitzu digital publiko, pribatu eta mugaz gaindiko zerbitzu digitaletarako sarbidea errazteko. Europako Kontseiluak 2021. urtearen erdialdea baino lehen «Europako Identifikazio Digitalari» buruzko ekimen-proposamen bat aurkezteko eskatu zion Batzordeari.

H. Osasun elektronikoa

COVID-19aren krisiak agerian jarri du sektore sanitarioan eta asistentzian transformazio digitalak duen garrantzia. Digitalizazio horrek sistema sanitarioen erresilientzia eta COVID-19aren pandemiari ematen dioten erantzuna indartu ditzake.

I. Gaitasun digitalak eta hezkuntza

EBn, gaitasun digitalak dituzten langileen eskaria gero eta handiagoa da sektore guztietan; merkatuak milioi bat aditu digital behar dituela zenbatesten da. EBko estatu kideek kopuru hori erdira murriztu nahi dute hemendik 2025era, hezkuntza digitala hobetuz eta eskulanaren trebakuntza hobetuz.

¹⁶ [Zibersegurtasuna Europan \(erreferentziako informazioa\)](#).



J. Justiziaren digitalizazioa¹⁷

Estatu kideetako sistema judizialak gehiago digitalizatzeak hobetu egin dezake herritarren eta enpresen justiziarako sarbidea, eta, era berean, prozedura judizialen efikazia eta efizientzia ere handitu ditzake.

EBko herrialde batzuk dagoeneko hasi dira justiziaren esparruan tresna digitalak erabiltzen, adibidez:

- Prozedura judizial digitalak egitea.
- Alderdien arteko komunikazio elektronikoa.
- Agiriak elektronikoki igortzea.
- Entzunaldiak eta hitzaldiak linean egitea.

Estatu kideek tresna digitalei erabilera orokorragoa eman beharko liekete prozedura judizialean, betiere auzitegien independentzia- eta inpartzialtasun-printzipio funtsezkoak ahultzen ez badira.

2.2.3. Europar Batasuneko ikerketa- eta berrikuntza-programa

Aipatzekoa da [Horizonte Europa \(2021-2027\)](#), [Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Programak](#), zerbitzu publikoen barruko kosorkuntzako jardueretan parte hartzeko prozesuak ardatz dituzten proiektuak sustatzen dituela. Champion aplikazioak, zerbitzu publikoetan konfiantza, erantzukizuna eta gardentasuna areagotzeko. Horizontea 2020 ikerketa-programarako lehen lan-programak hodei-konputazioaren erabileraren bidez sektore publikoaren produktibitatea eta berrikuntza handitzeko jarduera bat barne hartzen du.

¹⁷ [Kontseiluak arau berriak onartu ditu lankidetzak judiziala modernizatzeko \(prentsa-oharra, 2020-11-04\)](#).
[Kontseiluak Erabaki batzuk hartu ditu digitalizazioari buruz, justiziarako sarbidea hobetzeko \(prentsa-oharra, 2020-10-13\)](#).



| 1. zutabea Zientzia bikaina | 2. zutabea Munduko erronkak eta lehiakortasuna Europako industria | | 3. zutabea Europa berritzailea |
|--|---|--|---|
| Europako Ikerketa Kontseilua | Klusterrak | <ul style="list-style-type: none"> Osasuna Kultura, sormena eta gizarte inklusiboa Segurtasun zibila gizartearentzat Mundu digitala, industria eta espazioa Klima, energia eta mugikortasuna Elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak, nekazaritza eta ingurumena | Berrikuntzarako Europako Kontseilua |
| Marie Sidodowska-Curie ekintzak | | | Europako berrikuntza-ekosistemak |
| Ikerketa-azpiegiturak | | Ikerketa Zentro Bateratua | Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Institutua |
| Parte-hartzea zabaltzea eta Europako ikerketa-esparrua indartzea | | | |
| Parte-hartzea zabaltzea eta bikaintasuna zabaltzea | | I+G sistema europarra erreformatzea eta hobetzea | |

2. taula. Ikerketa eta Berrikuntzako esparru-programaren egitura, Horizonte Europa. Iturria: Europako Batzordea

2.2.4. Europarako suspertze-plana

2021eko otsailaren 11n, Kontseiluak Susperraldi eta Erresilientziarako Mekanismoa ezartzen duen Erregelamendua onartu zuen, EBren suspertze-neurri ezohikoen ardatz nagusia hain zuzen ere (Next Generation EU Europako Funtsa).

Finantzaketak COVID-19aren pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiten lagunduko die estatu kideei, eta, era berean, bermatu egingo du haien ekonomiek **trantsizio** ekologiko eta **digitalei** ekingo dietela jasangarriagoak eta erresilienteagoak izateko.

Herrialdeek susperraldi eta erresilientziarako plan nazionalak aurkeztu dituzte, eta 2026ra arteko erreforma- eta inbertsio-programak ezarriko dituzte plan horietan (ikusi 2.3.3 eta 2.4.2.c atalak).



2.3. Estatuko Administrazio Orokorra

2.3.1. Administrazio publikoen erreforma

Estatuko Administrazio Orokorrak aldian behin argitaratzen du [administrazio-kargen murrizketari eta dokumentuen sinplifikazioari buruzko informazioa](#), bai eta administrazio-kargen murrizketaren arloan estatuan zein nazioartean egindako jarduketei buruzko dokumentu erreferenteak, araudia hobetzeari buruzko informazioa eta enpresek eta herritarrek beren iradokizunak uzteko inprimakia ere.

2021eko apirilean, Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioak [administrazio publikoa aztertzeke eta erreformak proposatzeko taldea](#) eratu zuen. Administrazio publikoa erreformatzeko proposamenak aztertu eta formulatzea izango du eginkizun, bai eta Estatuko Administrazio Orokorrean epe labur eta ertainean palanka eta berrikuntza-eragile gisa jardungo duten ekimenak identifikatu, horiekin probak egin eta ebaluatzea ere. Hauek dira **lehentasunezko arloak**:

- Transformazio digitala.
- Administrazio publiko erakargarri eta irisgarria belaunaldi gazteentzat.
- Berrikuntza.
- Aldaketak ezartzea.

2.3.2. Estatuko Administrazio Orokorren transformazio digitala

[Segurtasun Eskema Nazionala](#) eta [Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala](#) funtsezko elementuak dira aurrera egin eta administrazio elektronikoaren hedapenak egun dauzkan oztopo nagusiak gainditzeko.

Beste erreferentzia garrantzitsu bat [administrazio digitaleko zerbitzuen katalogoa](#) da. Katalogo horretan sartzen dira administrazio publikoen esku jartzen diren zerbitzu erkideak, azpiegiturak eta beste soluzio batzuk, administrazio digitalaren garapena sustatzen laguntzeko eta herritarrei eta enpresei edo, barnean, enplegatu publikoei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko.

Halaber, [Espainia Digitala 2025 Plana](#) honako hauek sustatzeko hedatuko da: konektibitatea eta zibersegurtasuna, administrazioaren eta produkzio-sarearen digitalizazioa, gizarte osoaren gaitasun digitalak eta adimen artifizialeko berrikuntza disruptiboa

Aipatzekoa da, halaber, [36/20 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 30ekoak, presako neurriak onartzen dituenak administrazio publikoa modernizatzeko eta suspertze, transformazio eta erresilientzia plana egikaritzeko](#):

- Susperraldi eta Transformazio Ekonomikorako Proiektu Estrategikoak.
- España Puede-Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana.

“XXI. menderako Administrazioa” deitzen zaio jasotzen dituen hamar politika zutabeetako bati, eta administrazio publikoen modernizazioari buruzko proiektuak biltzen ditu (digitalizazioa, zibersegurtasuna, trantsizio energetikoa ...).

2.3.3. Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana

[Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planak](#), Next Generation EU funtsaren esparruan, 11. osagaien, administrazio publikoak modernizatzeari buruzko erronka eta helburuak jasotzen ditu.

Estatuko Administrazio Orokorrek orain arte ezohikoa izan den jardunbide bat zabaldu du hilabete hauetan zehar: **Intereseko Adierazpenak** Formula horri esker, eragile publikoak eta pribatuak mugiarazi ditu, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 30 osagaietan jasotako inbertsio-lerroen hedapenaren esparruan garatu beharreko proiektuak asma ditzaten.



2.4. EAEko testuinguru estrategikoa

2.4.1. XII. Legealdirako Gobernu Programa

XII. Legegintzaldirako Gobernu Programaren printzipioak gauzatzeko eta herrialde-helburuak lortzeko, ezinbestekoa da gobernantza publikoko politikatan eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoan berrikuntza sustatzea, eta inor atzean utziko ez duen gobernu digital bat sortzea, arrakala digitalak (genero, adin edo lurraldearen arabekoak, esaterako) lehentasunez heldu beharreko erronka bihurtuta.

Gobernu Programaren beste ardatz eta jarduketa-arlo batzuk badaude ere, *GBPGDPE 2030*rekin lotura garrantzitsuena duena *IV. ardatza* da: *Autogobernua. Autogobernua gehiago eta hobea, 25. jarduketa-arloa. Kudeaketa publiko, garden eta arduratsua:*

*Modernizazio hutsetik harago, beharrezkoa da administrazioa berriz diseinatzea sustatzen duen etapa berri bati ekitea, herritarren eskari eta eskakizun berriei hobeto erantzuteko. Diseinu berri horrek EAEko administrazio berria eratzen duten **lau oinarri** ditu:*

- *Hurbilekoa, sinplea eta efizientea, bikoiztasunak saihestuko dituena (147. konpromisoa).*
- *Irekia eta gardena, kontuak ematen dituena denbora errealean (148. konpromisoa).*



- *Administrazio berritua eta digitala, finkatutako eta prestatutako giza baliabideekin* (149. konpromisoa).
- *Baliabide publikoak erantzukizunez kudeatzen dituen administrazioa* (150. konpromisoa).

Konpromiso horiek guztiek ekimen zehatzak dakartzate lotuta, konpromiso horiek lortzea ahalbidetuko dutenak.

Bestalde, XII. Legegintzaldirako gobernu-programan, Eusko Jaurlaritzak digitalizazioa eta trantsizio digitala aurreikusi ditu lau ardatzetan, baita jarduketa-arloetako ekimen sektorialak ere. Horiek *Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren 2030 Plan Estrategikoa*n jasotzen dira, hala nola:

- Justizia bizkorrago, efikazago eta digitalizatuago baten eraketan aurrera egitea.
- Kulturen berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea.
- Administrazio berritu eta digitala sustatzea, profesional finkatu eta prestatuekin.
- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa onartzea. Plan horrek, besteak beste, gure gizartearen trantsizio teknologiko-digitala jasoko du.

1.1. atalean, *GBPGDPE 2030en* formulazioak herritarren beharrekina eta Gobernu Programaren konpromisoekin duen lotura jasotzen da.

2.4.2. Beste gobernu-plan estrategikoko batzuk

A. Euskadi-Basque Country 2030 Agenda

EAEko Administrazio Orokorra Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari egiten dion ekarpena [Euskadi-Basque Country 2030 Agendan](#) jasotzen da.

EAEko erakundeentzako gida hau ere egin da: [Euskadi 2030 Gunea: Nola ezarri 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuei lagundu](#).

GBPGDPE 2030 Bakearen eta autogobernuaren ardatzean eta Autogobernuaren eta gobernantza publikoaren arloan kokatzen da:



| | | |
|---|------------------------|---|
|  Garapen jasangarriko helburuak | Oparotasuna | <ul style="list-style-type: none"> Enplegua Industria eta nazioartekotzea Zientzia, teknologia eta Berrikuntza Elikadura eta landa-garapena Merkataritza, ostalaritza eta turismoa |
| | Pertsonak | <ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza Osasuna Gizarte-politikak Genero-berdintasuna Kultura eta euskara |
| | Planeta | <ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura ekonomiko eta sozialak Trantsizio energetikoa eta neutraltasun klimatikoa |
| | Bakea eta autogobernua | <ul style="list-style-type: none"> Segurtasuna Justizia eta giza eskubideak Autogobernua eta gobernantza publikoa |

3. taula. Giza garapen jasangarriaren dimentsioak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren ardatzekin bat etortzea.

B. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa. Lan-plana (2021-2024)

Gobernu Kontseiluaren 2021eko martxoaren 9ko Erabakiaren bidez, [2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren](#) 2021-2024 aldirako lan-plana onartu zen. Hauek dira *GBPGDPE 2030*rekin lotura zuzena duten konpromisoak:

| IV. ardatza. Autogobernua Autogobernu handiagoa eta hobea | | |
|---|---------------------------------------|--|
| 25. jarduketa-arloa. Kudeaketa publiko, garden eta arduratsua | | |
| Konpromisoa | Saila | GJH |
| 147. Aurrerapausoak ematea bikoiztasunak saihesten dituen administrazio hurbilagoa, sinpleagoa eta efizienteagoa lortzeko | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak |
| 148. Administrazio irekiagoa eta gardenagoa sustatzea, kontuak ematen dituen denbora errealean | | |
| 149. Administrazio berritua eta digitala sustatzea, giza baliabide finkatuekin | | |

4. taula. Gobernu Programaren konpromisoak 2030 Agendaren GJHeekin lotuta. Iturria: 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa. Lan-plana (2021-2024):



C. Euskadi Next 2021-2026 programa

Europako Funtsaren esparruan, 2021-2026 aldirako Next - EAEko Suspertze eta Erresilientzia Programak (2021eko maiatzean eguneratua) «Next Generation EU» Europako Funtsaren esparruan, bere helburuetako bat **trantsizio digitala** da (trantsizio energetiko-ekologikoarekin eta kohesio sozialarekin batera) eta formulazio estrategikoaren osagaien artean **administrazio publikoen digitalizazioa eta berrikuntza daude**.

Digitalizazioaren eta berrikuntzaren 5. osagai hori guztiz bat dator Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko proiektuekin.

Susperraldi eta Erresilientziarako Mekanismoko funtsen erabileraren izaera eraldatzailea hobetzeko, eta proiektu eraldatzaileen ezaugarriak (konplexuak, urte anitzekoak, dimentsio anitzekoak, ministerioartekoak, erakundeartekoak...) barne hartu eta kontuan hartzeko, ondorengo grafikoan jasotako esku-hartze piramidalen egitura bat planteatzen da:



14. irudia. Susperraldi eta Erresilientziarako Mekanismoko funtsen bidezko esku-hartze eraldatzaileen egitura. Iturria: Next - EAEko Susperraldirako eta Erresilientziarako Programa 2021 - 2026 eguneratua (2021eko maiatza)

EAEko eskualdeko Susperraldi eta Transformazio Ekonomikorako Proiektu Estrategikoen artean, besteak beste, **5. Eskualdeko Susperraldi eta Transformazio Ekonomikorako Proiektu Estrategikoa** dago: *big data, cloud, adimen artifiziala eta*



ardatz

Gobernantzaren Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

zibersegurtasuna. Digitalizazioaren eta berrikuntzaren osagaien integratuta dago, eta teknologia digitalek lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen dituzten aukeren aprobetxamendua maximizatzea lortu nahi du.

Hala ere, programa honek Susperraldi eta Erresilientziarako Mekanismoaren (SEM) Europako funtsak mekanismo arbitratu horien bitartez lortze aldera inbertsio-proiektu zehatzak jasotzen ditu, baina horrek ez du esan nahi proiektu horiek SEMek finantzatuko dituenik, ezta gauzatuko direnik ere.

D.EAEko ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu Programa (2020-2024)

2020ko azaroaren 3ko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren bidez onartu zen [Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa 2020-2024](#). Programa horrek honako mega-joera hauek adierazten ditu trantsizio hirukoitz batean:



15. irudia. Krisi bat hiru trantsizio globalen esparruan.
Iturria: Berpiztu programa, ekonomia eta enplegua suspertzeko Euskadin 2020-2024.

GBPGDPE 2030 ekonomia suspertzeari buruzko I. ardatzean dago, eta, zehazki, **ikerketaren, berrikuntzaren eta transformazio digitalaren arloan.**



16. irudia. Berpiztu Programaren (2020-2024) ardatzak eta jarduketa-arloak.

Hori guztia bat dator EAEko hobekuntza-eremuen diagnostikoarekin, Europako gainerako lurraldeekin alderatuta, joera handien esparruan, dimentsio hirukoitzeko trantsizio batean: teknologia-digitala, energetiko-klimatikoa eta soziosanitarioa.

GBPGDPE 2030 trantsizio teknologiko-digitalaren eremuko plangintza estrategikoaren aurreikuspenetan kokatzen da. Zehazki, ekonomia suspertzeko I. ardatzeko politikek honako politika hauek biltzen dituzte:




17. irudia. Berrikuntzarako eta transformazio digitalerako gastu-aurreikuspenak, ekonomia suspertzeko I. ardatzean. Iturria: Berpiztu 2020-2024



E. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana, ZTBP Euskadi 2030

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planak (ZTBP Euskadi 2030) berrikuntza publikoa ere hartzen du bere osagai estrategikoen artean, eta gobernantza-, berrikuntza- eta digitalizazio-politika harekin lotzen ditu. Era berean, helburu hauek ditu: *«administrazio berritua eta digitala, Gobernu Digitalaren Euskal Estrategia abian jarrita eta, transformazioa eginda, osasunaren, hezkuntzaren eta justiziaren digitalizazioaren bidez».*



18. irudia. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari (ZTBP Euskadi 2030) lotutako politikak

| | |
|------------------------------------|---|
| Teknologia digitalak edo birtualak | Adimen artifiziala eta big data – Datuen zientzia Iragartzeko eta erabakiak hartzeko algoritmoak Machine learning Data analytics Ikusmen artifiziala Digital twin |
| | Gauzen Internet eta SG teknologiak IoT konektagarritasuna Digital platforms Cloud computing |



| | |
|--|--|
| | Zibersegurtasuna Blockchain Produktuaren zibersegurtasuna Sareko zibersegurtasuna |
| | Sistema ziber-fisikoak Kontrol-algoritmoak Eragingailuak Elektronika kapsulatua, sentsorikoa eta bio-sentsorikoa |

5. taula. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP Euskadi 2030) oinarritzko teknologien mapa.

ZTBPre arabera, sektore publikoak **bi helburu hauek** ditu berrikuntzan:

- Alde batetik, administrazio publikoak gidatu beharko du RIS3 estrategiaren hedapenari lotutako **berrikuntzako lankidetzaren prozesuen** abiaraztea. Ildo horretan, sektore publikoak berrikuntza irekia eta elkarlanekoa sustatu beharko du eremu estrategikoetan, zientzia-, teknologia- eta enpresa-eragileak eta herritarrak barne hartuz (adibidez, osasun-sistemako pazienteak), eta teknologia eta ekipamendu berriak ikertzeko, baliozkotzeko eta erakusteko jarduerak elkarrekin garatzea erraztuko duten programak eta tresnak indartuz. Helburua prozesu berritzailearen fase guztiak betetzea da, ideia bururatzetik hasi eta erosketara publikoraino.
- Bestalde, berrikuntza publikoa sustatu nahi da, **administrazio irekiagoa, gardenagoa, berrituagoa eta digitalagoa** sortzeko, esaterako, osasun-, hezkuntza- eta justizia-zerbitzuen **transformazioari** ekiteko eta gobernantza demokratikoa eta **herritarren parte-hartzea** hobetzeko.

F. EAEko Transformazio Digitalerako Estrategia 2025

[EAEko Transformazio Digitalaren Estrategiak](#) hiru trantsizio global handien barruan duen erronka bikoitza azaltzen du:

- Eragile berritzailea izatea.
- EAEren transformazio digitalaren motorra bihurtzea.

GBPGDPE 2030 eta 2025erako EAEko Transformazio Digitalaren Estrategiaren formulazio estrategikoa (palanka teknologikoak, laguntza-gaitzaileak, sektoreak, ekintza-lerroak eta aplikazio-eremuak) honako alderdi hauetan datoz bat:



19. irudia. 2025erako EAEko Transformazio Digitalaren Estrategiaren formulazio estrategikoa.

G. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoa (2021-2024 aldirako IKTPE)

Informazioaren eta Komunikazio Teknologien Plan Estrategikoak (IKTPE, 2021-2024) EAEko Sektore Publikoa Bateratzeko Eredu Orokorren eta IKTen Kudeaketa Ereduaren erronkei erantzuten die.



20. irudia. Erronka hauei erantzuten die EAEko sektore publikoaren IKTak kudeatzeko ereduak: Iturria: 2021-2024 aldirako IKTPEren Ekintza Plana.



Hauek dira 2021-2024 aldirako IKTPEaren ardatzak:

- 1. ardatza. IKT gobernantza-eredua.
- 2. ardatza. IKT irtenbide eta zerbitzuak; horien artean, euskal sektore publikoko erabiltzaileen arreta zerbitzuak modernizatzea eta adimen artifizialeko plataforma bat garatzea.
- 3. ardatza. Teknologia aurreratuak eta berrikuntza; horien artean dago euskal sektore publikoaren Datuaren Estrategia eta *Gauzen Internet*-en Estrategia bultzatzea.
- 4. ardatza. IKTen eta pertsonen antolaketa.
- 5. ardatza. IKTen kudeaketa aurreratua.

H. EAEko Ekintzailetzaren Erakundearteko Plana, 2024

GBPGDPE 2030 lagungarria izan daiteke Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako [EAEko 2024ko Ekintzailetzaren Erakundearteko Planerako](#) ere, hainbat ildotan **aukerak** eskaintzen baititu:

- Prozesuak bizkortzea eta enpresa eta pertsona ekintzaileentzako administrazio-kargak murriztea.
- Informazio eta datu publikoak negozio-aukera gisa berrerabiltzea.

I. Euskal Hezkuntza-Sistemaren 2024ko Eraldaketa Digitalerako Plana

[Euskal Hezkuntza-Sistemaren 2024ko Eraldaketa Digitaleko Plana](#) egiten eta izapidetzen ari da *GBPGDPE 2030* hau izapidetzen ari den momentu berean. Ekimen hori esplizituki jasota dago Hezkuntza Sailaren sektoreko ekimenen artean Plan honetan (2. eranskina).

2.4.3. Lurralde historikoak

Hiru foru-aldundiak plan estrategikoak egiten ari dira gobernantza publikoaren arloan, eta estrategiak dituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologien eremuan, azpiegitura teknologikoak berritzeko, atariak hobetzeko, barne-zerbitzuak hobetzeko, tokiko erakundeetan IKTak sustatzeko eta abar. Gainera, administrazio elektronikora bideratutako modernizazio-ekimenak gauzatu dituzte eta gauzaten ari dira, zerbitzu elektronikoak herritarrengana hurbiltzeko asmoz.



Haien webetan hainbat informazio dago eskuragarri plano buruz (ardatzak, helburu estrategikoak eta edukiak), ekintza-ildoak buruz, gauzatzen ari diren ekimen eta proiektuei buruz, eta alor horretan gobernu-ekintza egituratzen duten tresna arautzaileak, planifikatzaileak eta kudeatzaileak ezartzeari buruz.

Lurraldearen ikuspegitik, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Araba Digitala 2026 plana.
- Bizkaia Gov Tech proiektua.
- Gipuzkoa Digitala proiektua.
- Digitalizazioaren eta adimen artifizialaren bidez iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko Batuz proiektua.



2.5. Maila anitzeko gobernantza

Herritarretan ardaztutako zerbitzu elektronikoak ezin ditu administrazio bakoitzak bere kasa pentsatu; aitzitik, **administrazio publiko guztien sareko funtzionamenduaren ikuspegitik** landu behar dira. Horrela baino ezin dira bete ezarritako administrazio-prozeduraren betekizunak.

Administrazioak eremu horretan elkarlanean aritzeari esker, alde batetik, herritarrei zerbitzu integratua ematea lortu nahi da, adibidez, administrazio publiko bakoitzak bidalitako jakinarazpenak edo edozein administrazio publikoren esku dauden datu-ziurtagirien eskaerak eskuratzeko ez jo behar izatea hainbat egoitza elektronikotara; eta, bestetik, baliabide publikoak arrazionaltasun ekonomiko erabiltzeko helburua bete nahi du, sistema erkide horietan elkarreragiteko eta partekatze aukerak oso zabalak baitira.

Administrazio publikoen transformazio digitalaren arloko administrazioarteko eta administrazio barruko harremanetan, honako hauek nabarmendu behar dira.

A . European

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Europako Batzordearentzat eta estatu kideentzat finantza-baliabideak eman dituzten programak abiarazteko erabakiak hartzen dituzte:



- Europako Batzordearen [ISA programak](#) (Interoperability solutions for public administrations, businesses and citizens) aukera eman du administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzen duten zerbitzuak eta tresnak garatzeko.
- [CIP programak](#) (ICT-PSP, Lehiakortasun eta Berrikuntza Programa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko politikari laguntzeko), urteroko deialdien bidez, mugaz gaindiko proiektuak finantzatu ditu, eta horietako bostetan Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek parte hartu dute, hala nola [STORK](#) (identitate segurua muga lotuez gaindi), EPSOS (eOgasuneko Europako Proiektua) eta [e-traslation](#) (EBn hizkuntza-mugak apurtzeko itzulpen-tresna doakoa, sinplea eta segurua).

B. Estatuan

[Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak](#) 147. artikulutik 151. artikulura arautzen ditu konferentzia sektorialak, eta horien artean administrazio publikoaren konferentzia sektoriala¹⁸.

Konferentzia horren mende dago [Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektoriala](#), eta administrazio elektronikoaren arloan Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoetako administrazioen eta toki-erakundeen elkarlanerako organo teknikoa da. Batzordean parte hartzen dute administrazio elektronikoaren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzetako titularrek (Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza).

Haren eginkizunak dira sistemen eta aplikazioen bateragarritasuna eta elkarreragingarritasuna bermatzea, administrazio elektronikoaren garapena sustatzea eta administrazio publikoen arteko elkarlana ziurtatzea.

Batzorde Sektorialean lantalde teknikoak ezartzen dira esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko edo lankidetzatza-proiektuak egiteko.

¹⁸ [Ebazpena, 2018ko azaroaren 16koa, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena, Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Antolaketa eta Jarduera Erregelamendua onartzen da.](#)



C. EAEn

Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren esparruan, 2017an Administrazio Publikoko Batzorde Sektoriala sortu zen, EAeko administrazio publikoen transformazio digitalarekin lotutako proiektuak koordinatzeko, eta administrazio elektronikoaren arloko administrazioen arteko lankidetzarako antolaketa-tresna bihurtu zen. Hauek dira kideak: Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiak, EUDEL, eta hiru hiriburu-udalen ordezkariak.

Batzordea, esparru eragilean, gaur egun erakunde-arteko lantalde hauen bidez egituratzen da:

- Herritarraren karpeta- eta jakinarazpen elektronikoaren taldea.
- Administrazioen arteko elkarreragingarritasunaren taldea.
- Toki Administrazioen Zerbitzu-katalogoen taldea.

D. EAeko Administrazio Publikoan

Zerbitzu Elektronikoaren Sarea administrazio elektronikoaren esparruko koordinaziorako eta kudeaketarako lankidetzak-gunea da, eta laguntza ematen du sarea erakundearen maila guztietan hedatu ahal izateko, bai eta administrazio elektronikoarekin zuzenean lotutako gardentasunaren arloan eta informazio publikorako sarbidearen eremuan ere.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA



3.1. Egoera eta bilakaera-ikuspegia

Azken hamarkadetan EAEko gizarteak bilakaera nabarmena eta aldaketa sakona izan ditu. **Faktore** asko eta askotarikoek eragin dute **transformazio** hori. Zehatz-mehatz ez zerrendatzearren, hauek aipa litezke: globalizazioa, krisi ekonomikoak, 4.0 iraultza teknologikoa, herritarren politikarekiko hoztasuna, herritarren balioen eta lehentasun eskeman gertatutako mutazio handiak. Pertsonen beharrianak, herritarren nahiak eta gizarte gisa ditugun erronkak ez dira lehengo berak.

Ondorioz, aldaketa handiak egin behar dira gobernatzeko eta ingurunearekin elkarrengaitzeko moduan. Arlo publikoaren kudeaketari ekiteko erabili ditugun ereduak errealitate berrira egokitu behar dira; errealitate horretan, herritarrak gero eta zorrotzagoak dira arlo publikoarekin, informazio gehiago eskatzen dute eta parte-hartze handiagoa izan nahi dute eragiten dieten erabakiak hartzeko orduan.

Komunitate politiko konplexua da EAEkoa (politikoki anitza, sozialki askotarikoa eta erakunde-egitura mailakatukoa –zein bere autonomia-esparruarekin–), beraz, gobernantza publikoak, funtsean, harremanetara bideratua, partaidetzazkoa eta inklusiboa izan behar du. Horrela soilik izango da efikaza, eta herritarren eskaerei era egokian erantzuteko gai. Herritarrak aktiboak, informatuak, parte hartzen dutenak, erantzukizunak eskatzen dituztenak izango dira, eta administrazio publiko irekia, irisgarria, efikaza eta efizientea behar dutenak; eta arduradun publikoak, berriz, adituak, arduratsuak eta estandar etiko altukoak.



COVID-19aren pandemia inflexio-puntu bat izan da herritarren osasun-premietan eta, suspertze ekonomikoan bezala, politika publiko guztien lehentasunetan ere, batik bat, politika sanitarioan, sozialean, ekonomikoan eta enpleguetan. Halaber, mugarria izan da gizartearen sektore guztietako digitalizazio-prozesuetan, telelanean eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aplikazioan.

Administrazio publikoan eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan ere egoera bera jazo da.

ELGAK dioenez, *«COVIDaren pandemiak eta eragin duen krisi multidimentsionalak gobernuak nahasi dituzte; hala ere, tresna eta datu digitalen erabilerari buruzko ikuspegiak berrikusteko aukera ere ematen dute, balio publikoaren sorrera hobetzeko»¹⁹.*

Apika, oraintsuko egoerak are eta ageriago jarri du administrazio efikazagoa eta efizienteagoa eraikitzeke premia, gure gizartearentzat modernitatearen motorra eta lehia-abantaila izan dadin.

Halaber, **faktore kulturelek, sozialek eta politikoek** gobernu irekirantz egitearen premia utzi dute agerian. Horretarako, herritarrekiko interakzio-mekanismoak egokitu behar dira, integritateko, gardentasuneko eta herritarrek parte hartzearen aldeko politikak sendotu, eta elkarlan-sare publiko-pribatuak eratu politika publikoetan esku hartzen duten edo horiek ukitzen dituzten eragileen artean.

2.4.2 atalean zehatzago aztertzen dira *GBPGDPE 2030*ek lotura duen beste plan estrategiko batzuen aurreikuspenak. Horiek dira **suspertze- eta aurrerapen-egoeraren etorkizuneko aurreikuspenak eta proiektzioa**, zeinak EAEko gizarteko eragile guztien xede baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ahalik eta zerbitzu onena eman behar die herritarrei **testuinguru aldakor** honetan; horretarako, zerbitzu-integrazioa sustatu behar du, herritarren premiak eta lehentasunak identifikatu, eta herritarrak zerbitzuen diseinuan parte hartzera bultzatu behar ditu.

¹⁹ [The OECD Digital Government Policy Framework: Six dimensions of a Digital Government.](#)



Nolanahi ere, argi dago administrazio publikoa hobetzeko eta etengabe herritarren premietara egokitzeko erronka **legealdialdietatik haratago doala** eta, beraz, helburu horretara bideratutako politikek ziklo politikoek baino gehiago iraun behar dutela.

«[71. Euskal Soziometroa: Euskal Administrazio Publikoa \(2019\)](#)» txostenak honako hau jasotzen du:

- a . Etorkizunerako erronka nagusiak EA Erentzat.
- b . Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko helburuak.
- c . Zerbitzu publikoen ebaluazioa.
- d . EAEko zerbitzu publikoen bilakaeraz espero dena.
- e . EAEko administrazio publikoen bilakaera eremuka.
- f . Aldaketa premiazkoenak Administrazioan.
- g . Zerbitzu publikoen ebaluazioa egiteko erakunde espezializatu bat behar da.
- h . Funtzionarioek kode etiko bat sinatzearen beharra.
- i . Zailtasunak administrazio publikoekiko izapideetan.
- j . Izapideetarako erabilitako moduak eta asebetetzea.
- k . Administrazio publikoek teknologia berrietan inbertitzearen beharra.
- l . Teknologia berriek zerbitzuetan duten eragina.



3.2. Aurreko planaren ebaluazioa eta abiapuntuko gogoetak

Gobernantza eta berrikuntza publikoa eta gobernu digitala osatzen duten arloetan Eusko Jaurlaritzak gaur egun duen egoera [Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren Azken Ebaluazio Txostenean](#) dago jasota, hein handi batean.

*Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020*ko proiektuen egikaritze-egoeraren eta balorazioaren laburpen orokorra honako taula honetan jasotzen da:

| Izenburua | Amaiera-data | Egoera | Balorazioa |
|--|--------------|-----------|--------------|
| 1. ARDATZA. Gardentasuna eta parte-hartzea | | | |
| 1.1. Gardentasunari buruzko lege-proposamena | 2017/07/31 | Amaituta | Positiboa |
| 1.2. Publizitate aktiboa eta sarbiderako eskubidea | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa |
| 1.3. Gardentasunerako Sailarteko Batzordea | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa |
| 1.4. Gardentasunari buruzko jardunbide egokiak | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa |
| 1.5. Liburu Zuriko konpromisoak | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa |
| 1.6. Datu irekiak | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa |
| 2. ARDATZA. Plangintza estrategiko adimenduna | | | |
| 2.1. 2020-2025eko plangintza estrategikoa | 2020/12/31 | Aribidean | Hala-nolakoa |



| Izenburua | Amaiera-data | Egoera | Balorazioa | |
|---|--------------|-----------|-------------------|--|
| 2.2. Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak. | 2020/12/31 | Aribidean | Hala-nolakoa | |
| 2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeke Sistema ezartzea. | 2020/12/31 | Hasi gabe | Hobetzeko modukoa | |
| 3. ARDATZA. Herritarrekiko harremanak | | | | |
| 3.1. <i>Zuzenean</i> zerbitzua garatzea | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa | |
| 3.2. Interneteko presentzia | 2020/12/31 | Aribidean | Positiboa | |
| 3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza | 2020/12/31 | Aribidean | Hala-nolakoa | |
| 3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea | 2020/12/31 | Aribidean | Positiboa | |
| 3.5. Herritarren karpeta | 2020/12/22 | Aribidean | Positiboa | |
| 4. ARDATZA. Integritatea | | | | |
| 4.1. Etika kodea | 2020/12/31 | Aribidean | Positiboa | |
| 4.2. 1/2014 Legeko betebeharren kontrola | 2020/12/31 | Aribidean | Positiboa | |
| 5. ARDATZA. Berrikuntza | | | | |
| 5.1. Berrikuntza herritar eta profesionalekin | 2020/12/31 | Amaituta | Hala-nolakoa | |
| 5.2. Gizarte berrikuntza EAEn | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa | |
| 5.3. EAEko administrazioaren analisi prospektiboa | 2020/06/30 | Hasi gabe | Hobetzeko modukoa | |
| 6. ARDATZA. Kudeaketa aurreratua | | | | |
| Antolaketaren egokitzapena | | | | |
| 6.1. EAEko sektore publikoari buruzko lege-proposamena | 2018/12/31 | Amaituta | Positiboa | |
| 6.2. Xedapen orokorrak egiteko legea | 2020/01/01 | Amaituta | Positiboa | |
| 6.3. EAEko sektore publikoa berrantolatzea | 2020/12/31 | Hasi gabe | Hobetzeko modukoa | |
| 6.4. Kide anitzeko organoak eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua ebaluatzea eta hobetzea | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa | |
| Transformazio digitala | | | | |
| 7.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia. | 2020/12/31 | Amaituta | Hala-nolakoa | |
| 7.2. Administrazio elektronikoaren plataforma | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa | |
| 7.3. IKTen konbergentzia plana | 2020/12/31 | Aribidean | Positiboa | |
| <i>Aurrerabide</i> | | | | |
| 8.1. Kudeaketa publiko aurreratuko eredia – <i>Aurrerabide</i> | 2019/03/29 | Amaituta | Positiboa | |
| 8.2. <i>Aurrerabide</i> ereduaren ebaluazioak | 2020/12/18 | Amaituta | Hala-nolakoa | |
| 8.3. <i>Aurrerabide</i> ereduko kolaboratzaileen sarea | 2020/12/18 | Amaituta | Positiboa | |



| Izenburua | Amaiera-data | Egoera | Balorazioa |
|--|--------------|-----------|------------|
| Administrazioarteko lankidetzak | | | |
| 9.1. Administrazioarteko lankidetzak | 2020/12/22 | Amaituta | Positiboa |
| 9.2. Elkarrengarritasun-nodoa | 2020/12/31 | Amaituta | Positiboa |
| 9.3. Identifikazioa eta sinadura | 2020/12/22 | Amaituta | Positiboa |
| Pertsonak | | | |
| 10.1. Euskal Enplegu Publikoaren Legea | 2020/01/01 | Amaituta | Positiboa |
| 10.2. EAEko administrazio orokorreko enplegu-plana | 2020/12/31 | Aribidean | Positiboa |
| 10.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana | 2020/01/01 | Aribidean | Positiboa |
| 10.4. LPZren balorazioa | 2019/12/01 | Aribidean | Positiboa |

6. taula. *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020*ko proiektuen egikaritze-egoeraren eta balorazioaren laburpen orokorra

*GBPPE 2020*ren inbertsio ekonomikoen balantzea honako hau izan da:

| Ardatza | Proiektua | € 2017 | € 2018 | € 2019 | € 2020 | € Guztira |
|--------------------------------------|--|------------|------------|--------------|------------|---------------------|
| 1. Gardentasuna eta parte-hartzea | 1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak | - | 23.249,55 | 40.925,23 | 59.931,30 | 124.106,08 |
| | 1.5. Liburu Zuriaren konpromisoak | 39.913,10 | 37.040,40 | 41.215,28 | 57.054,00 | 175.222,78 |
| | 1.6. Open Data | 231.576,07 | 282.580,03 | 301.342,53 € | 274.263,15 | 1.089.761,78 |
| 2. Plangintza Estrategiko Adimenduna | | - | - | - | - | - |
| 3. Herritarrekiko harremanak | 3.1. Zuzenean zerbitzuaren garapena | 50.000 | 73.460,36 | 73.460,36 | 89.135,00 | 286.055,72 |
| | 3.2. Interneteko presentzia | 149.785,76 | - | - | - | 149.785,76 |
| | 3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza | 802.523,86 | 703.570,88 | 700.375,28 | - | 2.912.436,66 |
| | 3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea | 260.013,34 | 493.035,18 | 366.253,43 | 351.822,07 | 1.471.324,02 |
| | 3.5. Herritarren karpeta | 199.851,97 | 404.904,77 | 594.287,10 | 483.111,49 | 1.682.155,33 |
| 4. Integritatea | 4.1. Kode etikoa | - | - | 6.000 | 4.000 | 10.000 |
| | 4.2. 1/2014 Legeko betebeharren kontrola | - | - | 5.000 | 3.000 | 8.000 |



| Ardatza | Proiektua | € 2017 | € 2018 | € 2019 | € 2020 | € Guztira |
|-------------------------|---|--------------|--------------|--------------|--------------|---------------|
| 5. Berrikuntza | 5.1. Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin | - | 40.000 | 40.000 | 26.000 | 106.000 |
| | 5.2. Gizarte-berrikuntza Euskadin | - | 53.502,57 | - | - | 53.502,57 |
| 6. Kudeaketa aurreratua | 7.2. Administrazio elektronikoaren plataforma | 4.512.674,82 | 4.832.695,87 | 5.237.434,65 | 5.373.517,40 | 19.956.322,74 |
| | 7.3. IKTen konbergentzia Plana | 15.529.908 | 8.191.268 | - | - | 23.721.176 |
| | 8.1. Kudeaketa Publiko Aurreratuko <i>Aurrerabide</i> ereduak | 1.350 | 5.000 | 75.027 | 75.035 | 156.412 |
| | 8.2. <i>Aurrerabide</i> ebaluazioak | 18.258 | 20.000 | 5.395 | 16.079 | 59.732 |
| | 8.3. <i>Aurrerabide</i> laguntzaileen sarea | 10.325 | - | 26.798,00 | 16.079 | 53.202 |
| | 9.2. Elkarreragingarritasun-nodoa | - | 215.665,50 | 224.290,50 | 324.290,50 | 764.246,50 |
| | 9.3. Identifikazioa eta sinadura | 762.554,32 | 506.499,35 | 656.564,15 | 682.318,80 | 2.607.936,62 |
| | 10.2 EAEko Administrazio Orokorraren Enplegu Plana | - | - | - | 18.029 | 18.029 |
| | 10.3. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Plana | 43.000 | 19.782,62 | 13.226,30 | 4.840 | 80.848,920 |

7. taula. GBPPE 2020ren inbertsio ekonomikoen balantzea.

3.2.1. GBPPE 2020ren mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren proiektuen mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak honako hauek izan dira, ardatzen arabera:

1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea

- *Gardena* gardentasun-ataria berriz diseinatzea.
- Lidergoa nazioarteko gardentasun-zerrendetan: INCAU, INTRAG eta DYNTRA.



- EAEko Administrazio Orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzko urteko balantze-txostenak.
- Euskadi (Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta hiru hiriburuetako udalak), Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin batera, Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzan sartzea, OGP Euskadi eta OGP Euskadi 2018-2020 Plana.
- Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren hedapenean aurrera egitea.
- Datu publikoen berrerabilpena (Open Data Euskadi) irekitzea eta sustatzea: datuak ustiatzeko ahalmen handia duten sektoreetan (osasuna, hezkuntza, industria, etab.) datuak liberatzea.

2. ardatza. Plangintza Estrategiko Adimenduna

- 2020-2024 XII. Legegintzaldian Gobernuaren plangintza estrategikoa hobetzeko proposamena.
- Politika publikoen eta ekonomia- eta aurrekontu-esparruaren estrategia eta garapena.
- Eusko Jaurlaritzan plangintza estrategiko adimenduna antolatzeko eredia proposatzea.

3. ardatza. Herritarrekiko harremanak

- Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzu-zuzendaritza guztietan erregistroak trukatzeko sistema (SIR).
- Herritarrek *Zuzenean* zerbitzuarekin duten gogobetetzeari buruzko urteroko inkesta.
- Kexak, iradokizunak eta esker onak kudeatzeko sistema informatizatzea.
- Web-irisgarritasuna hobetzea *euskadi.eus* atariaren sarean, eta sare osoa migratzea http (e) tik https (e) ra.
- Zerbitzu elektronikoaren eskaintza: *Zerbitzuak Digitalizatzeko Plana* egitea, zerbitzu elektronikoak gehitzea eta haien erabilgarritasuna hobetzea.



- Hizkuntza argian eta irakurketa errazaren inguruko prestatzeko eta jarduera programa diseinatzea eta abian jartzea.
- Dokumentuak estandarizatzea eta normalizatzea: diziplinarreko lantalde bat eratzea, estandarizazioa planifikatzea eta plantillak gauzatzea.
- Herritarrentzako inprimakiak hobetzea eta haien datuak esportatzea.
- Egoitza elektronikoaren bilakaera: nabigazio-egitura, itxura, hizkuntza argira eta gailu mugikorretara egokitzea.
- *Nire kudeaketak* herritarren karpetara aldatzea, Eusko Jaurlaritzaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa integratzea eta *Nire profila* sortzea. Azken horrek administrazioarekin komunikatzeko eta abisatzeko datuen gaineko kontrola eskaintzen die erabiltzaileei.

4. a r d a t z a . I n t e g r i t a t e a

- Etika eta Jokabide Kodea: Etika Kodeari atxikitako pertsonen zuzendutako jardunaldi zikloak, "Kargu Publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako betebeharren betetze-mailari buruzko txostena".
- 1/2014 Legearen betebeharrak betetzen direla kontrolatzea: langileen Erregistro Zerbitzua sortzea, "Goi-zuzendaritza betearazlea" ataria abian jartzea enplegatuen atariaren barruan; Agindua, 2018ko abuztuaren 2koa, Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuarena, kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua alde aurretik onartzen duena; EAEko kargu publikodunen lanpostuen katalogo eguneratua onartzen duen Dekretua; eta sei hilean behingo txostenak.

5. a r d a t z a . B e r r i k u n t z a

- Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin: 11 lankidetzaren espazio profesional sortzea, ikaskuntza partekaturako, elkarlanerako eta sareko antolamendurako; herritarrek parte hartzeko bi saio, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko programan, hizkuntza argiko eta irakurketa errazeko irizpideak aplikatzearen testuinguruan; eta herritarrek parte hartzeko saioak, Euskadik OGPn duen parte-hartzearen testuinguruan.



- Euskadiko Gizarte Berrikuntza: OGP Euskadi 2018-2020 Plana, herritarrekin batera sortua, eta bi ebaluazio partaidetu egitea.
- Euskal Administrazioaren analisi prospektiboa: "Herritarren eskariaren analisia eta administrazio-ereduari buruzko proiektzioa (administrazio-ereduari buruzko analisi prospektiboa)" proiektua abiaraztea.

6. ardatza. Kudeaketa aurreratua

- Antolamendua egokitzea
 - Euskal sektore publikoaren lege-proiektua eta Gobernu Kontseiluak onartutako xedapen orokorrak egiteko prozeduraren lege-proiektua.
 - Kide anitzeko organoak ebaluatzeko eta hobetzeko proiektua gauzatzea, kide anitzeko organoak kudeatzeko sistema sortzea, eta Gobernu Kontseiluak EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoetarako jarduera-plana onartzea.
- Eraldaketa digitala
 - Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko antolamendu- eta funtzio-ereduak berrikustea eta eguneratzea.
 - Zerbitzu Elektronikoen Sarearen espazioa eraikitzea.
 - Administrazio elektronikoa hedatzea helburu duten aldaketa kudeatzeko ekintzak.
 - Herritarrek zerbitzu elektronikoekin duten gogobetetze-mailari buruzko inkesta.
- Administrazio elektronikoaren plataforma
 - Plataformaren bertsio berriak eta *euskalsarea.eus*-era migratzea.
 - Laguntzen eta diru-laguntzen zeharkako izapideak egiteko oinarriko eredia ezartzea.
 - *Giltza* sartzea identifikazio eta sinadura elektronikorako tresna gisa.



- Eusko Jaurlaritzaren erregistro elektronikoko orokorra Estatuko administrazio publikoen erregistroekin konektatzea.
- Xede orokorreko postontzi elektronikoa abian jartzea.
- IKTen konbergentzia Plana
 - IKTen arloko Konbergentzia Plan Orokorra onestea.
 - 36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duena.
- *Aurrerabide*
 - Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua, *Aurrerabide*: kudeaketa aurreratuaren arloko prestakuntza-ekintza garatzea, *Eginez Gara* memoriak eguneratzea, kudeaketaren arloko dokumentazioaren eta informazioaren laburpena, eta 12 tailer eta modulu, antolaketa-unitateek eskatuta.
 - *Aurrerabide* ebaluazioak: 13 unitate ebaluatzea eta zazpi unitate finkatzeko eta hobetzeko planaren jarraipena egitea, *Eginez Gara* sinplifikatu berri bat egitea web-formatuan eta Lanbideren ebaluazioa egitea.
 - *Aurrerabide Kluba* lankide-sarea ezartzea.
- Administrazioen arteko lankidetzaz
 - Administrazio elektronikoko administrazioen arteko lankidetzarako antolaketa-tresna bat sortzea: Administrazio Publikoaren Batzarde Sektoriala eta erakunde arteko lantalde sektorialak; Estatuko Administrazio Orokorren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmena sinatzea administrazio elektronikoko oinarriko irtenbideak elkarri emateko.
 - Estatuko Administrazio Orokorrekin administrazio elektronikoko oinarriko irtenbideak elkarri emateko lankidetzaz-hitzarmenari atxikitzeko protokoloa sinatzea (toki-erakundeak).



- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru-aldundien arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea, administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko.
 - Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun eta segurtasun nodoa (*NISAE*) garatzea eta abian jartzea.
 - EAEko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak eIDAS Erregelamendura egokitzea.
- **Pertsonak**
- EAEko Administrazio Orokorraren enplegu-plana: Euskal Enplegu Publikoaren lege-proiektua onartzea; Enplegurako 2017-2020 Plan Estrategikoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzen legea aldatzeko lege-proiektua.
 - Langileei harrera egiteko (Harrera Plana) eta agur egiteko (Mentoring Plana) prozedurak diseinatu eta abian jartzea, "Langileen aintzatespena" jarduera-esparruan eta "herritarren eskariaren azterketa eta administrazio-ereduari buruzko proiektzioa" proiektuaren esparruan (administrazio-ereduari buruzko proiektzio-analisia).
 - Administrazio Orokorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana: Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra; Prestakuntza Plana (2018-2019) Berdintasunerako Batzorde Iraunkorreko pertsonentzat; "berdintasunezko kultura" ikastaroa; komunikazio- eta zabalkunde-ekintzak; administrazioari buruzko langileen Berdintasuna postontzia; sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak prebenitzeko eta kasu horietan jarduteko protokoloa egiteko lantaldea; eta sexu-arloko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko erakundeetan jarduteko prozedura arautzen duen Agindua.

3.2.2. Funtsezko elementuak

Azken plan estrategikoen esperientziaren ondorioz (*Berrikuntza Publikoko Plana, 2011-2013; Berrikuntza Publikoko Plana, 2014-2016; eta Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa, 2020*), plan honetarako kontuan hartu beharreko zenbait alderdi identifikatu dira.



Hona **funtsezkotzat** jotzen diren elementu horiek:

- a. **Lidergoa:** bai zuzendarien artean, bai ardatzen eta helburu eragileen ardura duten enplegatu publikoen artean.
- b. **Zeharkako ikuspegia:** helburuen ikuspegi korporatiboa, horizontala eta interrelazionala.
- c. Sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko guztien **konpromisoa**.
- d. **Herritarretara bideratua eta egokitua:** planak herritarrak izan behar ditu ardatz.
- e. **Koherentzia:** aldaketa antolatzeko, egituratzeko eta kudeatzeko erabakiak hartzea, egoera eta testuinguruen bilakaerarekin bat etorriz:
 - **Prestakuntza:** berrikuntzak eta gobernantza publiko onaren funtsezko elementuek aldaketa handia dakarte gauzak egiteko moduan, eta eragina dute erakunde osoan. Ezinbestekoa da enplegatu eta kargu publikodun guztiek bat egitea eta behar diren trebetasun eta gaitasunak izatea.

Ezinbestekoa da prestakuntza orokorreko ekimenak izatea, erakundeko langileei testuinguru berrira egokitzeko tresna egokiak ematea xede izango duena. Besteak beste, ezaugarri hauek beharrezkoak dira erakunde guztirako: hainbat balio edukitzea —adibidez, berrikuntza eta zerbitzua emateko jarrera— eta trebetasun teknologikoak izatea, teknologia berrietan, webguneetan, komunikazio-kanal berrietan eta sare sozialetan.
 - **Antolamendu-profilak eta -egiturak egokitzea:** lanpostuen profilak eta antolamendu-egiturak egokitu egin behar dira gobernantzaren, berrikuntzaren eta gobernu digitalaren erronketara.
- f. **Kontrola eta jarraipena:** kudeaketa-egitura konplexuak ezarri beharrik izan gabe, beharrezkoa da planaren inguruan jarraipen- eta ebaluazio-diziplina bat izatea.



3.3. Gobernantzaren eta berrikuntza publikoaren eta gobernu digitalaren arloko erronkak

Gobernu Programaren printzipioak gauatzeko eta helburuak lortzeko (2.4.1. atala), ezinbestekoa da gobernantza publikoko politikak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren berrikuntza sustatzea, eta inor atzean utziko ez duen gobernu digital bat sortzea, arrakala digitalak gutxituz (genero, adin edo lurraldearen araberakoak, esaterako).

Gobernantza publikoaren barneko eta kanpoko dimentsioen arteko loturarekin bat etorriz, gobernantza hori honako ideia honetan oinarritu behar da: herritarrak harreman- eta zerbitzu-ereduen erdigunean jarri behar dira, politika eta zerbitzu publikoen azken hartzaileak izango baitira; horrek esan nahi du gobernantzaren barne-dimentsioan azken xede hori hartu behar dela kontuan. Gauzak modu jakin batean egin behar dira, beharrezkoa baita kanporantz efikaziaren, efizientziaren eta gardentasunaren irudia ematea.

Gobernu onak balio publikoa sortzen du, herritarren beharrei eta eskaerei modu eraginkorrean erantzunez eta gizarte osoan edo gizarte-kolektiboren batean aldaketak sustatuz. Horretarako, *administrazio ona* behar du, eta, besteak beste, **herritarrei arreta emateko kalitatezko zerbitzuak**.

Baina, gainera, *administrazio on* baten printzipio eta funtsezko oinarrietako bat kudeaketaren **efikazia eta efizientzia** dira, eta horrek esan nahi du erabilitako



prozesuek eta prozedurek behar diren emaitzak eta inpaktuak lortzen dituztela, eskura dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz.

Administrazio publikoak sustatzen dituen politiken eta haren zerbitzu publikoen kalitate, efikazia eta efizientziarako ezinbestekoa da herritarrentzako arreta eta prozeduren tramitazioa une bakoitzeko gizarte-premiei erantzungo dieten **antolamendu, prozesu eta teknologietan** oinarritzea, gaur egungoa inguruabar aldakor eta ziurgabetasun gero eta handiagokoa izaki.

Gauzak hobeto egiteko, hau da, gauzak efikazia eta efizientzia handiagoarekin egiteko aukera ematen duten tresnen artean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak daude. **Transformazio digitala** erronka eta aukera bat da herritarrekin harreman handiagoa eta hobe izateko.

Funtsezkoa da transformazio digitala herritarrentzako arretarekin lotzea eta koordinatzea; izan ere, kanal elektronikoa herritarrei zerbitzuak emateko beste kanal bat baino ez da.

Baina, nahiz eta zerbitzu elektronikoak izate hutsak administrazio-kargak murriztea eta efikazia handiagoa eragiten duen, beharrezkoa da, gainera, **prozesuak modernizatzea** eta kanal guztietara egokitzea, herritarrek modu efiziente eta seguruan erabil ditzaten.

Transformazio digitala ez da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltze hutsa; aitzitik, ezinbestekoa da ziurtatzea prozedura eta zerbitzu publikoen digitalizazioak berekin dakarrela **prozesuen berringeniaritza, administrazio-simplifikazioa, herritarrentzako kargak murriztea eta hizkera argiko eta irakurterrazeko dokumentuak normalizatzea**. Oro har, zerbitzu pertsonalizatuagoak, erabilerrazagoak eta beharrezko partikularretara egokituagoak eskatzen dira.

Herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzea eta hainbat kanaletatik irisgarriak izatea ez da efikazia-kontu hutsa, eta ezin da transformazio digitalaren alderdi jakin batzuetatik bereizita kudeatu. Administrazio publiko onaren azken helburua herritarrentzako zerbitzua denez, administrazio digitalaren eremuan herritarrak izan behar dira ipar eta ardatz. Hori dela eta, **administrazio elektronikoaren antolaketa-alderdiak, baita zenbait alderdi eta osagai teknologiko ere, herritarren arretarako zerbitzuaren berezko alderdiak izango dira, eta ezingo dira herritarren arretarako zerbitzutik banandu.**



Bestalde, herritarrei kanal elektronikoan eman beharreko arreta nahitaez sustatzeak ezin du desagerrarazi beste kanal batzuetatik eskaintzen zaien arreta (aurrez aurreko edo telefono bidezkoa). Sarbide elektronikoa herritarren eskubidea da, baina, era berean, pertsona fisikoek administrazio publikoarekiko harremanetarako kanala aukeratzeko duten eskubidea une oro bermatu behar da.

Jatorrian, herritarrei arreta emateko prozesuak administrazio-prozedurak betearaztearen ondorioz sortu ziren. Hala ere, gizarteak aurrera egiten du harreman-formula berrietarantz, eta formula horietan, arretak berezko zentzua hartzen du, bereziki **informazio publikoa zabaltzearen eta eskuratzearen** esparruan.

Azkenik, *gobernu irekia* oinarri sendo baten gainean eraiki ahal izateko, beharrezkoa da **interakzio-kanalak herritarrekin konektatzea**, sare sozialak barne.

Gainera, **datuetan oinarritutako kudeaketa** beharrezkoa da, oinarrizko baldintza baita kudeaketa eta politika publikoak **planifikatzeko eta ebaluatzeko**, eta, aldi berean, beharrezkoa herritarren **gardentasuna eta parte-hartzea** sustatzeko. Transformazio digitala ezinbesteko baldintza da horretarako.

Duela hamarkada bat baino gehiago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak *Zuzenean*, herritarrei arreta emateko eredu bateratu, zeharkako eta kanal anitzekoaren aldeko apustua egin zuen. Zerbitzuaren urteko gogobetetze-inkesten emaitzak oso positiboak dira.

Azken legegintzaldietan, halaber, Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egin du administrazio-prozeduren izapidetze elektronikoa garatzeko eta abian jartzeko, eta administrazio elektronikoaren plataforma teknologiko erkidea erabat finkatuta eta eskuragarri dago sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko guztientzat.

Herritarrak Zerbitzu publiko digitalen erabileran, funtsezkoa da herritarrak gogobetetzea, beren eskubideak eta administrazio publikoekiko harremanetan dituzten betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Horregatik, lehentasunezkoa da erraz erabiltzeko eta eskuratzeko moduko zerbitzu digitalak izatea, interesdunak kanal elektronikoaren bidez administrazioarekin duen harremana erraza, intuitiboa, eraginkorra, efizientea eta ez-diskriminatzailea izan dadin.

Herritarrei informazioa eta arreta orokorra emateko mekanismoak, tresnak eta zerbitzuak sustatzen eta garatzen jarraitu behar da, **testuinguru gero eta aldakor eta ziurgabe honetan**.

COVID-19aren pandemiak inoiz ez bezalako testuingurua izan da zerbitzu publikoak emateko eta, bereziki, herritarrei arreta emateko.

Hala ere, bat-batean sortutako egoera horrek aukera eman du **ikasgai berriak ikasteko eta erronka berriak hautemateko**: herritarrei zerbitzu publikoetarako eta informaziorako sarbidea erraztuko dieten prozesuak ezartzea eta kudeatzea; herritarrei orientazioa ematea zerbitzu publikoak sortzeko eta diseinatzeko orduan; zerbitzu pertsonalizatuaren eskaintza proaktiboa; herritarrei ematen zaien arretaren kalitatearen jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egiteko tresnak; egiturak eta kanalak koordinatzeko elementuak sortzea, etab.

Jarraian, alderdi bakoitzaren erronkak zehazten dira, labur-labur:

3.3.1. Kudeaketaren eta antolaketaren kulturaren arloko erronkak

Gizarte berri baten aurrean, beste eskakizun-maila batzuei aurre egin behar diegu, administrazioa eta bertako pertsonak antolaketa-kultura berri batera egokitu behar ditugu, eta, horretarako, zerbitzu publikoaren eta zerbitzari publikoen inguruko printzipio, balio, jarrera eta portaera berriak sortu behar ditugu elkarlanean eta parte-hartzean oinarrituta.

A. Erakundeen integritatea

Erakundeen integritate-politikan sakontzeak gobernantza publikoa eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren seriotasunaren irudia indartzen ditu. Lehia-balioa eranstean dio horrek gainerako erakunde publikoen aurrean eta enpresen sarean, baita inbertsiogileen aurrean eta finantzen eremuan ere. Bestalde, Euskadi marka indartzen du, kalitate eta konfiantza publikoaren zigilu gisa. Herritarrei arreta ematen diegunean profesionaltasunaren, ondo egindako lanaren, kudeaketa emozionalaren eta irisgarritasunaren bidez, etorkizuneko inbertsio bat egingo dugu, sinesgarritasuna eta konfiantza transmititzen dituen EAEko administrazio publiko zintzoa bihurtzeko.

Horregatik guztiagatik, Plan honen ezinbesteko erronketako bat izan behar da Integritatearen Euskal Sistema osatzea, langileek eta goi-kargudunek jarraitu behar dituzten etika eta jokabide egokiak jasoko dituen. Horretarako, alde batetik, enplegatu publikoen etikaren eta jokabide egokien kodea onetsiko da (printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak deskribatzen dituen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua gaindituta), bai eta kode hori hedatzeko, ebaluatzeko eta



berrikusteko behar diren prozesuak eta tresnak ere. Eta, bestetik, [Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen \(Kargu Publikodunen Betebeharrei eta Eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuak garatua\)](#) kode etikoaren hedapenari eta aplikazioari eta betebeharren kontrolari buruz kontuak emateko beharrezkoak diren prozesuak eta tresnak abian jarriko dira.

B. Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua

Gobernu Kontseiluak Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua onartu zuen 2014. urtean, eta, hala, Eusko Jaurlaritza erreferentzia-esparru batez hornitu zen. Bertan, Eusko Jaurlaritzako sailetakoko edo erakunde autonomoetako antolamendu-unitate bakoitzak bere burua aztertu dezake, indartu behar diren eremuak identifikatzeko eta, horrela, egokiago erantzuteko gizarreak eskatzen dionari. Unitate guztiak kudeatzeko oinarriak jarri zituen, alderdi oinarritzkoenak identifikatuta, hots, edozein unitate kudeatzeko moduaren osagai direnak. Horrekin batera, kudeaketako beste jardunbide egoki batzuk ere erakusten ditu, gutxika-gutxika abiarazteko modukoak izan daitezkeenak, unitateen ezaugarrien eta egoeraren arabera.

Harrezkero, eta *Aurrerabide programaren* bidez, hainbat ekimen sustatu dira, hala nola *Egiten Ikasi*. Administrazio Orokorreko zuzendaritza guztiei eskaini zitzaizen prestakuntza-/ekintza-programa hori, eta hortik abiatuta sortu zen *Aurrerabide Kluba*, kudeaketa aurreratuarekin bereziki sentsibilizatuta dauden profesionalen topagunea. Gainera, ereduetan oinarritutako ebaluazioetatik ondorioztatutako kudeaketa-alderdi zehatzei (estrategia, prozesuak, komunikazioa, bezeroa...) buruzko proiektuak landu dira unean-unean.

Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua ezarriz, emaitza hobekak lortu nahi dira administrazio publikoko unitate guztietan, modu jarraituan eta orekatuan, unitatea osatzen duten pertsonen parte-hartzea eta konpromisoa oinarritzat hartuta, erabiltzaileekin eta beste interes-talde batzuekin harreman sendoagoak sortzeko.

Horretarako, aurrera egin behar da Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua EAEko Administrazio Orokorrean eta haren administrazio instituzionalean ezartzeko, *Aurrerabide programa* eta haren tresnen bidez: diagnostikoak, ezarpen-proiektuak, kontraste bidezko autoebaluazioak eta *Aurrerabide Kluba*.



3.3.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko erronkak

EAEko Administrazio Orokorreko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoaren ondorio batzuen arabera:

- EAEko administrazio publikoa feminizatuta dago.

Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2014) egiteko EAEko Administrazio Orokorrean emakumeen eta gizonen berdintasunaren errealitateari buruz egindako diagnostikoaren arabera, administrazio publikoan gero eta emakume gehiago daude, neurri batean, lan-merkatuan emakume gehiago daudelako. Gehienak emakumeak diren arren, okupazio-segregazio bertikala dago; izan ere, lanpostu altuenetara igo ahala, emakumeen ehunekoak behera egiten du. Zehazki, karrerako funtzionarioek ordezkari txikia dute buruzagitzan lanpostuetan, eta sailetan nahiz erakunde autonomoetan errepikatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako langileei buruzko estatistika-datuaren arabera, Ertzaintzan daude emakume gutxien, % 13,2²⁰.

- Emakumeek lan-ezegonkortasun handiagoa daukate.

Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egiteko diagnostikotik ateratako datuen arabera, ezegonkortasun horrek lotura zuzena du behin-behinekotasun handiagoarekin. - *Emakumeek gehiegizko ordezkari txikia dute administrazio publikoetako eta haien erakunde autonomoetako aldi baterako langileen artean, bai funtzionarioen artean (% 66 eta % 34, hurrenez hurren), bai aldi baterako langileen artean (% 64,8 eta % 35,2, hurrenez hurren).*

- Komenigarria litzateke EAEko Administrazio Publikoan emakumeen eta gizonen arteko soldata-diskriminazioari buruzko diagnostiko bat egitea, inplikaturako faktoreak aztertzeko, ez soilik soldata. Emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen dute. Berez soldata-diskriminaziorik ez badago ere, askotan emakumeek kategoria eta soldata txikiagoko lanpostuak aukeratzen dituzte,

²⁰ [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako langileen estatistika, eremuaren eta sexuaren arabera.](#)



baita hauta ditzaketenean ere. Kausak askotarikoak izan daitezke: familia bateragarri egiteko zailtasunak, erreferenterik eza, autoestimua, etab.

Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Planaren diagnostikotik ateratako datuen arabera, generoko soldata-arraila dago. Balio bereko lanen ordainsari berdina izateagatik ez dugu esan nahi emakume batek lanpostu berean gizon batek baino soldata txikiagoa kobratzen duenik, kasu hori zuzeneko diskriminazioa izango litzatekeelako, eta, jakina, administrazio honetan ez dago halakorik; aitzitik, lanpostuen balorazioan zeharkako diskriminazioa eragiten duten genero-joerak egon daitezkeela esan nahi dugu, hainbat faktoreren ondorioz, hala nola okupazio-segregazioa, bateratze-neurri feminizatuak eta beste kausa batzuk.

- EAEko Administrazio Orokorrek eskaintzen dituen kontziliazio-neurri gehienak emakumeek eskatzen dituzte senideak zaintzeko.

Egoera hori ikusita, guztiz beharrezkoa da Euskal Administrazio Publikoko langileen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egitea; horretarako, arreta berezia jarri behar da pertsonen antolaketan eta kudeaketan, eta erakundearen berezko jardueretan sexuaren arabera berdinzaleak ez diren jardunbideak identifikatu, eta prebentziorako eta zuzenketarako jarduerak diseinatu. Gainera, ekimen horien guztien baliozkotasuna agerian uzteko gai izan beharko genuke, estrategiak zuzentzeko edo desberdintasunak birbideratzeko beharrezkoak diren tresnak erabiliz.

Erronka oraindik ere berdintasun-planen bidez beharrezkoak diren plangintza- eta kudeaketa-tresnak zehaztea eta ezartzea da, EAEko Administrazio Publikoan emakumeen eta gizonen erabateko berdintasunaren azken helburuan aurrera egin ahal izateko. Gainera, sareko aplikazio batean oinarritutako Berdintasun-Laborategia sortu eta abian jarri nahi da, aplikazio adimendun horrek berdintasunaren arloko jarduketan jokabidearen ebidentziak eman ditzan, ofizioz.

3.3.3. Euskara, lan- eta zerbitzu-hizkuntzaren arloko erronkak

2021eko apirilaren 13an, Gobernu Kontseiluak [EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak](#) onartu zituen, EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide orokorrak jasotzeko.

Hiru helburu nagusi lortu nahi dira hizkuntza-irizpide horiek ezartzeko:



- a. **Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea** eta berdintasuna lortzea herritar horiek sektore publikoarekin harremanetan jartzen direnean, horretarako behar diren ekintzak sustatuz eta xede hori eragozten duten oztopoak gaindituz.
- b. Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea EAEko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako erakunde guztietan, euskara ere **zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin**.
- c. Sektore publikoaren jarduna euskararen normalizazioan **eredu** bihurtzea.

«[Euskararen ingurune digitala. Gomendioak 2021-2024](#)» lau lan-ildo estrategiko biltzen ditu, eta datozen lau urteetarako (2021-2024) ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzeko ibilbide-orria izango da:

- Euskarazko eduki digitalak sustatzea.
- Euskarazko tresna, aplikazio eta baliabide digitalak sustatzea.
- Euskarari eta euskarazko baliabide digitalei ikusgarritasuna ematea, erabilera handitzeko.
- Zaintza teknologikoa bermatzea.

3.3.4. Araudiaren arloko erronkak

A. Estatuko Administrazio Orokorra

[Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak](#) eta [Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak](#) administrazio publikoen administrazio digitalerako egoera arautzailea aldatzen zuten, zeharka sendotzen zuten bitarteko elektronikoen erabilera administrazio publikoen arteko eta administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanetan, eta, beraz, beharrezkoa da betebeharrak jakin batzuk betetzea eta beharrezkoak diren arau-garapenak egitea, arlo horietako administrazio-jardunari segurtasun juridikoa emateko. Gainera, argitaratu da [Sektore publikoak baliabide elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak](#).

Araudi horiek, [Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalarekin \(ENI\)](#) eta [Segurtasun Eskema Nazionalarekin \(ENS\)](#) eta horiek garatzen dituzten arau teknikoekin batera, **administrazio publiko digitalaren** erregulazio osoa osatzen dute.



Halaber, [irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuak, sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/2102 \(EB\) Zuzentarauaren, 2016ko urriaren 26koaren, sektore publikoko organismoen gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoaren](#) transposizioa egiten du, eta **webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak** diseinatu, eraiki, mantendu eta eguneratzeko errespetatu beharreko printzipio eta teknika batzuk ezartzen ditu, erabiltzaileen sarbidean berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko, bereziki desgaitasuna duten pertsonen eta adineko pertsonen sarbidean.

Bestalde, bilakaera teknologiko azkarrari esker, **datu pertsonalak** orain arte ez bezalako eskala batean erabil ditzakete enpresa pribatuek zein agintari publikoek. Egoera horretan, pertsona fisikoen babeserako funtsezko eskubide bat arautu da, datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa, [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren bidez \(datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa\), eta indargabetu egin ditu 95/46/EE Zuzentaraua \(Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra\) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.](#)

B. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan, aipatutako legeak baino lehenagokoa den [Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren](#) alderdi zehatz batzuk aldatu egin ziren [Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua bigarrenaz aldatzen duen apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren](#) bidez.

[Apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak](#), erregistroak arautzen ditu, aurrez aurreko arreta eskaintzen duten bulegoen erabileraren ikuspegitik, baina, era berean, aldatu egin zuen apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua bigarrenaz aldatzen duenak.

[Ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Interneteko presentzia-ereduak](#), Internet bidezko arreta-kanala kudeatzeko tresnak arautzen ditu, eta [Interneteko goi-mailako «euskadi.eus» domeinu](#)



[berria ezartzen duen ekainaren 9ko 84/2015 Dekretuak](#) aldatu zuen. Gainerako xedapenak eguneratu egin behar dira.

Gainera, egungo arau-esparruaren espezializazio horrek ez du herritarrei arreta ikuspegi integral eta kanal anitzekotik ematearen alde egiten; beraz, hobe da herritarrei arreta egokia emateko beharrezkoak diren tresna guztiak bilduko dituen araudi bat egitea.

Bestalde, prozedurak gobernantza onaren eskakizunetara egokitzeko, [abenduaren 22ko 8/2003 Legea, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa](#) ere berrikusi behar da.

Gobernu onak lege-esparru bat behar du, boterea erabiltzeko moduan ordena berri bat ezartzen lagunduko duena eta administrazio-kultura berri baten oinarriak garatuko dituen; beraz, oraindik ere erronka bat da gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko legea onartzea. [19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa](#), autonomia-erkidegoei aplikatzen zaie, baina ematen duen esparrua ez da nahikoa gardentasunaren arloan eta ez ditu arautzen ez herritarren parte-hartzea ez politika eta zerbitzu publikoen efizientzia.

Azkenik, paradigma aldaketa benetan gertatzeko, alegia, gobernantzaren postulatuak administrazioaren funtzionamenduan erabat ezartzeko, ezinbestekoa da pertsonak kudeatzeko sistema postulatu horiekin bat etortzea. Horretarako, enplegu publikoaren arau-esparrua erronkaren eskakizunetara egokitzen jarraitu behar da. Hauek bete behar ditu esparru horrek:

- Urrats erabakigarria eman dezala Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa birdimentsionatzeko eta arrazionalizatzeko estrategian, administrazio-kultura berri bat sortzen laguntzeko, gaur egun behar diren paradigma berrietan oinarrituta, eta, besteak beste, honako hauekin lotuta: efikaziarekin eta efizientziarekin, antolaketarekin eta gobernantzarekin, gardentasunarekin eta herritarrek gai publikoetan parte hartzearekin.
- Langileria publikoa motibatu eta gaitzea, kudeaketa kualifikatu, efiziente eta arduratsua egin ahal izateko, EAEko herritarren eskakizunak gero eta zorrotzagoak direnez.



- Behar diren berrikuntza elementuak sartzea, enplegu publikoa erakunde objektibo eta inpartziala izateko, profesionalizazio handikoa eta bere emaitzen kudeaketak dakartzan erantzukizunak bere gain hartzeko gai dena.
- Zerbitzu publiko gehiago eta hobeagoak eskatzen dituen gizarte baten eskaerak eta langileria publikoaren eskaerak bateratzeko aukera ematea.
- Enplegu publikoari kode etiko bat ematea, bereziki azpimarratuz herritarrei zerbitzu emateko bokazioa eta haren eginkizunak gidatu behar duen eredugarritasuna.

3.3.5. Pertsonak kudeatzearen arloko erronkak

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erronkez gain (3.4.2 atala), aurreko legealdian [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Enplegu Planaren](#) esparruan egin zen diagnostikoak honako ondorio garrantzitsu hauek nabarmendu zituen pertsonen kudeaketaren arloan:

- Kontuan hartuta **lanpostu hutsak, bitarteko langileez betetako lanpostuen ehunekoa eta enplegatu publikoen batez besteko adina**, lehentasun nagusia da finkatzeko lekualdatze-lehiaketak eta lan-eskaintza publikoak antolatzea. Zentzuzkoa da galdetzea Enplegu Publikoaren Eskaintzetan bete behar diren plazak egungo Lanpostuen Zerrenda (LPZ) osatzen dutenak diren, edo horietako batzuk berriz diseinatu behar diren edo daitezkeen, edo, bestela, amortizatu, gure administrazioak herritarren egungo eskaeretara egokitutako zerbitzuaren arabera.
- Lanpostuen zereginak sakonki eraldatzen ari dira, eta gero eta beharrezkoagoak dira politikak eta zerbitzuak ebaluatzeko gaitasun berriak, zeregin automatizatuak alde batera utzita. Hori dela eta, **lanpostuen azterketa eskakizun berrien arabera egitea**, eta **antolaketa-egitura** administrazio elektronikoa eta, oro har, IKTak ezartzetik eratorritako lan egiteko modu berrietara **egokitzea** da erronka, inplikaturako enplegua berriz diseinatu eta lanpostuak betetzeko eta egokitzeko hautaketa- eta prestakuntza-baldintzatzaileak identifikatuz.
- **Prestakuntza**, planifikaturako aldaketa gisa ulertuta, funtsezkoa da karreraren modalitate guztietan, eta enplegatu publikoen aurreikuspen profesionalak



betetzeko; beraz, lan-trebetasun eta -portaera berriak eskuratzea diseinu eta kudeaketaren arloko lehentasunezko beste jarduera bat da.

- Beharrezkoa da **zuzendaritza-postuetan berriazko rol bat ezartzea**, egungo «eginkizun» eta «diseinua» zalantzan jarriz, profesionalizazio nabariagoaren eta eraginkorragoaren mesedetan.

Horregatik guztiagatik, **pertsonak antolatzeko eta kudeatzeko sistema** berri bat ezarri behar da, hiru oinarritan antolatuta:

- **Berrantolaketa eta gaztetzea**, erretiro masiboen erronkari helduz, lanpostu hutsak kudeatzeko antolaketa eta hautaketa berriz diseinatuta, eta enplegu publikoaren eskaintzen eredu berri baten bidez.
- **Talentua erabat kudeatzea**, behar diren prestakuntza- eta teknologia-baliabideak eta lan-modalitate malguak eskainiz.
- Eragindako alderdien arteko akordio errealistei eta prospektiboei buruzko **elkarrizketa soziala**.

3.3.6. Antolaketaren arloko erronkak

A. Kide anitzeko organoak

Duela urte batzuetatik hona, kide anitzeko organoak sortu dira herritarrek, norbanakoek eta/edo elkarteek politika publikoetako erabaki-prozesuetan modu egonkorrean parte hartzeko. Orain arte, kasu askotan, parte hartzeko eredu oso formalizatu eta burokratizatu izan da.

2020ko uztailan, Eusko Jaurlaritzak [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoentzako Jarduera Plana](#) onartu zuen, eta oraindik erabat hedatu gabe dago.

Erronka da EAEko Administrazio Orokorren mendeko kide anitzeko organoak arrazionalizatzea eta hobetzea, tresna efikazak izan daitezen bai sailen arteko koordinaziorako, bai herritarrek, banakakoek zein elkarteek, politika publikoetan erabakiak hartzeko prozesuetan modu egonkorrean parte hartzeko.

Bestalde, [Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua](#) sortzea aukera ona da gainerako maila anitzeko egitura duten eta izaeraz desberdinak diren topagune, lankidetzak-gune, kontseilu eta batzordeak arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko.



Horrenbestez, helburua da, halaber, kide anitzeko organoen partaidetza-, kontsulta- eta koordinazio-funtzioak hobetzea politika publikoetan, EAEko administrazio publikoetako maila batek baino gehiagok parte hartzen dutenean, eta organo horiek politika publiko sektorialen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan duten eragina ebaluatzea.

B. Gobernantza publikoaren zeharkakotasuna

EAEko Administrazio Orokorraren eta haren administrazio instituzionalaren antolaketa-erronketako bat da gobernantza publikoaren, berrikuntzaren eta e-gobernuaren arloko helburuen zeharkakotasuna gauzatzea. Horretarako, ezinbestekoa da erreferentziako administrazio-organotako eta -unitateek zehazten dituzten **antolamendu-neurriak ezartzea**, gobernantza publikoa oro har sustatzeko eta koordinatzeko, eta, bereziki, herritarren arreta, informazio publikoa eta administrazio elektronikoa sustatzeko eta koordinatzeko. Neurri horiek honako hauek ahalbidetu behar dituzte:

- Sailen, erakunde autonomoen eta erakundeen arteko **aliantzak sortzea**, ezarritako helburuak lortzeko, administrazio elektronikoa ezartzeko, webguneak berritzeko, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa eskaintzeko, etab.
- **Administrazio barruko koordinazioa sustatzea** alderdi estrategikoetan, hala nola:
 - a. Sail, organismo eta erakundeetako zerbitzu eta prozeduren katalogo korporatiboa.
 - b. Gobernantza publikoaren osagaien ikuspegi osoa eta integrala sail, organismo eta erakunde bakoitzean: pertsonak, egitura eta antolaketa, prozesuak, prozedurak, araudia, dokumentuak, informazio-sistemak eta baliabide teknologikoak.
 - c. Saileko zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzea, berringeniaritza, erregulazioa hobetzea, arrazionalizatzea, sinplifikatzea eta administrazio-kargak murriztea.
 - d. Sailean, organismoan edo erakundeetan sortutako informazioaren jarraipena eta ikuskapena egitea, egiaztatzea eta behar bezala txertatzea, eguneratzea eta homogeneizatzea.



- e. Dokumentu normalizatuen ereduak eta hizkera argia erabiltzea edukietan, informazioan eta dokumentuetan.
- f. Saitetako funtzionarioak Gaitutako Funtzionarioen Erregistroan gaitzeko eskaerak.
- g. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ereduak eta metodologiak, estandarrak eta plataforma erkideak, eta, bereziki, sail, organismo edo erakundearen Administrazio Elektronikorako Plataforma Erkideak.
- h. Sail, organismo edo erakundearen herritarrei ematen zaien arreta espezializatuaren jarraipena egitea, eta *Zuzenean*, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuarekin hitz egitea eta koordinatzea.
- i. Kexen eta iradokizunen sistema korporatiboa sailaren, organismoaren edo erakundearen eremuan, eta jasotako kexa eta iradokizunetatik ondorioztatzen diren hobekuntza-ekintzak proposatzea eta sustatzea.
- j. Webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabilerraztasunerako ordezkariak.

3.3.7. Azpiegituren arloko erronkak

2016an, Eusko Jaurlaritzak **bateratze**-prozesu orokor bati ekin zion IKTen arloan, EAEko sektore publikoan IKTen kudeaketan eragiketa-efizientzia handiagoa lortzeko eta horien kudeaketa eta ustiapena arrazionalizatzeko.

Horretarako, **IKTak Bateratzeko Eredu Orokorra** definitu zen ([36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Kudeatzeko Eredua arautzen duena](#)). Eredu horren helburua da IKTen arloko politika erkide eta bateratua sustatzea, Eusko Jaurlaritzaren beraren estrategia eta helburu orokorrekin koherentea eta bat datorrena. Horretarako, antolaketa-mekanismo koordinatuak, efikazak eta jasangarriak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek erabil ditzaten.

EAEko sektore publikoan transformazio digitala eta IKTen kudeaketa sustatzeko funtsezko elementu teknologikoak honako hauek dira:



- **Teknologia eta soluzio adimendunak.** Eredua teknologia eta soluzio adimendunetan oinarritu behar da, EAEko sektore publikoa EAEko IKT ekosistemaren erdigunean kokatzeko.
- **Batera Zerbitzuen Katalogoa.** Bertan, IKT zerbitzuen betekizunak ezartzen dira, eta lau eremuk osatzen dute: azpiegiturak, komunikazioak, lanpostua eta zerbitzu korporatiboak.
- **Teknologiako estandarrak:** Zabaldutako zerbitzuei euskarria ematen dieten zehaztapenak eta baldintzak ezartzen dituzte. Hauek dira zerbitzu horien helburu nagusiak:
 - Eusko Jaurlaritzari lotutako erakunde eta organismo publikoen arteko lankidetzaren sarearen hedapenean eta inguruneetan laguntzea.
 - Administrazioaren barne-prozesuen efizientzia handitzea.
 - Herritarrei eta enpresei ematen zaizkien zerbitzuetan kalitatea bermatzea.

Testuinguru horretan, **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoa (IKTPE 2021-2024)** beharrezkoa den tresna da 36/2020 Dekretuan zehaztutako printzipioak hedatu, eta, beraz, azpiegiturak hobetzeko, arkitektura-estrategia egokia garatuz eta teknologia berriak ezartzen lagunduz.

Azken batean, *IKTPE 2021-2024* planak EAEko sektore publikoko sailak eta erakundeak modu kohesionatuan modernizatzeko oinarriak ezartzen ditu, eta eragina du teknologia aurreratuak eta berrikuntza haien jardueran txertatzeko mekanismo erkideen horniduran.

IKTPE 2021-2024 egituratzen duten 5 ardatz estrategikoen artean, hauek dira alderdi teknologikoarekin zuzenean lotutakoak:

- **2. ardatza. IKT soluzioak eta zerbitzuak,** AKLZ lau bateratze-eremuetan (azpiegitura, komunikazioak, lanpostua eta zerbitzu korporatiboak).
- **3. ardatza. Teknologia aurreratuak eta berrikuntza.** (*big data*, adimen artifiziala, *cloud* teknologia, zibersegurtasuna, *blockchain*, etab.).

Ardatz horiek, era berean, jarduera-ildo eta proiektu batzuetan hedatzen dira, hala nola **transformazio digitala sustatzeko, generoko arrakala digitala murrizteko eta IKTen bidez gizarteari balioa emateko.**




3.3.8. Herritarrei arreta ematearen arloko erronkak

Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak 764.270 kontsulta eta eskaerari erantzun zien 2020an. Eta telefonozko harremana eta *webgunearen* nahiz *Telegram* zerbitzu mugikorraren bidez bideratutakoa nabarmen hazten ari dela egia bada ere, herritarrek Eusko Jaurlaritzarekin dauzkaten harremanen % 38 ia bulegoetan aurrez aurre gertatzen dira oraindik. Haietan 291.967 bisita baino gehiago zenbatu ditugu 2020an.

| Hilabetea/urtea | Arreta guztira | Arreta-kanala | | | | REG | SIR |
|-----------------|----------------|---------------|-------------|------------|----------|-------|-------|
| | | Aurrez aurre | Telefonikoa | Postontzia | Telegram | | |
| urria-21 | 60.523 | 26.953 | 28.963 | 3.791 | 816 | 1.465 | 8.498 |
| iraila-21 | 62.007 | 28.426 | 28.116 | 4.323 | 1.142 | 1.399 | 6.529 |
| abuztua-21 | 41.072 | 17.777 | 19.924 | 2.585 | 786 | 884 | 4.573 |
| uztaila-21 | 59.634 | 24.161 | 30.090 | 4.061 | 1.322 | 1.728 | 6.022 |
| ekaina-21 | 65.136 | 25.576 | 34.398 | 4.183 | 979 | 1.930 | 6.482 |
| maiatza-21 | 66.942 | 26.296 | 34.827 | 4.683 | 1.136 | 1.579 | 4.903 |
| apirila-21 | 64.933 | 26.051 | 32.104 | 5.291 | 1.487 | 1.264 | 3.637 |
| martxo-21 | 81.834 | 32.186 | 42.498 | 5.627 | 1.523 | 1.782 | 4.053 |
| otsaila-21 | 75.473 | 30.845 | 35.996 | 6.328 | 2.304 | 1.732 | 3.359 |
| urtarrila-21 | 72.831 | 30.350 | 35.266 | 5.571 | 1.644 | 1.669 | 2.598 |
| abendua-20 | 50.169 | 20.204 | 23.658 | 5.169 | 1.138 | 1.582 | 2.621 |
| azaroa-20 | 65.843 | 27.700 | 29.924 | 6.697 | 1.522 | 1.973 | 2.805 |
| urria-20 | 71.611 | 31.065 | 32.584 | 6.402 | 1.560 | 2.288 | 2.778 |

8. taula. Arreta *Zuzenean*-en, kanal bakoitzean eta erregistro elektronikoro korrraren eta Erregistroen interkonexio Sistemaren hileko datuetan. Azken 12 hilabeteetako konparazioa.



1. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan *Zuzenean* zerbitzuan emandako arreta

Herritarrei kalitatezko arreta eskaintzen jarraitzea da helburua, herritarrek positiboki baloratzen jarrai dezaten, eta ikuspegi eta kudeaketa integralarekin, eskura dauden kanalen bidez (gaur egun, aurrez aurre, telefonoz eta Internet bidez) eskaintzen diren zerbitzu guztietan, eta **Zuzenean plataforma eta web-plataforma** garatzea. Zerbitzuak emateko modu erraz eta erabilerrazagoa lortu nahi da, pertsona guztientzat eta edozein gailutatik.

[Arartekoaren 4/2020 Gomendio Orokorrak, 2020ko azaroaren 5ekoak](#), herritarrei ematen zaien arreta indartzeko beharra azpimarratzen du, pertsonak eragozpenik izan ez dezaten administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean, baita bazterkeria digitalaren aurkako neurriak hartzekoa ere larrialdi-egoeretan, hala nola COVID-19aren pandemiak eragindako egoeran.

«Herritarrentzako kanal anitzeko arretaren bilakaera» proiektuan gauzatu zen COVID-19 pandemiaren ondoriozko egoera deseskalatzeko herritarrei arreta emateko neurriak ezartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2020ko maiatzaren 12ko Erabakiaren zortzigarren apartatuko agindua. Horri esker, kanal guztietan eta, zeharka, Eusko Jaurlaritzan, herritarrekiko harremanen egungo eredia aztertu eta horri buruzko hausnarketa egin zen, eta, zehazki, sailek eredu horretan izan beharreko paperari buruz. Gainera, arlo horretan datozen urteetarako dauden erronkak jasotzen ditu. Laburbilduta, hauek dira:

- Herritarrentzako arreta-eredua kanal elektronikora hedatzea: proaktiboa, hurbilekoa, horizontala eta prozesu homogeneoekin.



- Bitarteko elektronikoen erabileran interesa duten pertsoneri laguntza ematea funtzionario gaituen bidez.
- Zerbitzuen eskaintza erabiltzaileen profilerara egokitzea, kontsulta eta zerbitzu digitalak modu pertsonalizatuan eskainiz.
- Formula berritzaileak kontuan hartzea, telefono bidezko arretari erantzun ahal izateko planifikatutako prozedura masiboetan eta balio erantsirik ematen ez duten prozesu automatizagarrietan (aurretiko hitzordua, etab.).
- Deiak grabatzea telefono bidezko arretara zabaltzea.
- Zerbitzu eta prozeduren katalogo korporatiboaren edukia berrikustea eta digitalizazio-helburuak berrikustea, bat etorri Eusko Jaurlaritzaren helburu estrategikoekin eta indarrean dagoen esparru juridikoan ezarritako herritarren eskubideen betetze-mailarekin.
- Hileko kudeaketa-txostenak egitea: Postontzi elektronikoro korra, Erregistro elektronikoro korra, *Zuzenean* zerbitzua.
- Aplikazio bat sortzea administrazio elektronikorearen osagaien erabilerari eta jarduerari buruzko informazio eguneratuarekin, eta, zehazki, herritarrentzako arretarako *front-officeren*arekin.
- Datuak eta estatistikak dituzten hileroko kudeaketa-txostenak jakinaraztea sailei eta erakunde autonomoei.
- Herritarrak orientatzeko strategiaren ezagutarazpen- eta prestakuntza-plana egitea Eusko Jaurlaritzako sail guztietan.
- «*Zuzenean* zerbitzuaren prestakuntza-beharren diagnostikoa» berrikustea eta eguneratzea, bai eta *Zuzenean* zerbitzuko eragileentzako herritarren kolektibo espezifikoiei buruzko (migratzaileak, esaterako) prestakuntza-ekintzak ere.
- *Zuzenean* zerbitzuaren webgunea berrikustea eta eguneratzea www.euskadi.eus webgunean.

3.3.9. Interneteko presentziaren arloko erronkak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia-eredua funtsezkoa da Herritarrei Arreta Emateko Sistema Integralean. «*euskadi.eus*» ataria oinarrizko kanala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak herritarrekin harreman elektronikoa izateko, eta herritarrentzako sarbide orokor elektronikoa da.

Informazio integrala, eguneratua eta fidagarria eman behar du, eta horretarako nahiz zerbitzuetarako sarbidean segurtasuna bermatu behar du, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna ere.

Webguneak eboluzionatu egin du: hasiera batean erabiltzaileen orrien kontsumo pasiboan oinarritzen zen (web 1.0), geroago interakzioa eta parte-hartzea sartu ziren (web 2.0), eta etorkizunean adimenduna izango da, datuetan eta adimen artifizialean oinarritua (web semantikoa).

Azken urteetan pantaila-bereizmen desberdinetan bistaratzean aurrera egin denez (*desktopa*, tableta, mugikorra), erabiltzaileak beste gailu batzuk erabiltzen hasi dira *euskadi.eus* webguneko informaziora sartzeko, hala nola ahotsez gidatutako laguntzaile pertsonalak. Beraz, edukiak mikromarkatu behar dira, gailu mota horien kontsumora egokitzeko.

Hauek dira hurrengo urteetarako erronkak:

- *euskadi.eus* sareko **atarien kalitatea** hobetzea:
 - Teknologia eta web-presentziako tresnen bilakaera, eta
 - *euskadi.eus* atarien eta aplikazioen kalitate-prozesuak ezartzea, haien erabilgarritasuna, erabilerraztasuna eta gailu mugikorretarako egokitasuna ebaluatu eta hobetu ahal izateko.
- *euskadi.eus* sareko **atarien** eta horien ardura duten **web-kudeatzaileen erregistroa** sortzea, koordinazioa indartzeko, haien prestakuntza sustatzeko eta edukien eta atarien kalitatea hobetzeko.
- **Web semantikoak** (edukiak semantikoki mikromarkatzea) eta datuaren webguneak ezarritako norabidean aurrera egitea, adimen artifizialeko algoritmoak horietan oinarritzeko.



- Webgunea ahots bidez gidatutako laguntzaile pertsonaletara egokitzea.
- Administrazio sistemen eta prozesuen arteko konexioa eta elkarreragingarritasuna lortzea, negozio-aplikazio guztiak web-presentziako tresnen aplikazioak programatzeko interfaze (API) gisa integratuz, kanpoan erabil daitezkeenak.
- **Erabilerraztasuneko Unitate Arduraduna** inplementatzea, irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuaren (Sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabilerraztasunari buruzkoaren) 16.3 artikuluan ezarritako funtzioak kontuan hartuta.
- *euskadi.eus* guneko **bilatzailea** garatzea.
- *euskadi.eus* atarien eta aplikazioen **kalitate-prozesuak** ezartzea.
- *euskadi.eus* webgunearen **web-kudeatzaileen komunitatea** sortzea.
- *euskadi.eus* webguneko edukiak **argitaratzeko bermeak** ematea.

3.3.10. Zerbitzuak eta prozeduren arloko erronkak

Gure sektore publikoa gobernantza onaren eskakizunetara egokitzeko, **erabat digitalizatu** behar da nahitaez. Etorkizunari begira, EAEko administrazio publikoa erabat digitala izatea da erronka: administrazio digitala gizarte digitalerako.

Administrazio digitalaren garapena gizartea eraldatzeko faktore bat da, baliabide publikoen kudeaketa efizienterako elementua, bai eta zerbitzu publikoek hobeto eman ahal izateko elementua ere:

- Efikazak eta efizienteak.
- Supleak eta arinak.
- Proaktiboak eta pertsonalizatuak.
- Fidagarriak, seguruak, erabilgarriak eta erabilerrazak.

Azken legegintzaldietan, Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egin du zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta administrazio-prozedurak sinplifikatzeko, batez ere transformazio digitalean oinarrituta.

Hala, aurrerapen nabarmenak egin dira administrazio-prozeduren kudeaketa elektronikoa garatzeko eta abian jartzeko, eta esan daiteke *Gobernantza eta*

Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020 amaitzean izapidetze elektronikoa ezarpen-maila eta heldutasun-maila nabarmenak lortu dituela gure administrazioan.

Izan ere, mende honetako lehen urteetatik, jarraitutasun-ildo bati jarraitu zaio prozeduren estandarizazioan, administrazio elektronikoko plataforma erkide baten garapenean eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko sail, organismo eta erakunde publikoetako administrazio-zerbitzu eta -prozedura gehien digitalizazioaren sustapenean.

e-Administrazioaren esparruan, 2020an Internetarako sarbidea duten enpresa-establezimenduen % 94,4k izapide elektronikoa egiten ditu EAEko administrazioekin. Ildo horretan, administrazioek zerbitzu publiko teknologikoki aurreratuak jarri dituzte martxan, hala nola osasun-karpeta, historia kliniko integratua edo eRezeta errezeta elektronikoa, osasun-arloan, besteak beste. Gainera, datu irekien inguruan nabarmentzekoa da Open Data Euskadiren erabiltzaileen ugartzea, 2020an % 68,5 igo baitzen aurreko urtearekin alderatuta.

Bestalde, 2016ko urrian, 39/2015 eta 40/2015 lege berriak jarri ziren indarrean. Lege horiek administrazio-prozedura elektronikoi zerizana eman diote, eta, ondorioz, kolektibo jakin batzuk behartuta daude administrazioarekiko harremanak kanal horren bidez egitera, besteak beste, pertsona juridiko guztiak. Horrez gain, Administrazioa behartuta dago administrazio-espeditente guztiak elektronikoki kudeatzera.

Horregatik, herritarrekin harreman handiagoa eta hobea izateko erronka eta aukera izateaz gain, administrazioaren transformazio digitala, batez ere, betebeharra da.

Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren [Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea DESI 2020](#) (Digital Economy and Society Index) txostenak EAEko aurrerapen digitala aztertzen du indizea osatzen duten bost dimentsioetan:

- Konektagarritasuna,
- Giza kapitala,
- Interneteko zerbitzuen erabilera,
- Teknologia digitalaren integrazioa,
- Zerbitzu publiko digitalak.

Zerbitzu digitalei dagokienez, nabarmentzekoa da EAEk aurreko aldi baina hazkunde handiagoa izan duela eta seigarren postura iritsi dela; aztertutako zerbitzuetan,



digitalizazio-balioak Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik daude, eta datu irekiak nabarmen hobetu dira.

Europako erakundeen esanetan, honako hauek dira gobernu digitalari buruzko **jarduketa-ildo nagusiak**:

- Erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlan hobeak, bereziki osagaiak eta plataformak **berrerabiltzea** eta plataformak konektatzea.
- Herritarren **segurtasuna** eta **konfiantza**; hau da, integritatea, zibersegurtasuna eta elkarreragingarritasuna sendotu behar dira.
- Herritarren **eskubideak** eta, zehazki, datu pertsonalen babesa.
- **Justizia** eta arrakala digitalak txikiagotzea.
- **Zerbitzu publikoen kosorkuntza**; hau da, herritarrek zerbitzu publikoen diseinuan eta konfigurazioan parte hartzea; horrek berekin dakar, datuetan eta ebidentzietan oinarritutako kudeaketa, informazioaren gardentasuna eta alde aurretik planifikatutako politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioaren emaitzaren kontuak ematea.

Eragiketa-mailan, hauek dira zerbitzu publikoen kalitatea eta administrazio-prozeduren digitalizazioa hobetzeko **erronka** nagusiak:

- Prozedura guztietako **Oinarrizko Izapidetze Ereduak** eguneratzen direla eta guztiak betetzen direla bermatzea.
- **Digitalizazio Protokoloa** betetzen den ebaluatzea Eusko Jaurlaritzako sail guztietan eta haren administrazio instituzionalean.
- **Zerbitzu elektronikoaren eskaintza** osatzea, **berringeniaritza** eginez, **sinplifikatuz** eta **haien** kargak murriztuz, erabiltzaileen parte-hartzea kontuan hartuta (gogobetetze-inkestak, *focus group*, *design thinking*, kosorkuntza...).

Administrazio-prozeduren digitalizazio-prozesua ez da mugatu behar beste bide batzuetatik gauza bera egitera; aitzitik, ezinbestekoa da alde aurretik berringeniaritzari ekitea, ingurune digitalera egokitzeko, estandarizazioa eta sinplifikazioa azpimarratuz. Zerbitzu eta tresna erkideak erabili ahal izateko estandarizatu egin behar dira, gauza bera modu desberdinean egiteko sistema anitz garatzea saihestuz, baliabide publikoen erabileran efizientzia nabarmen



hobetzeko. Halaber, prozedurak sinplifikatu behar dira, herritarrek eta enpresek jasan behar dituzten administrazio-kargak murrizteko eta barne-kudeaketaren efizientzia hobetzeko. Erronka horretan herritarrak eta, bereziki, zerbitzu-erabiltzaileak inplikatu behar dira, bai zerbitzuen diseinuan bai ebaluazioan, zerbitzuak horien hartzaileen benetako beharretara egokitzen direla bermatzeko.

- **Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna eta erabilerraztasuna hobetzea**, honako hauen bidez: zerbitzu elektronikoen bilakaera teknologikoa eta funtzionala, hizkera argi eta irakurterraza erabiltzea eta interfaze informatikoen eta inprimaki administratiboen estandarizatzea.
- Administrazio elektronikoen plataforma erkidea EAEko Administrazio Orokor osoan eta haren administrazio instituzionalean **zabaltzea**.

Administrazio elektronikoi buruzko 21/2012 Dekretuak ezartzen du administrazio elektronikoko zerbitzu erkideak nahitaez erabili behar direla; horien artean daude, administrazio elektronikoko plataforma osatzen duten zerbitzu gehienak. Beraz, aurreikuspen hori betearaztea da helburua, adibidez:

- Eusko Jaurlaritzaren mendeko edozein organoren zerbitzu elektronikoz guztietara sartu ahal izatea identifikazio elektronikoko sistema erkide baten bidez.
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko edozein organoren espediente guztiak kontsulta- eta izapidetze-zerbitzu erkidean eskuragarri egotea («*Nire karpeta*» herritarren karpeta).
- Eusko Jaurlaritzako organo guztien eskumeneko administrazio-prozedura guztien barne-izapideak *Tramitagune* espediente-kudeatzaile erkidearen bidez egitea.

Eta ez da soilik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoetara hedatzen, aitzitik, organismo, entitate eta sozietate publiko guztietara ere bai, zuzenbide publikoaren mende dauden jarduketetan, Administrazio Elektronikoi buruzko 21/2012 Dekretuaren aplikazio-eremuarekin bat etorriz.



- Administrazio elektronikoaren plataforma erkidea **garatzea**, helburu hauekin:
 - Efizientziarik ezak eta segurtasun juridikorik ezak eragiten duten informazioaren eta tramitazioarako sarbide-puntuen eta abarren sakabanatzea minimizatzea, eta «*Nire karpeta*» herritarren karpeta bilakaeratik abiatuta, **sarbide bakarra, herritarrei arreta emateko leihatila bakarra eta herritarren EAEko karpeta ezartzea.**
 - **Identifikatzeko eta sinatzeko bitartekoak** sinplifikatzea, erabilera erraztea eta erabilera areagotzea herritarren artean, hainbat gailu mugikorretan eskatutako segurtasun-berme guztiekin, eta egiaztatze- eta sinatze-plataformen elkarrengaitasuna hobetzea.
 - **Identitate korporatiboak kudeatzeko sistema** berri bat ezartzea.
 - EAEko administrazioen **segurtasunerako eta elkarrengaitasunerako nodoaren** (NISAE) bilakaerarekin eta administrazio publikoen arteko **datu-trukerako** zerbitzuen hedapenarekin jarraitzea.
 - Izapideen automatizazio adimenduna.
 - EAEko administrazioetan **kobrantsen eta ordaintzen pasabide** berri bat zabaltzea, *blockchain*-en oinarrituta, administrazioarteko ekosistema baten esparruan. Honako helburu hauek izango ditu pasabideak:
 - Finantza-erakundeekiko elkarrengaitasun-protokoloen estandarizazioa erraztea.
 - Beste administrazio batzuek berrerabil ditzaketen produktuak sortzea.
 - Administrazio eta finantza-erakunde guztien artean partekatutako hobekuntza- eta bilakaera-dinamikak sortzea.

Plataformaren bilakaera, neurri batean, zerbitzu elektronikoaren euskarri diren teknologien garapenak berak zehaztuko du. Hala, zenbait teknologia, esaterako *blockchain*-a edo adimen artifiziala, probatu egin beharko dira, zerbitzu publikoen kudeaketan izan dezaketen erabilera baloratzeko.




- **Zerbitzu digitaletan eskumena duen administrazio-organoaren antolamendua hobetzea:**
 - Zerbitzu Elektronikoen Tutoretza Unitatea sortzea, *Jakinguneri* jarraipena emateko, laguntza, ikaskuntza partekaturako eta elkarlanerako espazio gisa, bai eta langileak administrazio elektronikoan prestatzeko ere.
- **Zerbitzu elektronikoen eskaintza eta erabilera sustatzea:**
 - Autozerbitzua ezartzea herritarrengan eragin handiena duten zerbitzu eta prozeduretan.
 - Zerbitzu publikoak modu proaktiboan eskaintzea, bizitzako ekitaldien ikuspegia kontuan hartuta (une hiritarra).
 - Gailu mugikorretan zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetzea.
- Herritarrek zerbitzuekiko eta arretarekiko duten **gogobetetzea handitzea.**

Bestalde, *GBPGDPE 2030*ek, beste eremu eta ardatz batzuetan, erronka horiek lortzeko erabat funtsezkoak diren helburuak jasotzen ditu:

- **Antolamendua** administrazio elektronikoaren eta gobernu digitalaren lan-modu berrietara **egokitzea**: antolamendu-egitura, lanbide-profilak eta lan-metodoak administrazio publikoaren eta gizartearen errealitate digitalera egokitzea.
- **Aldaketaren kudeaketa eta enplegatu publikoen gaikuntza digitala**: Administrazio elektronikoa erabat hedatzeko, enplegatu publikoak gaitu behar dira.

3.3.11. Datuen eta informazioaren gobernantzaren arloko erronkak

Egoeren analisisan eta datuetan oinarritutako erabakiak hartzea oinarritzat duen kudeaketa-eredua daukan administrazio baterantz aurrera egin nahi bada herritarrei zerbitzu pertsonalizatuak modu proaktiboan emateko, ezinbestean hainbat tresna sortu eta hedatu beharko dira, hala nola adimen artifiziala, datu multzo oso konplexuetan ereduak antzeman ditzakeena eta horiei zentzua ematen diena.



21. irudia. Adimen artifizialaren onurak politika publikoen bizi-zikloaren etapa bakoitzean.

Iturria: [Hola mundo: la inteligencia artificial y su uso en el sector público. Jamie Berryhill, Kévin Kok Heang, Rob Clogher, Keegan McBride. Gobernantza publikoari buruzko ELGAren dokumentuak 36.zk.](#)

EAEk berrikuntza ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementutzat jo duen bezalaxe, bertako sektore publikoak berrikuntzarekiko lidergo-funtzio eredugarria hartu behar du, hala nola zerbitzu publikoak hobetuz, herritarrak ardatz hartuta eta eragiketa-efizientzia areagotuz.

Horregatik, datuen gobernantza lehentasunezko lan-ildoetako bat da. Hala ere, arlo horretako arrisku nagusietako bat da estrategia eta eredu bat lehen unetik ez ezartzea. Eredu horren bidez, zerkusia duten alderdi nagusiak landuko dira eta gai honetan partaide diren administrazio-organoen erantzukizunen, eskumenen eta eginkizunen banaketa ezarriko da, eta, nahitaez **zeharkakoa eta korporatiboa** izan beharko da:

| Landuko diren alderdiak | Administrazio-organok | Irismena |
|-----------------------------------|---|---|
| Datu bakarra eta estekatua | Datuaren Bulegoa eta Data Center Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Erakundearen hainbat informazio-sistemetako datu lotuen eta partekatuen biltegia, datuen bikoiztasuna eta konpartimentu estankoak sortzea saihesteko eta datuen analisisian oinarritutako estrategiak bultzatzea ahalbidetzeko. |



| Landuko diren alderdiak | Administrazio-organismoak | Irismena |
|--|--|---|
| Administrazio barruko eta erakundearteko datuen elkarreragingarritasuna | Zerbitzu Elektronikoaren Unitatea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | PLATEA, Administrazio Elektronikoaren Plataforma Bateratua NISAE, elkarreragingarritasunerako nodoa. |
| Azpiegitura | Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Tresna eta azpiegitura teknologikoak. |
| Datu georreferentziatuak | GeoEuskadi Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak | EAEko informazioaren lurralde-aktiboen kudeaketa integrala eta digitala. |
| Datu irekiak | Open Data Euskadi eta APlak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Datu publikoak irekitzeko eta berrerabiltzea sustatzeko irizpide orokorrak. |
| Datu pertsonalak | EAEko Administrazio Publikoko Datu Pertsonalak Babesteko ordezkaria Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Herritarren datu pertsonalak babestea. |
| Estatistika | EUSTAT Ekonomia eta Ogasun Saila | Datu estatistikoak eta agregatuak. |

9. taula. Datuen gobernantzan parte hartzen duten alderdiak eta administrazio-organismoak

Horrela, hauek dira *GBPGDPE 2030*ek izango dituen **erronka nagusiak**:

- Datuaren Bulegoa sortzeko erregelamendu bidezko garapena onartzea.
- **Datuaren Gobernantza Eredua** onartzea, honako hauek jasoko dituena:
 - **Datuaren Manifestua**, EAEko Administrazio Orokorrak eta haren administrazio instituzionalak datuak kudeatzeko eta erabiltzeko izango dituzten printzipio etikoak eta balioak jasotzen dituen dokumentua.
 - **Estrategiak eta erreferentzia-esparrua.**
 - **Estandarrak ezartzea.**



- Ereduak **koordinatzeko** mekanismoak, datuak kodetzeko, anonimizatzeko eta tratatzeko soluzio teknologikoei buruzko gomendioak eta balorazioak, geolokalizazio-sistemak, trukerako plataformak eta ereduak, elkarrekintzak, modelizazioak eta arriskuen balorazioa, segurtasuna kudeaketan eta datuak biltegitratzean, besteak beste.
 - **Datuak babestearen arloko arriskuak kudeatzeko metodologia**, EAEko Administrazio publikoko sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko guztietan erreplika daitekeena.
 - Datuen **analitika aurreratua** garatzeko ildo nagusiak, metodologiak eta jardunbide onenak definitu eta administrazioak datuetan oinarritutako erabakiak hartzeko behar diren gaitasun teknologikoak eta tresnak garatzen direla ziurtatzeko, ebidentzietan oinarritutako politikak garatzeko aukera emanaz.
 - Enpresen, herritarren eta administrazio publikoen artean datuak **partekatze guneak** sortzea, modu seguruan eta gobernantzarekin.
 - Ekonomiaren ekoizpen-sektoreetan datuak **masiboki erabiltzea**, big data eta adimen artifiziala erabiliz.
 - Datu-plataformetara **sartzeko mekanismo seguruak** garatzea, datuetan oinarritutako erabaki publikoak hartzeko edo enpresa-erabilerarako, eta haien segurtasuna eta gobernantza bermatzea API arkitekturen edo beste mekanismo batzuen bidez.
 - **Ezagutza transferitzeko** mekanismoak **prestatzea** eta garatzea.
 - EAEko Administrazio Publikoan datu pertsonalak babesteari buruzko **prestatuntza espezifikoak**.
 - Sail, organismo eta erakundeek ekimenen koordinazio teknikoa, Europar Batasunaren estrategia eta programen esparruan.
- **Datu «bakarrak» eta estekatuak edukitzea**, horien ustiapena errazteko, bikoiztasunak eta konpartimentu estankoak saihestuz. Horretarako, funtsezkoa da datu horiek behar bezala antolatzea eta kudeatzea; eta datuak antolatu eta kudeatzeko, datu-estrategia bat zehaztu behar da, datu bakarra eskuratzera bideratua, eta datu estekatu eta partekatuen gordailu bat sortu eta bultzatu behar da, erakundearen informazio-sistemen datuak lotzeko. Horrela, datuen



bikoiztasuna eta konpartimentu estankoak sortzea saihestuko da eta datuen azterketan oinarritutako estrategiak sustatu ahal izango dira.

– **Datu irekiak (Open Data Euskadi).**

Hirugarrenek **datuak berrerabil ditzaten** sustatzea eta EAeko administrazioen **sistemen arteko komunikazioa** lortzea. Horretarako, datu irekien ergonomia hobetu behar da, APIen bidez (web zerbitzuak edo SPARQL kontsulta-puntuak) haien irisgarritasuna erraztuz eta administrazioen artean datuak trukatzeko sistemak ezarriz. Horrela, datuetarako sarbidea hobetuko litzateke eta datu-bolumen handiak eskainiko liriateke denbora errealean ia.

– **Datu pertsonalen babesa.**

Ezartzen den datuen politikak eta egiturak bermatu behar du haien erabilera etikoa, pertsonen intimitatea eta datu pertsonalen babesa. Hona hemen erronkak:

- Datu pertsonalak diseinutik abiatuta eta lehenespenez babestea, eskubide eta askatasunetarako **arriskuaren kudeaketaren** bidez.
- Herritarren datu pertsonalak baliatzen dituzten administrazio publikoko langile guztien **prestakuntza eta sentsibilizazioa**.
- **Gardentasuna:** Herritarrei beren datu pertsonalak EAeko Administrazio Publikoan nola tratatzen diren jakinaraztea.
- Pertsonak **beren datu pertsonalen gaineko kontrola izatea ahalbidetuko duten teknologien** ezarpena aztertzea, datu horiek erabiltzen dituzten aplikazioetatik bereizita. EAeko Administrazio Publikoak, ahal den guztietan, datu pertsonalak anonimo bihurtzeko mekanismoak ezarriko ditu. Zerbitzuen arteko elkarreragingarritasun eraginkorra ere sustatuko du, datuen bikoiztasunak saihesteko.

3.3.12. Plangintza, ebaluazioa eta kontu-ematearen arloko erronkak

*Gobernu onak **administrazio ona*** behar du, egin nahi dituen gauza onak ondo egingo baditu. «Gauzak hobeto egiteko» aukera ematen duten tresnek politikak zein zerbitzu publikoak etengabe **planifikatzeko eta ebaluatzeko** mekanismoak txertatu behar dituzte.



Zorrotza izango bada, ezinbestekoa da jarduera publikoaren ebaluazioa plangintza-prozesuaren barruan egitea eta helburuak eta adierazleak zehaztea. Gobernuek bere planifikatzen dute nola jardungo diren, helburuak eta adierazleak definituz; horren ondorengo ebaluazioak hartutako konpromisoak zein mailatan bete diren aztertuko du eta, kasuan-kasuan, desbideratze egiaztagarriak zergatik gertatu diren ikertu. Politika publikoen jarraipena aldebiko bidea da eta alderdi biak inplikatzeko dituzte: kargu publikodunak eta herritarrak, hala, herritarrek ahalmena hartzen dute eta arduradun sentitzen dira.

Ezinbestekoa da plangintzaren eta ebaluazioaren kultura sustatzea, eta EAEko Administrazio Orokorraren eta haren administrazio instituzionalaren **esku-hartze publikoak planifikatu eta ebaluatzeko sistema** bat ezartzea eta instituzionalizatzea. Izan ere **plangintza estrategikoa** kudeaketa-metodologia bat da, gai dena herritarren parte-hartzearen bidez diagnostiko partekatua bat adosteko eta, ondorioz, lehentasuneko helburuak zehazteko, horiek lortzeko estrategia bateratu bat eraikiz.

Gainera, herritarrekin interakzioan jarduteko mekanismoez gain, beste mekanismo batzuk behar dira bai **Eusko Jaurlaritzaren barruko sailen artean** bai **Jaurlaritzaren eta bere administrazio instituzionalaren artean elkarlanean aritzeko** eta kosorkuntzako prozesuak bideratzeko, baita plan estrategikoak lantzeko ere. Lortu nahi den gobernantzak integrazio horiek behar ditu, aurre egin beharreko erronken konplexutasunari heltzeko orduan ezin baititu alde batera utzi interdependentziak.

Aurrekontuak emaitzetara bideratuta taxutzea kudeaketa-ziklo baten barruan txertatzen da; lehen urratsa estrategia, politikak eta lehentasunak diseinatzea da, eta aurrekontua prestatzea, eta politika horiek gauzatzea dator ondoren. Gero, ebaluazioa egiten da, politika horiek hobetzeko, eta atzera ere, berriz zikloari ekin.

Aurrekontu estrategikoek esplizituki lotzen dituzte esleitutako baliabideak lortu nahi diren emaitzekin. Aurrekontu-programek plangintza estrategikoari erantzun behar diote, Jaurlaritzaren helburuekin koherente izanez.

Ebaluazioak etengabeko ikaskuntza-funtzioa du, honako helburu hauek lortzeko:

- Boterearen erabilera eta kudeaketa publikoa hobetzea.
- Esku-hartze publikoen planteamenduan parte hartzen duten eragileak erantzule egitea.
- Kontuak ematea.



- Baliabideak esleitzeko erabakiak hartzen laguntzea.
- Lortutako emaitzak, horien erabilgarritasuna eta eragina, eta eskaintako zerbitzuen kalitatea diagnostikatzea.
- Desbideratzeak zuzentzen laguntzea.
- Baliabide publikoen kudeaketan ekonomiak erraztea, proposatutako helburuen eta erabilitako bitartekoen arabera.
- Gardentasunean eta erakundeek guztien onerako jardutean oinarrituta sortutako komunitate demokratiko baten aurrerabide sozialari buruzko ebidentziak ematea.

Politika publikoak ebaluatzea eta kudeaketa auditatzea ezinbestekoa da herritarren aurrean **kontuak emateko** eta herritarren parte-hartzea sustatzeko. Horretarako, planteatutako ekintzak kudeatzeko eta gauzatzeko ikuspegia erabili ohi da, ekintzen efizientzia edo efikazia zalantzan jarri gabe. Horregatik, *gobernu onak* beste oinarri bat ere badu: **kudeaketaren auditoretza**, hots, entitate baten jarduerak sistematikoki ikuskatzea, entitate horri bere helburuak betetzeko atxikitako baliabide publikoak kudeatzean lortutako efikazia, efizientzia eta ekonomia ebaluatzeko.

Hala ere, burututako ekintzekin lortu diren emaitzetatik haratago begiratu behar da, eta zuzenean, zeharka zein indukzioz eragindako inpaktua analizatu, bideratutako ekintzen garrantzia identifikatzeko modua izango bada.

Hona hemen **erronkak**:

- Gobernu-ekintza antolatzen duen plangintza estrategikoaren egungo gobernantza-sistemaren eta -ereduaren **berrikuspen** kritikoa egitea, barneko eta kanpoko plangintza berritua eta parte-hartzean eta lankidetzan gehiago oinarritua sustatzeko, gehiago eta hobeto ebaluatua eta, aldi berean, eta ahal den neurrian, sinpleagoa eta arinagoa.
- Plangintza estrategikorako **gidalerro, irizpide eta orientabide** orokorrak zehaztea, honako alderdi hauei helduz:
 - a. Egiteko prozesuari eta izapidetze-prozedurari dagokienez:**
 - Aztertzea prozesua zer neurritan den kontzeptualki *ex-ante* ebaluazio bat, hau da, plangintza ezarri aurretik egiten den ebaluazio bat. Horren



helburua da honako hauek balioestea: plangintza egokia den beharrei/arazoei erantzuteko, diseinua, behar beste bitarteko eta baliabide dituen, eta hura ezartzean espero diren inpaktuak zein izango liratekeen.

- Lankidetzeta-sistema bat sustatzea eragile parte-hartzaileen artean (organo sustatzailea eta inplikaturako administrazio-unitateak).
- Sailarteko eta erakundearteko elkarlana, kosorkuntzako prozesuak ahalbidetzeko.
- Prozeduraren txostenen objektua aztertzea eta organo sustatzaileen eta organo informatzaileen artean edukiak kontrastatzeko balizko prozedura bat dokumentatzea.
- Sektoreko politika publikoen arteko elkarguneak identifikatzeko prozedura aztertzea.
- Barneko eta/edo kanpoko estatistika-organoen balizko parte-hartzea aztertzea, jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle-panelak sortzeko, haiek egiteko lanak eta mantentze-lanak bideragarriak direnean.

b. Plangintzaren edukiari eta irismenari dagokienez:

- Planaren gutxieneko edukiak zehaztea. Bereziki, jarduketan gutxieneko deskribapena baino zehatzagoa ematea, eta jarduketan ardatzekin, helburuekin eta adierazleekin duten lotura areago zehaztea, horien arduradunak esplizituki ezarrita, koordinaziorako eta lankidetzarako benetako tresna gisa.
- Plangintza lantzeko zer aukera dauden aztertzea, inplikaturako jarduketa-arloei dagokienez, hura ezartzeko erantzukizuna edo erantzunkidetasuna zehazteko.
- Plangintzaren ekonomia- eta aurrekontu-edukia finkatzea, arreta berezia jarriz plangintza estrategikoaren eta ekonomia- eta aurrekontu-plangintzaren arteko loturan.

Nolanahi ere, argi dago politika publikoen ebaluaziorako nahiz gobernuaren ekintzari buruzko kontuak emateko esparru juridiko egonkorra eta argia behar dela, behar besteko maila duten arauetan finkatua.



3.3.13. Maila anitzeko gobernantzaren arloko erronkak

A. Administrazioaren bilakaera eta konfigurazioa

Egungo administrazio publikoa garatu, eta etorkizunekoa eratzeko, administrazioarteko eta administrazio barneko lankidetzak sustatu behar da honako hauen bidez:

- Administrazio digitaleko eta adimen artifizialeko **Europako programen jarraipena** egitea.
- Administrazio digitalarekin eta adimen artifizialarekin lotutako **konferentzia eta batzorde sektorialetan** eta batzorde horietatik sortzen diren lantaldeetan parte hartzea.
- **Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialean** parte hartzea eta intereseko arloetan lantaldeak sustatzea.
- EAEko Administrazio Publikoan **Zerbitzu Elektronikoen Sarea** sustatzea.
- **Lankidetzak-hitzarmenen eta atxikitze-protokoloen** formalizazioa sustatzea, administrazio elektronikoko oinarritzko soluzio teknologikoen aprobetxamendu komunerako baldintza orokorrak ezartzeko, helburu hauek lortze aldera:
 - o Administrazio elektronikoa interkonektatua gauzatzea: izapidetze elektronikorako plataformak, datu-bitartekaritza eta identifikazio- eta sinadura-sistemak.
 - o Administrazio-jardunaren gardentasuna eta herritarrekiko interakzioa areagotzea: egoitza elektronikoa, sarbide orokorra eta herritarren karpeta.

B. Politika publikoen diseinua, plangintza, betearazpena eta ebaluazioa

Politika publikoen diseinu, plangintza, betearazpen eta ebaluazioko maila anitzeko gobernantzari dagokionez, oraindik ere erronka bat dago: [Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean](#) aurreikusitako Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak zertzea. Hala da, administrazioarteko lankidetzak benetakoa eta eragile publiko bati baino gehiagori eragiten dieten politikak diseinatze eta ezartzeko behar den adostasuna lortzera bideratutako topagune, gogoeta- eta erabaki-foreei dagokienez, legea onartzea bera mugarri izan arren.



Aukera bat da, maila anitzeko osaerako topaketa- eta lankidetzeta-foroen konstelazioa berriz aztertzeko, izan ere, forook izaera desberdinekoak izan arren, orain arteko konfigurazioa antzekoa izan da, eta helburua maila anitzeko gobernantza arrazionalizatzea, sinplifikatzea eta gardenagoa egitea da, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko.

Hori dela eta, [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren administrazio instituzionaleko kide anitzeko organoentzako jarduera-planak](#), [Gobernu Kontseiluaren 2020ko uztailaren 7ko Erabakiaren](#) bidez onartutakoak, adierazten du komenigarria dela gogoeta egitea.

C. Datu publikoak irekitzea eta berrerabilera sustatzea

Datu publikoen berrerabilera irekitzea eta sustatzea (*Open Data Euskadi*), EAEko gizarteari zerbitzu publiko eta pribatu berrien eskaintzari lagunduz, lehentasuna izango da datozen urteetan. Hala, datuak askatuko ditugu datuak ustiatzeko ahalmen handia daukaten sektoreetan (osasuna, hezkuntza, industria eta abar), baita beste datu batzuk ere, euren trataera grafikoak nahiz berariazko ustiapenek herritarren artean gizarte-beharrizan eta -arazorik larrienei eta politikek eta zerbitzu publikoak haiek konpontzeko duten benetako inpaktuari buruzko iritzia eratzten laguntzen badute, kontuak ematearen ikuspegitik.

Baina erronka konplexua da eta **informazioa daukaten erakunde publikoen arteko elkarlana behar da**. Horretarako, beharrezkoa izango da lankidetzan jardutea, sareak ehuntzea eta jardunbide egokiak eta tresnak partekatzea.

3.3.14. Gobernu irekia

1.3.1 atalean, gobernantza onaren, gobernu onaren eta gobernu irekiaren printzipioak deskribatu dira. Gobernu irekiak **herritarrek sartzen ditu** politika publikoak sustatzeko, diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozesuan.

Politika publikoak egitean erabakiak hartzeko prozesuak inklusiboa izan behar du, baina bi alderdietatik izan behar du inklusiboa. Izan ere, gobernu-mailen arteko koordinazioa bezain garrantzitsua da horien eta herritarren arteko interakzioa, ekintza publikoaren azken hartzailea baita.

Herritarren **parte-hartzearen** aldeko apustua egiten bada, administrazioen eta herritarren arteko harremanak berriz formulatu behar dira, bizitza publikoan parte



hartzeko espazio gehiago ezarri behar dira eta herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan parte hartu behar dute.

Ezinbestekoa da, halaber, administrazio publikoek balio publikoa aitortzea **herritarrek**, erakundeen laguntzarekin edo gabe, **sortutako ekimenei**, elkarlanean arituz eta bi aldeek ekimenei koherentzia ematen saiatuz.

Bestalde, Interneteko **sare sozialen** bidez eskaintzen diren zerbitzuek herritarren eta administrazio publikoaren arteko harreman modu berri bat sortu dute: harreman zuzenagoa eta hurbilagoa, erakundeen webguneetan aktiboki parte hartzeko eta beren edukiak administratzeko aukera ematen duena, eta iritzia eman, iritzia bidali eta intereseko informazioa jasotzea ahalbidetzen duena; azken batean, administrazio publikoarekiko partaidetza areagotu dute.

Herritarren parte-hartzea errazteaz gain, sare sozialak zabalkunde-kanal bat dira; izan ere, informazioa hedabide tradizionalak baino modu eraginkor, azkar eta zabalagoan zabaltzen dute, administrazio publikoaren komunikazio-kanala osatuz; gainera, entzuteko kanal bihurtzen dira, herritarrek zerbitzu publikoei buruz dituzten ideiak, iritziak edo kontsultak islatzeko.

Hona hemen arlo horietako erronkarik esanguratsuenak:

A. Komunikazioa

a. Eusko Jaurlaritzaren sare sozialetako erabileren eta estiloaren gida eguneratzea.

Sare sozialen erabiltzaile kopuru handia, haien hazkunde etengabea eta azkarra, edukiak hedatzeko gaitasuna eta eskaintzen dituzten zerbitzuen aukera zabala direla eta, sare sozialak dira Eusko Jaurlaritzak egiten dituen informazio- eta komunikazio-jardueren hedapenerako funtsezko plataforma.

2011n, [Eusko Jaurlaritzaren sare sozialetako erabileren eta estiloaren gida](#) egin zen, eta 2012an eguneratu zen. Bertan, sare sozialak nola erabili beharko lirartekeen, horien ezaugarriak, kontu bakoitza nola kudeatu edo eduki bat nola sortu zehazten da. Sare sozialen barruan identifikatzeko ezaugarri bisual komunak dituen irudi grafikoa ere jasotzen du. Hala ere, ez da arlo horretako arau bat, eta, sare sozialen esparruan gertatzen ari diren aldaketak eta inguruabarrak ikusita, sailek erabakitzen dute sare sozialetan duten presentziaren eta profilaren nolakoa.



Sare sozialetako kanalen etengabeko garapenaren eta bilakaera azkarraren, ezinezkoa da denboran iraungo duten jarraibideak prestatzeko irizpide estandarrak ezartzea eta eguneratzea komeni da eta irudi bakarra eduki behar da, kontuak Eusko Jaurlaritzarekin bat datozela argi eta garbi identifikatzeko.

b. Sare sozialetako komunikazioa arautzea.

Gida eguneratzeaz gain, oso komenigarria da kontrol-mekanismo bat arautzea, Eusko Jaurlaritzak Interneten eskaintzen dituen sare sozial anitzen kudeaketa efikaza eta efizientea izan dadin. Horregatik, beharrezkoa da sare sozialak erabiltzeko kontuak irekitzeko eta kudeatzeko prozedura ezartzea, bai eta Eusko Jaurlaritzak sare sozialetan dituen oinarrizko komunikazio-printzipioak ere.

c. Sare sozialen eta webgunearen arteko interkonexioa handitzea.

Gaur egun, sare sozialen presentzia oso txikia da sailletako atarietan, erakunde autonomoetan eta gaikako atari batzuetan: web orria eta sare sozialak dituzte, baina ez dute elkarren arteko loturarik, eta, batez ere, webetik sare sozialetarako loturarik ez egotea da gabetasunik handiena. Erronka da bi zerbitzuek elkar elikatzea, sare sozialetako jarraitzaileen kopurua handituz, batetik, eta sare sozialek webgunera egiten dituzten bisitak areagotuz, bestetik. Web ataritik sare sozialetarako sarbide horrekin, herritarren eta administrazioaren arteko interakziorako zuzeneko bitarteko hori sustatuko litzateke, baita herritarren parte-hartzea ere.

d. Sare sozial berrien erabilera sustatzea.

Sare sozialen erabilera nabarmen handitzen ari da, eta herritarren segmentu desberdinei zuzendutako zerbitzu berriak sortzen laguntzen du; beraz, beharrezkoa litzateke merkatuaren bilakaera aztertzea eta sare sozial berriak bilatzea, herritarren segmentu jakin batzuentzako interesgarriak izan daitezkeen zerbitzu berriak eskaintzeko eta horien erabilera indartzeko.

COVID-19 pandemia hasi zenetik, herritarren ohitura asko aldatzen joan dira, baita gainerako pertsona, organismo eta erakundeekin elkarreragiteko moduak ere. Ildo horretan, *streaming*-eko audientzia esponentzialki handitu da, eta datozen urteetan hazten jarraitzea espero da; beraz, Eusko Jaurlaritzak, esaterako, Twitch edo Caffeine sareetan duen presentzia ebaluatzea komeni da.

Gainera, zenbait txostenen arabera, sare sozial batean profil bat ireki zuten erabiltzaileen kopuruak ere gora egin du nabarmen 2020an, eta dagoeneko munduko



biztanleen erdiek baino gehiagok erabiltzen dute sare sozialen bat. Horregatik, komenigarria da beste sare batzuek eskain dezaketena aztertzea.

e. Urten laburgailu bat garatzea.

Eusko Jaurlaritzarentzat laburgailu generiko bat garatzeko beharra dagoela ikusi da (jatorrizko urlra bideratzen duten url laburrak erabiltzeko aukera emango duen software-zerbitzua), honako arrazoi hauengatik:

- Lekua eta karaktereak aurreztuko dira; hori oso komenigarria da, sare sozialetan argitaratzeko espazioa mugatua izaten baita, eta, askotan, urria.
- Url laburrak errazago memorizatzen, idazten edo banatzen dira, eta egokiagoak dira webguneetarako edo argitalpen inprimatueterako.

B. Gardentasuna

Eusko Jaurlaritzak, XI. Legegintzaldian (2016-2020), Gobernu Planaren 15 adierazleen artean jaso zuen **nazioarteko gardentasun-adierazleetan** lider izatea. Harrezkero, erronka hori ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak gardentasunarekin duen konpromisoa betetzeko.

Oraindik ere erronka bat da gardentasuna eta kontuak ematea publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzeko bermeen bidez sustatzea, epe ertainerako oinarritzko erreferentziatzat hartuta nazioarteko erakundeek gardentasunean aurreratuen dauden herrialdeekin bat etortzeko ezarritako aurrerapen-mailak.

Eusko Jaurlaritzaren **publizitate aktiboak** [Gardena](#) gardentasun-ataria du ardatz; Gardena atariak grafiko, ikus-entzunezko eta irakurgai ugari biltzen ditu, informazio konplexuena ulertzen laguntzeko. Nabigazioa errazagoa izan zedin, mugikorrerako «Mobile first» izeneko diseinu bat garatu zen; izan ere, gailu mugikorretatik egiten diren bisitak etengabe ugartzen ari dira, *euskadi.eus*-eko atari askotan % 50etik gorakoak baitira.

Azkenik, gero eta garrantzitsuagoa da webgunearen erabilerraztasuna azpimarratzea. Argitaratutako baliabideak, erabilgarritasuna eta erabilerraztasuna hobetzen jarraitzea funtsezkoa da bisita kopurua handitzeko eta herritarrak informatuta edukitzeko.

Hona hemen sarbide-eskubideari buruzko erronkak:

- Erantzun-denborak murriztea.



- Sailek eskaera guztiei erantzutea.

Demokrazian aurrera egiteko, ezinbestekoa da informazio publikoaren zabalkundea, ulermena, argitasuna, irisgarritasuna, egiazkotasuna eta herritarrek erabilgarri izatea bermatzea.

C. Herritarren parte-hartzea

Oraindik ere erronka bat da herritarrek parte hartzearen balioa administrazio-kulturan txertatzea, alde batetik, partaidetza sustatuko duten tresnen eta mekanismoen bidez; eta beste alde batetik, joko-arauak ezarriko dituen arau-esparru baten bidez, herritarren kontsultak, lankidetzeta-plataformak, partaidetza bidezko ebaluazioak eta abarrak legezatzeko.

a. OGP-Euskadi.

2018az geroztik, EAE Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren (OGP) parte da, [OGP-Euskadi](#), eta, beraz, [Gobernu Irekiaren Adierazpenari](#) atxiki zaio. Horrek esan nahi du gure konpromisoak indartzeko erantzukizuna onartu behar dugula, honako helburu hauek lortzeko: gardentasuna sustatzea, ustelkeria borrokatzea, herritarrak ahalduntzea, teknologia berrien ahalak aprobetxatzea gobernua efizienteagoa eta arduratsuagoa izan dadin eta irekitasunaren balioa defendatzea, oparotasun, ongizate eta giza duintasun handiagoa egon dadin gure herrialdean bertan eta gero eta interkonektatuago dagoen mundu honetan.

Horretarako, konpromisoak honako hauek dira:

- Gobernu-jarduerei buruzko informazioa eskuragarriago egotea.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea.
- Gure gobernu guztietan integritate profesionaleko estandar gorenak aplikatzea.
- Teknologia berrietarako sarbidea areagotzea, kontuak ireki eta emateko.

Erronka da EAEko hainbat erakundek herritarrekin batera sortutako bigarren Ekintza Plana hedatzea, EAEn gobernu irekiaren printzipioak bultzatzeko.

b. Gobernuen kalitateari buruzko indizea.

2021ean, Göteborgeko Unibertsitateko Gobernuaren Kalitate Institutuak (EQI-21) Europako Batzordearen laguntzarekin egiten duen Europar Batasuneko herrialdeetako gobernu azpinazionalen kalitateari buruzko indizea argitaratu zen ([Sub-national Quality](#)



of Government in EU Member States). Laugarren edizioa da, aurreko hirurak 2010ean, 2013an eta 2017an argitaratu baitziren. Analisi material baliotsua eta ezinbestekoa da analisi instituzional konparatua egiteko.

Göteborgeko Unibertsitatearen txostenek ospe handia lortu dute eta, beraz, emaitzek joera garrantzitsuak markatzen dituzte, herritarrek beren lurraldean gobernu eta administrazio ona, hala-holakoa edo txarra non hautematen duten identifikatzeko. Hiru azterketa-eremu nagusi ditu: inpartzialtasuna, ustelkeria eta zerbitzu publikoen kalitatea (hiru eremu bakarrik kontuan hartu arren: osasuna, hezkuntza eta legea betetzea).

| Autonomia-erkidegoa | EQI_21. | Zerbitzuen kalitatea | Inpartzialtasuna | Ustelkeria |
|--------------------------|---------|----------------------|------------------|------------|
| 1. EAE | 0.969 | 1.042 | 1,17 | 0.586 |
| 2. Errioxa | 0.845 | 1.374 | 0.632 | 0.435 |
| 3. Nafarroa | 0.712 | 1.032 | 0.775 | 0.251 |
| 4. Asturias | 0.617 | 0.544 | 0.853 | 0.375 |
| 5. Extremadura. | 0.442 | 0.549 | 0,5 | 0.229 |
| 6. Valentziako Erkidegoa | 0.283 | 0.274 | 0.623 | ≥ 0.079 |
| 7. Gaztela-Mantxa | 0.274 | 0.323 | 0.334 | 0.124 |

10. taula. Autonomia-erkidegoek gobernuen kalitate-indizean duten posizioa (2021). Iturria: Sub-national Quality of Government in EU Member States. Göteborgeko Unibertsitateko Gobernuaren Kalitate Institutua.

Erronka da Göteborgeko Unibertsitatearen txostenaren rankingeko posizioa hobetzea, Europako eskualde guztiak kontuan hartuta.

c. Legegintzako herri-ekimenak.

Beste administrazio eta erakunde batzuekin batera, hala nola Eusko Legebiltzarrarekin, herritarrei araugintzan benetan parte hartzeko aukera emango dieten tresnak sortzeko erronka dago. Horretarako, teknologia berriak erabiliko dira, herritarrek gai publikoetan modu erraz eta modernoan esku har dezaten, pertsonen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeari utzi gabe.

Legegintzako, araugintzako edo erregelamendugintzako herri-ekimena sustatzeko jarraitu beharreko prozesua dagokion araudian zehatz-mehatz deskribatuta dago. Hala



ere, erregistratzen diren ekimenak oso gutxi dira, herritarrek oro har ez dutelako ezagutzen eta prozedura bakoitzak behar dituen atxikimenduak modu ziurtatua eta seguruan biltzea zaila delako. Aurkezten diren ekimen asko bertan behera geratzen dira atxikimenduak jasotzeko epea amaitu egiten delako, eta aurrera egiten dutenak ez datoz herritar talde anonimoetatik. Bat eta beste, azkenean, herri-ekimenen helburua lausoturik geratzen da neurri batean. Era berean, atxikimenduak baliozkoak direla ziurtatzeko lana konplexua da, eta, hura errazteko, administrazioarteko elkarreragingarritasuna behar da.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA ETA PLAN ERAGILEA



4.1. Printzipioak

*GBPGDPE 2030*ek honako printzipio hauek jarraitzen ditu:

- a. **Integragarritasun**-printzipioa: garapen jasangarriaren hiru dimentsioak hartzen ditu (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).
- b. **Zeharkakotasun**-printzipioa: Gobernuaren konpromiso bat dakar, sail, organismo eta erakunde guztiek partekatzen dutena, eta gobernantzaren, berrikuntzaren eta gobernu digitalaren arloan dituen jarduera eta ekimen sektorialak biltzen ditu, jardun-arloa eta politika publikoa edozein izanik ere. Horretarako, Planaren helburuen baterako lidergo partekatua behar da.
- c. **Lerrokatze**-printzipioa: honako hauekin lerrokatzen da:
 - Nazioarteko eta Europako estrategiak eta konpromisoak, eta, zehazki, 2030erako garapen jasangarriaren aldekoak, gizarte-erronka horiek konpontzen laguntzeko.
 - Europa Digitalaren eta Estatuko Agenda Digitalaren helburuak.
- d. **Koordinazio**-printzipioa: Gobernuaren 2030erako estrategia globalaren esparruan, beste sail-politika batzuekin.
- e. **Epe luzerako ikuspegiaren** printzipioa: 2030era arteko denbora-irismena bat dator NBEren 2030 Agendarekin, eta haren jarraipena eta ebaluazioa aurreikusten dira, bai eta berrikusteko eta birformulatzeko aukera ere, NBEren



gobernu digitalari buruzko inkestarekin (bi urtetik behin egiten diren ebaluazioak) bat etorritz.

- f. **EGOKIGARRITASUN**–printzipioa: jarraipenaren eta ebaluazioaren ondorioz, egokitzat jotzen diren aldaketak sartuko dira etengabeko hobekuntza-prozesu baten esparruan.

Integratzailea

• Garapen jasangarriaren 3 dimentsioak hartzen ditu (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).

Zeharkakoa

• Eusko Jaurlaritzaren jardun-erlota eta politika publiko guztiak hartzen ditu.
• Konpromiso partekatua eta batera gidatua.

Lerrokatzea

• Nazioarteko eta Europako estrategia eta konpromisoekin, eta, zehazki, 2030erako GJHekin (GJHekin lotutako gizarte-erronkak, zehaztea, horiek konpontzen lagundu behar baitu).
• Europa Digitalaren eta Estatuko Agenda Digitalaren helburuekin.
• Helburu operatiboak eta adierazleak nazioarteko erreferentzia-indizeekin gehiago lerrokatzea.

Testuinguruan kokatua eta koordinatua

• Sailen beste politika batzuekin, 2030erako Gobernuaren estrategia global baten esparruan.

Aldi baterakoa

• 2030erako denbora-irismena:
• GJHren 2030 Agendarekin bat dator, eta 2 urtetik behin NBEren Gobernu Digitalari buruzko inkesta (ebaluazioak 2 urtetik behin).
• Tarteko ebaluazioa 2025ean, España digital 2025 Planaren irismenarekin bat etorritz: balizko berrikuspena eta birformulazioa.

Moldagarria

• Jarraipenaren eta ebaluazioaren ondorioz, etengabeko hobekuntza-prozesu baten esparruan uste diren aldaketak sartuko ditu.

11. taula. *GBPGDPE 2030*en printzipioak.

Gainera, 1.2 atalean adierazi den bezala, [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean](#) jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jarduketa gidatu eta bideratuko dutenek, inspiratu dute *GBPGDPE 2030*.

Lege horrek adierazten duenaren arabera, EAEko botere publiko guztiek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, politika publikoetan esku hartzeko gai estrategikoetako bat baita; izan ere, politika eta ekintza horiek diseinatzeko eta ezartzeko tresnetako bat dira, eta erakundeen jarduna artikulatu eta antolatzeko elementua ere bai. Agindu hori [Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren](#) bidez gauzatzen da. III. programako BG11 neurriari erantzuten dio *GBPGDPE 2030*ek. Gobernu onerako programa eta neurriei dagokienez, *GBPGDPE 2030* planak BG11 neurriari erantzuten dio (genero-ikuspegia sektorekako eta zeharkako planetan).



Gainera, *GBPGDPE 2030*en ekintza eta ekimen guztiek esplizituki bete beharko dituzte neurri horren helburu eragileak:

BG11. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA SEKTOREKAKO ETA ZEHARKAKO PLANETAN

BG11.1 Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea.

| | |
|--------------------------|--|
| INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK | Erakunde guztiak. |
| ADIERAZLEAK | Honako hauek egiten dituzten sektorekako eta zeharkako plan estrategikoen kopurua eta ehunekoa: <ul style="list-style-type: none"> - Diagnostiko-fasean gizon-emakumeen egoera ezberdina aztertzen dute, askotariko diskriminazioa pairatzeko arriskuan edo egoeran dauden emakume-taldeen berriazko egoerak barne. - Berdintasunaren aldeko helburu eta neurriak jasotzen dituzte, diskriminazio anizkoitza pairatzen duten emakume-taldeen berriazko egoerak barne. - Jarraipena eta ebaluazioa egiteko genero-adierazleak aurreikusten dituzte. |

BG11.2 Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea.

| | |
|--------------------------|---|
| INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK | Erakunde guztiak. |
| ADIERAZLEAK | Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu dituen sektorekako edo zeharkako plan estrategikoen ehunekoa. Berdintasunerako unitate edo eragile batek ezarri dituen sektorekako edo zeharkako plan estrategikoen ehunekoa. |

12. taula. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko BG11 neurriko helburuak.
Iturria: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.



4.2. Xedea, ikuspegia eta helburu programatikoa

GBPGDPE 2030, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren gobernantza, berrikuntza publikoa eta gobernu digitala egituratzeko zeharkako tresna da, eta aurreko planen eboluzioa izateaz gain, aurrerapausoa ere izan da horiekin alderatuta ([Berrikuntza Publikoko Plana, 2011-2013](#); [Berrikuntza Publikoko Plana, 2014-2016](#); [Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020](#)).

Administrazio publikoa etengabe hobetzeko eta zerbitzatzen duen gizarteko egoera aldakorretara egokitzeko premiak legealdien mugak gainditzen ditu; hori dela eta, asmo horretara zuzendutako politikek epe luzeko ikuspegia izan behar dute, ziklo politikoetatik haratago doazenak, etenik gabe ahaleginduz bakarrik lortu eta finkatu baitaitezke emaitza esanguratsuak arlo honetan.

Hauek dira *GBPGDPE 2030*en xedea eta ikuspegia:

Xedea

«Administrazio zintzoa, berdinzalea, elebidun eta berritzailea eraikitzea, enplegatu publikoen eta herritarren **parte-hartze aktiboa** kontuan hartuko duena, herritarren **premietan arreta jartzen duena**, bere burua **ebaluatzen duena eta emaitzetara bideratua**, kontuak ematen dituenak, irekia eta gardena, eta zerbitzu **irigarriak, kalitatezkoak, efizienteak, efikazak eta seguruak** eskaintzen dituenak».



Ikuspegia


«EAEko administrazio publikoa harremanetarako gunea izango da **herritar eratzukideen** eta gizartearen ongizatea lortzeko lan egiteaz harro dauden zerbitzu publikoko **langileentzako**».

*GBPGDPE 2030*en helburu programatikoa administrazioa eraldatzea da, eta horren bidez lortu nahi den erakunde publikoak balio publikoa sortu eta 1.1. atalean adierazitako herritarren nahiz sektore publikoaren **beharrei** eta 3.3. atalean deskribatutako **erronkei** erantzungo die.

3.3. atalean, EAEko Administrazio Publikoak gobernantza eta berrikuntza publikoko eta transformazio digitaleko politikei dagokienez dituen erronka nagusiak adierazi dira.

4.3. Eremu estrategikoak eta ardatzak

GBPGDPE 2030en formulazio estrategikoa aurreko planean jasotako strategiaren bilakaera bat da:



22. irudia. GBPGDPE 2030en formulazio estrategikoa.




Hala, herritarrak triangeluaren goiko erpinean kokatuz administrazioaren zerbitzuen eta politiken azken hartzaile gisa, harreman- eta zerbitzu-eredu bana proposatzen dira:

- **Harreman-eredua** herritarrak legitimazio demokratikoaren hartzaile izatearekin lotuta dago, eta gobernu irekiaren esparruan, besteak beste, gardentasuna eta, herritarren parte-hartzea eta zuzeneko lankidetzak eskatzen ditu.
- **Zerbitzu-ereduak** honako hauekin du zerikusia: herritarrak, erabiltzaileak diren aldetik, ardatz dituzten zerbitzu publikoak; kalitatezko zerbitzu publikoak, efikazak eta efizienteak, modu integral batean eta kanal anitzen bidez, eta modu proaktiboan ematen direnak, eta gero eta pertsonalizatuagoak direnak.

Harreman-eredua zein zerbitzu-eredua kudeaketa publiko aurreratuan, antolaketan, prozesuetan eta etengabe hobetzen ari diren tresnetan oinarritu behar dira, aurrerapen teknologikoak modu berritzailean txertatuz.

Hauek dira *GBPGDPE 2030*en **eremu eta ardatz estrategikoak**:



23 irudia. *GBPGDPE 2030*en eremu estrategikoak.



| Gobernu onaren eremu estrategikoak | Ardatzak | Ardatzaren ardura duen organoa |
|--|---|--|
| I. Gobernu zuzena, berdinzailea eta elebiduna | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Funtzio Publikoko Sailburuordetza |
| | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna | Funtzio Publikoko Sailburuordetza |
| | Euskara, lan- eta zerbitzu-hizkuntza | Funtzio Publikoko Sailburuordetza |
| II. Gobernu berritzailea eta etengabeko ikaskuntzan diharduena | Araudia | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza |
| | Pertsonak antolatzeko eta kudeatzeko sistema | Funtzio Publikoko Sailburuordetza |
| | Antolaketa | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza |
| | Azpiegiturak | Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza |
| III. Herritarrak ardatz dituen gobernu digitala | Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematea | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza |
| | Zerbitzu digitalak | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza |
| IV. Datuetan oinarritutako gobernu, kontuak ematen dituena | Datuen eta informazioaren gobernantza | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza |
| | Plangintza | Koordinazio Zuzendaritza |
| | Ebaluazioa eta kontu-ematea | Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza |
| | Maila anitzeko gobernantza | Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza |
| V. Gobernu irekia | Komunikazio publikoa | Gobernu Irekiaren Zuzendaritza |
| | Gardentasuna | Gobernu Irekiaren Zuzendaritza |
| | Herritarren parte-hartzea eta lankidetzak | Gobernu Irekiaren Zuzendaritza |

13. taula. GBPGDPE 2030en eremu eta ardatz estrategikoak.



ardatz

Gobernantzaren Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bai zeharkako ekimenetarako (1. eranskina), bai EAeko Administrazio Publikoaren jardun-arlo eta politika publikoetako ekimen sektorialetarako (2. eranskina), ekimen horietan inplikaturako eremuak eta ardatzak adierazten dira.

Baliteke ardatz bakoitzaren organo arduraduna ez izatea ardatz horretan inplikaturako administrazio-organoko bakarra (izan ere, gehienetan ez da hala). Organo horrek izendaturako pertsona bat izango da ardatzaren koordinazioaren arduraduna, eta 5.2 atalean deskribatzen den Batzorde Eragilean parte hartuko du.



4.4. Plan eragilea

GBPGDPE 2030 hedatzeko plan eragileak honako hauek jasotzen ditu:

- Ardatz eta eremu estrategiko bakoitzeko **gaiak edo jarduketa-ildoak**.
- «SMART» ezaugarriak betetzen dituzten jarduketa-ildoko edo gaiko **helburuak**:
 - **Zehatzak** (*specific*): argi adierazita zer egoera, non, noiz eta nola aldatuko den;
 - **Neurgarriak** (*measurable*): helburuak eta onurak zenbakarriak izan behar dira;
 - **Egingarriak** (*achievable*): helburuak eskuragarriak izatea (baliabide eta ahalmen erabilgarriak aintzat hartuta);
 - **Errealistak/esanguratsuak** (*realistic/relevant*): helburuan adierazitako aldaketa-maila lortu ahal izatea;
 - **Denboran mugatua** (*time bound*): helburu bakoitza betetzeko epea ezarriko da.
- Helburuen ardura duten administrazio-**organoak**.



| Eremu estrategikoa | Ardatza | Gaia edo jarduketa-ildoak |
|--|--|---|
| I. Gobernu zuzena, berdinzalea eta elebiduna | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Kudeaketa aurreratuaren eredua |
| | | Balioak |
| | | Integritatearen Euskal Sistema |
| | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna |
| Euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza | Euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza | |
| II. Gobernu berritzailea eta etengabeko ikaskuntzan diharduena | Araudia | Gobernantzaren, berrikuntza publikoaren eta gobernu digitalaren esparru juridikoa |
| | | Gobernantza publikoaren arloko erregelamendu-garapena |
| | Pertsonak | Administrazioa berrantolatzea eta gaztetzea |
| | | Talentuaren kudeaketa osoa |
| | | Elkarrizketa soziala |
| | Antolaketa | Kide anitzeko organoak |
| | | Gobernantza publikoaren zeharkakotasuna |
| | Azpiegiturak | Batera Zerbitzuen Katalogoa sustatzea |
| | | Soluzioak eta zerbitzuak garatzea |
| | | Soluzioak eta aplikazioak modernizatzea eta arrazionalizatzea |
| | | Berrikuntza teknologikoa sustatzea EAEko sektore publikoan |
| | | Tresnak eta prozesuak |
| III. Herritarrek ardatz dituen gobernu digitala | Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematea | Aldaketaren kudeaketa |
| | | Emandako funtzioak eta zerbitzuak |
| | | Funtzionario gaituak |
| | | Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa |
| | | Erregistro elektronikoa orokorra |
| | | Ahalordeen erregistroa |
| | | Interneteko presentzia |
| | | Herritarrek zerbitzu elektronikoekin duten gogobetetze-maila |
| | | Zerbitzu digitalak |
| | Administrazio elektronikoaren plataforma erkidea hedatu eta garatzea | |
| | Bizi-ekitaldien proaktibotasuna eta ikuspegia (herritarren unea) | |
| | Aldaketaren kudeaketa eta profesional publikoen gaikuntza digitala | |
| | Zerbitzu elektronikoaren eskaintza eta erabilera sustatzea | |



| Eremu estrategikoa | Ardatza | Gaia edo jarduketa-ildoak |
|--|---|---|
| IV. Datuetan oinarritutako gobernuaren kontuak ematen dituenak | Datuen eta informazioaren gobernantza | Datuaren gobernantza-eredua |
| | | Datuaren adierazpena |
| | | Datuaren Bulegoa sortzeko erregelamendua garatzea |
| | | Datu pertsonalen babesa |
| | | Datu-errepositorio partekatua: datu bakarra eta estekatua |
| | | Datu irekiak |
| | Plangintza | Plangintza estrategikoa |
| | | Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak. |
| | Ebaluazioa eta kontu-ematea | Politika publikoen ebaluazioa |
| | Maila anitzeko gobernantza | Administrazioen arteko eta administrazio barruko lankidetzak, egungo eta etorkizuneko administrazioaren bilakaerarako eta diseinurako |
| Tokiko Politika Publikoaren Euskal Kontseilua eta kide anitzeko organoak | | |
| V. Gobernu irekia | Komunikazio publikoa | Sare sozialak eta Interneteko presentzia |
| | | Herritarren parte-hartzea sare sozialetan |
| | Gardentasuna | Gardentasun-indizeak |
| | | Publizitate aktiboa |
| | | Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea |
| | Herritarren parte-hartzea eta lankidetzak | Open Government, OGP-Euskadi |
| | | Gobernu-kalitatearen Europako indizea |
| | | Elkarlan sariak |
| | | Herri-ekimenak |

14. taula. GBPGDPE 2030en ardatz eta eremu estrategikoko bakoitzeko gaiak edo jarduketa-ildoak

1. eranskinean ardatz eta eremu bakoitzeko helburuak jasotzen dira, bi epemugarekin: 2025 eta 2030.

Azkenik, GBPGDPE 2030 Legegintzaldiko Plan Estrategiko gisa onartuta dago, eta, beraz, 2. eranskinean jasotzen dira GBPGDPE 2030en helburuekin lotura duten Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuetan aurreikusitako ekimenak gobernantzari, berrikuntzari eta gobernu digitalari lotuta baitaude ezinbestean.



4.5. GBPGDPE 2030ek testuinguruarekin bat etortzea

4.5.1. Nazioarteko testuingurua, herritarren beharrak eta Gobernu Programa

Taula hauetan zehazten da *GBPGDPE 2030*ek honako hauekin duen lotura:

- 1.1. atalean deskribatutako herritarren beharrekin.
- Garapen jasangarriaren helburuekin eta Nazio Batuen 2030 Agendaren helburuekin.
- Europa Digitala programarekin (2021-2027).
- XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren ardatz, jardun-arlo eta konpromisoekin (2.4.1 atala).

15. taula. *GBPGDPE 2030*en formulazio estrategikoak herritarren beharrekin duen lotura.

| Herritarren beharrak | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maita anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkartlana |
|--|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|------------------------------|
| Kudeaketaren eta antolaketaren kultura edukitzea, eta horren balio eta estandar etikoek, eta integritatekoek, eta kontuak ematea, bide ematea herritarrek kudeatzaile publikoengan berriz ere konfiantza izateko. | ✓ | | | | ✓ | ✓ | | | | | | | | | | ✓ |
| Berdinzalea izatea emakumeentzat eta gizonentzat. | | ✓ | | | ✓ | | | | | | | | | | | |
| Euskara laneko eta zerbitzurako hizkuntza izan dadin sustatzea. | | | ✓ | | ✓ | | ✓ | ✓ | ✓ | | | | | ✓ | | ✓ |
| Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak izatea eta berrikuntza eta etengabeko ikaskuntza lortu nahi izatea. | ✓ | | | | ✓ | | | | | | ✓ | ✓ | | | | ✓ |
| Enplegatu publikoak eta talentuaren kudeaketa integrala kudeatzeko eredu berri bat aztertu eta erabiltzea, erakundea eta pertsonak unean uneko lan-eta kudeaketa-moduetara egokitzen direla bermatzeko. | ✓ | | | | ✓ | ✓ | | | | | | | | | | |
| Unean-unean planteatzen diren erronkei egokitutako tresnak izatea. | ✓ | | | ✓ | | | ✓ | | | ✓ | | ✓ | | | | |

| Herritarren beharrak | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkarlana |
|---|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-----------------------------|
| Gobernantza publikoaren eta gobernu onaren betekizunekin bat datorren egitura, antolaketa eta funtzionamendua izatea, etengabe herritarrak erdigunean jartzen dituen, unean uneko beharretara arin egokitzeko eta epe laburreko zein luzeko erronkei erantzuteko gai dena ziurgabetasun-testuinguruan. | ✓ | | | | ✓ | ✓ | | | | | | | | | | |
| Herritarrei arreta kalitatezko, integral eta kanal anitzekoa eskaintzea. | | | | | | | | ✓ | ✓ | | | ✓ | | | | |
| Herritarrei kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzea; sinpleak, irisgarriak eta erabilgarriak; efikazak eta efizienteak; modu proaktiboan eta pertsonalizatuan eskaintutakoak. | | | | | | | | ✓ | ✓ | | | ✓ | | | | |
| Era instituzionalizatuan planifikatu eta ebaluatuko diren politika eta zerbitzu publikoak garatzea, eta horien emaitzen kontu ematea aldian-aldian. | | | | | | | | | | | ✓ | ✓ | | | ✓ | |
| Datuen gobernantza , eta informazioarena, segurua izatea, datu pertsonalak babesten dituen eta balio sozial eta ekonomikoa sortzen duena. | ✓ | | | ✓ | | | ✓ | | | ✓ | | ✓ | | | | |



| Herritarren beharrak | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkarlana |
|--|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-----------------------------|
| Maila anitzeko gobernantza-ereduan oinarritutako harremanak ezartzea administrazio publikoen artean , hainbat eragile publikori eragiten dieten politiken diseinuan eta ezarpenean adostasuna lortzeko eta datuak eta informazioa trukatzeko. | | | | | | | | | | | | | ✓ | | ✓ | |
| Herritarrei administrazioaren jarduketa zuzenean kontrolatzeko aukera ematea, eta politika zein zerbitzu publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzerakoan rol erantzunkidea izatekoa. | | | | | | | | | | | | | | ✓ | ✓ | ✓ |

16. taula. *GBPGDPE 2030*en formulazio estrategikoak 2030 Agendarekin duen lotura.

| Garapen jasangarriaren helburuak eta xedeak 2030 Agenda | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maita anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkartlana |
|--|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|------------------------------|
| 4. GJHa. Kalitatezko hezkuntza. | | | ✓ | | | | | | | | | | | | | |
| 5. GJHa. Genero-berdintasuna. 5.1 Diskriminazio mota guztiak desagerraraztea. 5.4 Etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatzea, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera. 5.5 Emakumeen parte-hartze osoa eta benetakoa eta lidergorako aukera-berdintasuna. 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, batez ere informazioaren eta komunikazioen teknologietan, emakumeen ahalduntzea sustatzeko. 5.c Berdintasuna sustatzeko politika egokiak eta legeak. | | ✓ | | | ✓ | | | | | | | | | | | ✓ |
| 9. GJHa. Azpiegitura erresilienteak, industrializazio inklusiboa eta jasangarria eta berrikuntza. 9.5.c. Informazioaren eta komunikazioen teknologiara sarbidea izatea. | | | | ✓ | | | ✓ | | ✓ | | | | | | | |
| 10. GJHa. Desberdinkeriak murriztea. 10.2. Pertsona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa. 10.3. Aukera-berdintasuna. Lege, politika eta jardunbide diskriminatzaileak ezabatzea. | | ✓ | | | | | | | | | | | | | | ✓ |



| Garapen jasangarriaren helburuak eta xedeak 2030 Agenda | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkarlana |
|---|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-----------------------------|
| 16. GJHa. Bakea, justizia eta erakunde sendoak. Erakunde efikaz, arduratsu eta inklusiboak maila guztietan. 16.5. Ustelkeria eta eroskeria murriztea. 16.6. Erakunde efikaz, arduratsu eta gardenak. 16.7. Erabaki inklusiboak, partizipatiboak eta gardenak. 16.10. Informaziorako sarbide publikoa. 16.b. Garapen jasangarriaren aldeko lege eta politika ez-diskriminatzaileak. | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| 17. GJHa. Helburuak lortzeko aliantzak. | | | | | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | | ✓ | | | ✓ |

17. taula. *GBPGDPE 2030*aren formulazio estrategikoaren eta Europa Digitalaren Programaren arteko lotura (2021-2027).

| Europa Digitala Programaren jarduera-eremuak (2021-2027) | Kudeaketa- eta antolaketa-kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrentzako arreta | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Errendimenduaren ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta lankidetzak |
|--|-----------------------------------|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|-------------------------|--------------------|----------------------|------------|-----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-------------------------------|
| Subiranotasun digitala | | | | ✓ | | | ✓ | | ✓ | ✓ | | | | | | |
| Zerbitzu digitalak | ✓ | | ✓ | ✓ | | | | ✓ | ✓ | | | | | | | |
| Adimen artifiziala | | | | | | | ✓ | | ✓ | ✓ | | | | | | |
| Teknologia bideratzaileak | | | | | | | ✓ | | ✓ | | | | | | | |
| Konektagarritasuna | | | | | | | ✓ | | ✓ | | | | | | | |
| Zibersegurtasuna | | | | | | | ✓ | | ✓ | | | | | | | |
| Europako identifikazio digitala | | | | | | | | | ✓ | | | | | | | |
| Osasun elektronikoa (*) | | | | | | | | | ✓ | | | | | | | |
| Gaitasun digitalak eta hezkuntza (*) | | | | | | | | | ✓ | | | | | | | |
| Justiziaren digitalizazioa (*) | | | | | | | | | ✓ | | | | | | | |

(*) *GBPGDPE 2030*aren politika sektorialeko buruzko ekimenak (osasuna, hezkuntza, justizia, etab.), 2. eranskinean jasotzen dira.

18. taula. *GBPGDPE 2030*en formulazio estrategikoak XII. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin duen lotura

| Gobernu-programa Ardatzak Jarduketa-arloak Konpromisoak | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuen gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkarlana |
|--|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|--------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-----------------------------|
| II. ardatza: Pertsonak. Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetzeta eta giza eskubideak | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 13. arloa. Genero-berdintasuna | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 95. konpromisoa: Balio-aldaketa eta emakumeen eta neskatuen ahalduntzea sustatzea. | | ✓ | | | ✓ | | | | | | | | | ✓ | | ✓ |
| 96. konpromisoa: Sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurkako politikak sustatzea. | | ✓ | | | | | | | | | ✓ | | | | | |
| 18. arloa. Kultura, euskara eta kirola | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 118. konpromisoa: Euskararen ezagutza handitzea eta, batez ere, euskararen erabileran eragitea, eremu soziokulturalean, ekonomikoan, digitalean eta sektore publikoan. | ✓ | | ✓ | | ✓ | | | ✓ | ✓ | | | | | ✓ | ✓ | ✓ |
| 119. konpromisoa: Aurrera egitea hizkuntza-eskubideen erabateko errespetua eta hizkuntza-bizikidetzeta normalizatua lortzeko. | | | | | | | | | | | | | | | | |




| Gobernu-programa Ardatzak Jarduketa-arloak Konpromisoak | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpigiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkarlana |
|---|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|-------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-----------------------------|
| IV. ardatza: Autogobernua. Autogobernu handiagoa eta hobea | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 24. arloa. Autogobernua | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 142. konpromisoa: Autogobernuaren legegintzako garapena zabaltzea. | | | | ✓ | | | | | | | | | | | | |
| 143. konpromisoa: Erakundearteko koordinazioa. | | | | | | | | | | | | | ✓ | | | |
| 25. arloa Kudeaketa publikoa, gardena eta arduratsua | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 147. konpromisoa: Aurrerapausoak ematea bikoiztasunak saihesten dituen administrazio hurbilagoa, errazagoa eta efizientagoa lortzeko. | ✓ | | | ✓ | | | | ✓ | ✓ | ✓ | | | | ✓ | ✓ | |
| 148. konpromisoa: Administrazio irekiagoa eta gardenagoa sustatzea, kontuak ematen dituen denbora errealean. | ✓ | | | | | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | | ✓ | ✓ | ✓ |



| Gobernu-programa Ardatzak Jarduketa-arloak Konpromisoak | Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | Berdintasuna | Euskara | Araudia | Pertsonak | Antolaketa | Azpiegiturak | Herritarrei arreta ematea | Zerbitzu digitalak | Datuaren gobernantza | Plangintza | Kontu-ematearen ebaluazioa | Maila anitzeko gobernantza | Komunikazio publikoa | Gardentasuna | Parte-hartzea eta elkarlana |
|--|--|--------------|---------|---------|-----------|------------|--------------|---------------------------|--------------------|----------------------|------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|--------------|-----------------------------|
| 149. konpromisoa: Administrazio berritua eta digitala sustatzea, giza baliabide finkatu eta trebatuekin. | ✓ | | | | ✓ | | | ✓ | ✓ | | | | | | | |
| 150. konpromisoa: Baliabide publikoak arduraz kudeatzea. | | | | | ✓ | | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | | ✓ | |

4.5.2. EAEko Administrazio Orokorren plangintza estrategikoa

*GBPGDPE 2030*ek Eusko Jaurlaritzaren mapa estrategikoan duen kokapena eta gainerako plan estrategikoekin (2.4.2 atalean deskribatutakoak) duen lotura honako irudi honetan islatzen da:



24. irudia. *GBPGDPE 2030* Eusko Jaurlaritzaren mapa estrategikoan kokatzea. Hemendik egokituta: «Nafarroa 2030 Estrategia Digitala» Nafarroako Gobernuak

Bestalde, *GBPGDPE 2030*en formulazio estrategikoa ez da hor bakarrik kokatzen, 1.3.1 atalean deskribatutako gobernantza publikoko eremu desberdinen artean egon behar den lotura eta elkarreragina ere kontuan hartzen baititu.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

5. PLANAREN GOBERNANTZA



5.1. Funtsezko elementuak

GBPGDPE 2030 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ibilbide-orria da, ezaugarri hauek dituen administrazioa lortzeko: zintzoagoa, berdinzaleagoa, herritarrak ardatz dituen eta irekia, berritzailea eta emaitzetara bideratua, bere burua ebaluatzen duena eta kontuak ematen dituen. Denborari dagokionez, 2030. urtera arte iraugo du; beraz, honako **printzipio** hauetan oinarritutako gobernantza behar da:

- **Koordinazioa:** zeharkako ikuspegia. Orogen gainera, *GBPGDPE 2030* gobernu-plana da, estrategikoa, eta beraz, Eusko Jaurlaritzaren guztiak esku hartu behar du. Horrek esan nahi du sail guztietako jarduketak barne hartzen dituela, eta, horrez gain, beharrezkoa izango dela guztiek parte hartzea, ezarritako helburuak bete ahal izateko. Horregatik, koordinazio-mekanismoak jarriko dira, sinergiak aprobetxatzeko eta efikazagoak eta efizienteagoak izateko.
- **Sustapena:** lidergo erabakigarria helburuak betetzeko. *GBPGDPE 2030*en lidergo estrategikoa Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzari dagokio, eta sustatzaile-lana egingo du. Dena den, gainerako sail, organismo eta erakundeen lidergokidetasuna behar du emaitzak lortzeko eta helburuak betetzeko.
- **Gainbegiratzea eta jarraipena:** zuzendaritza eragile bat, informazio eguneratua duena. Planaren aurrerapenaren, emaitzen eta helburu eragilearen betetze-mailaren etengabeko kontrola eta jarraipena egiteko tresnak behar dira. Alde




horretatik, organo eta prozesu bereziak ezartzea aztertu da, gainbegiratze-lan zorrotza eta efizientea egingo dutenak, kudeaketa-taldeak administrazio-lan gehiegi egitera behartu gabe, baina Planaren Zuzendaritzari jardueren eta emaitzen egoeraren ikuspegi argia eta benetakoa emateko, kasu bakoitzean behar diren erabakiak eta neurriak hartu ahal izan ditzan.

- **Eguneratzea:** plana inguruko aldaketetara egokitzen da. Ezin dira zehatz ezagutu epe luzearako testuinguruaren elementuak. Araudian edo teknologian gerta daitezkeen aldaketak, azterlanen emaitzen ondorioz erabaki teknikoetan egin beharreko aldaketak, aurrekontu-aldaketak edo *GBPGDPE 2030*en aurrerapenaren emaitzak beraiek, alderdi aldakorrek izango dira, eta, ziurrenik, aldaketak eta egokitzapenak egin beharko lirarteke hasierako planteamenduan Horregatik, *GBPGDPE 2030*ek testuinguru-aldaketetara egokitzeko aukera emango dioten elementuak ditu.
- **Gardentasuna eta parte-hartzea:** Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna gauzatu behar dira *GBPGDPE 2030* prestatzean eta ezartzean.
- **Gizon-emakumeen berdintasuna:** [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen](#) 3. artikuluan jasotako printzipioek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan inspiratu dute *GBPGDPE 2030*: tratu berdina; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetzak.

Printzipio horiek gauzatzeko, hauek dira *GBPGDPE 2030*en gobernantzaren **funtsezko elementuak**:


- **Antolaketa eta kudeaketa ereduak.**
- **Administrazio barruko eta erakundearteko elkarreagin-formulak.**
- **Herritarrek parte hartzeko mekanismoak** eta [abenduarien 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak](#), 6.2 artikuluan ezartzen dituen **publizitate aktiboko** betebeharrak betetzea.



25. irudia. GBPGDPE 2030en gobernantza funtsezko elementuak.

5.2. Antolaketa- eta kudeaketa-eredua

*GBPGDPE 2030*en kudeaketan zuzenean inplikaturako pertsonak eta administrazio-organoak honako irudi honetan zehazten dira:



26. irudia. *GBPGDPE 2030* antolatzeko eta kudeatzeko eredua.



Hauek dira dagozkion eginkizunak:

| Maila | Pertsonak eta organoak | Rolak | Funtzioak |
|--------------|---|---|---|
| Estrategikoa | Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua | Lidergoa eta bultzada | <ul style="list-style-type: none"> Sail sustatzailearen maila estrategikoa gidatzea eta bultzatzea. Gobernu Kontseiluari aurkeztea plana eta horri buruzko proposamenak, onar ditzan. |
| | Erakunde Harremanetako sailburuordea | Lidergoa eta bultzada | <ul style="list-style-type: none"> Sailarteko Batzordea gidatzea eta sustatzea. Jarduteko estrategiak zehaztea. Mugarriak eta entregagaiak onartzea. |
| | Sailarteko Batzordea Zerbitzu-zuzendariak eta balioakideak | Zeharkako gainbegiratzea eta sustatzea | <ul style="list-style-type: none"> Sailarteko eragileen elkarlana koordinatzea. Ebaluazio-txostenetarako proiektu eta ekimen sektorialen jarraipen-fitxa onartzea. Jarduketa-arloen arteko sinergia posibleak baliatzea. Zeharkako ikuspegia duen jarraipena gainbegiratzea eta egitea. Aparteko berrikuspenak onartzea. |
| Eragilea | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria | Zuzendaritza, kontrola eta jarraipena | <ul style="list-style-type: none"> Batzorde Eragilea gidatzea eta sustatzea Maila eragilea koordinatzea. Gai garrantzitsuak barnean komunikatzea. Mugarriak eta entregagaiak alde aurretik baliozkotzea. Gerta daitezkeen gorabehera arruntak konpontzea. |
| | Ardatzen koordinatzaileen Batzorde Eragilea | Ardatz estrategikoak eta helburuak koordinatzea | <ul style="list-style-type: none"> Planaren egoera eta aurrerapena koordinatzea. Balitzko sinergiak aprobetxatzea. Ohiko berrikuspenak onartzea. |
| | GBPGDPE 2030en arduradun teknikoa | Planaren koordinazio teknikoa | <ul style="list-style-type: none"> Entregagaiak prestatzea. Txosten eragileak egitea. Batzorde Eragileko idazkari-lanak egitea. |



| Maila | Pertsonak eta organoak | Rolak | Funtzioak |
|-------------|---|--|---|
| | Ardatzen arduradunak | Ardatz bakoitzaren helburu eta ekimenen aurrerapena koordinatzea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Batzorde Eragileari planaren, helburu eragileen eta horien inguruko ekimenen aurrerapenen berri ematea. ▪ <i>GBPGDPE 2030</i>en eguneratze eta berrikuspen arruntak gauzatzea. ▪ Batzorde Eragileari aparteko berrikuspenak eskatzea. ▪ Entregagaietan eta jarraipen- eta ebaluazio-txostenetan sartu beharreko ardatzaren informazioa prestatzea. |
| Betearazlea | Helburu eragileen arduradunak | Helburuak lortzeko ekintzak gauzatzea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Helburuak lortzeko beharrezkoak diren jardueren jarraipena eta kontrola proposatzea, gauzatzea eta egitea. ▪ Ardatzen arduradunekin koordinatzea. ▪ Ardatzen arduradunei informazioa ematea, haien funtzioak gauza ditzaten. |
| | Inplikaturako administrazio-organotako pertsonak | Ekimenak gauzatzea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekimenak hedatzea eta gauzatzea. ▪ Ekimen eta proiektu sektorialen jarraipenen fitxak betetzea, jarraipen- eta ebaluazio-txostenetarako. ▪ Ardatzetako arduradunekin eta sailek, organismoek eta erakundeek izendatutako pertsonekin hitz egitea. ▪ Jarraipen- eta ebaluazio-txostenak egitea. |

19. taula. *Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030*en kudeaketa-erederuko pertsonen eta administrazio-organoen eginkizunak.



5.3. Koordinazio eta lankidetzarako formulak

5.3.1. Barne-koordinazioa

*GBPGDPE 2030*en antolaketa- eta kudeaketa-ereduari buruzko aurreko atalean jasotzen den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko sailak, organismoak eta erakundeak plana zeharka gainbegiratzeko eta sustatzeko Sailarteko Batzordeko kide dira.

Helburu eragileak lortzeko ekimenak eta ekintzak gauzatzen parte hartzen duten pertsonen eta sail, organismo eta enteez izendatutako pertsonen solaskide nagusiak dira ardatzean ardatzeko arduradunak, lanak era efikazean koordinatzeko.

5.3.2. Koordinazioa beste administrazio publiko batzuekin

*GBPGDPE 2030*en ekimen batzuk beste administrazio publiko batzuekin koordinatu beharko dira beharbada, bereziki gobernu digitalaren eta gobernu irekiaren eremuetan.

Administrazioen arteko lankidetzak ezinbestekoa da **administrazio elektronikoaren eta zerbitzu digitalen** esparruan. Alde batetik, elkarreragingarritasun-zerbitzuak martxan jarri eta datu-trukeak egiteko; horrela, prozedura administratibo ziurtatuetan interesdunei ez zaizkie eskatu beharko dagoeneko edozein administrazio publikok gordeta dituen datuak. Eta, bestalde, aukera asko daudelako azpiegitura teknologikoak partekatzeko eta zerbitzu komunak izateko; horrela, herritarrei zerbitzu hobea emango



zaie eta gure administrazio publikoek eskura dituzten baliabideak modu efizienteagoan erabiliko dira.

Gainera, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiekin elkarlanean, asko lagun diezaiekeela tokiko erakundeei haien zerbitzu elektronikoak garatzeko dituzten zailtasun teknikoak eta ekonomikoak gainditu ditzaten eta, beraz, baldintza legaletara egokitu daitezten. Hortaz, administrazioek elkarlanean aritzeko aukera asko dituzte, bai eta sinergiak finkatzeko eta bateratzeko ere EAeko administrazioak egiten ari diren aldatzeko ahaleginetan. Elementu hori aintzat hartu beharko da berrikuntza publikoko edozein ekimen martxan jartzen denean EAeko administrazio orokorraren arloan, *GBPGDPE 2030*en ekintzen eta proiektuen hartzaile nagusia baita.

Gainera, gai horretan parte hartzen jarraituko da **Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektorialean**, eta, EAEn, erakundearteko lankidetzat [Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren](#) barruan bideratuko da eta, zehazki, Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialean eta batzorde horrek administrazio-arloan dituen lantaldeetan.



5.4. Gardentasuna eta parte-hartzea

GBPGDPE 2030 prestatzean (ikusi 1.2 atala), **partaidetza- eta kontraste-prozesu** bat ireki da herritarrekin, bai pertsona fisikoekin, bai juridikoekin, irekia.euskadi.eus gobernu irekiaren atariaren bidez.

Prozesuaren helburuak hauek izan dira: planaren zirriborroa kontrastatzea eta, hala badagokio, ildo eta eduki nagusiak balioztatzea, proposamenak jasotzea eta hedapenerako elementu kritikoak identifikatzea.

Prozesuaren faseak honako hauek izan dira:

- Aurkezpen-fasea: 2021eko ekainaren 14tik 30era.
- Eztabaida- eta ekarpen-fasea: 2021eko uztailaren 1etik irailaren 30era.
- Ondorioen fasea: 2021eko urriaren 1etik urriaren 30era.

Horretarako ezarritako epea amaituta, eta ekarpen zehatzik egin gabe, prozedura izapidetzen jarraitu da, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onar dezan eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrera bidal dadin, Jaurlaritzaren Kontseiluak XII. Legegintzaldirako plan estrategikoak onartzeko hartutako erabakiarekin bat etorriz. *Tramitagune - PLATEA* izapidetze elektronikorako plataforma komuna erabili da horretarako.

Eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek, oro har, *GBPGDPE 2030* ezartzeko orduan izango duten parte-hartzeari dagokionez, honako hauek aurreikusiko dira: kasuan kasuko ekimenen lankidetzak-espazioak, informazioa eta dokumentazioa



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

elkarrekin kudeatzeko lankidetzaz-espazio espezifikoak, lan-elementu komunak, hala nola foroak, blogak, egutegiak, iragarkiak, albisteak eta abar. Hala ere, elkarlanean aritzeko tresna horiek ez dute eragotziko parte hartzeko bide tradizionalak ere erabiltzea, «arrakala digitala» delakoa ekiditeko.



5.5. Aldaketaren kudeaketa

*GBPGDPE 2030*en helburu eragileak lortzeko, funtsezkoa da pertsonak kontuan hartzea, haien antolaketaren eta portaeraren kultura-alderdiak oinarritzekoak baitira.



27. irudia. Aldaketaren kudeaketa ekimen berritzaileetan.



*GBPGDPE 2030*eri lotutako aldaketaren kudeaketak bi **dimentsio** ditu: alde batetik, zeharkako dimentsioa, plan osoari eragiten diona, eta, beste aldetik, ardatz bakoitzaren dimentsio espezifiko. Gainera, zenbait kasutan, aldaketaren kudeaketaren hirugarren dimentsio espezifiko bat ere beharko da ekimen zehatz batzuetarako.

Ardatz bakoitzaren zeharkako dimentsiorako zein dimentsio espezifikorako, **oinarrizko hiru alderdiri** buruzko jarduketak hartu behar dira kontuan: komunikazioa, prestakuntza eta motibazioa/lidergoa.

Tresna eta kanal hauek erabiliko dira:

- Aurkezpenak.
- *Jakina*, intranet korporatiboa.
- *GBPGDPE 2030* bloga.
- Sare sozialak.
- *euskadi.eus* atari korporatiboa.
- *Jakingune*, ezagutzaren kudeaketa partekaturako gunea.



5.6. Jarraipena eta ebaluazioa

5.6.1. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

Egungo ezaugarrietako bat ziurgabetasuna eta aldaketen abiadura da. Testuingurua eta ingurunea jada ez dira duela urte batzuk bezain egonkorak eta epe luzera erraz aurreikus daitezkeenak. Zikloak laburragoak dira eta hasiera batean aurreikusitako norabideak aldaketak izan ditzake.

Gainera, arreta jarri behar da premia berriak, tresna edo hasierako diagnostikoan aurreikusi gabeko egoera detektatzeko. Horregatik, komeni da kudeaketa estrategikoa eta berrikuntza-kudeaketa uztartzea. Berrikuntza-kudeaketa denbora gutxian eta emaitzekin aplikatu daitezkeen ideia berriak lortzeko gaitasuna da.

Hori dela eta, ebaluazioak etengabea izan behar du, eta hasiera batean ezarritako neurriak eta jarduerak zuzendu eta doitu ahal izango dira, ingurune aldakorrera egokitzeko eta horren arabera doitzeko.


XII. Legegintzaldirako plan estrategikoak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak babestuko du plana eta egingo du haren jarraipena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, *GBPGDPE 2030*en sustatzaileak, egiten diren **jarraipen- eta ebaluazio-txostenak** bidaliko dizkie Lehendakaritzako Koordinazio



Zuzendaritzari eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza eta Aurrekontu Zuzendaritzari:

- **Urteko jarraipen-txostenak**, hurrengo urteko urtarrilean, helburu eragileen betetze-mailaren aurrerapena aztertzeko.
- **Legegintzaldien amaierako tarteko ebaluazio-txostenak** (2024an eta 2028an, ziurrenik).
- **Amaierako ebaluazio-txostena**, planaren indarraldia amaitu ondoren, 2031ko urtarrilean.



28. irudia. *GBPGDPE 2030*en jarraipenaren eta ebaluazioaren aldizkakotasuna

Txostenak 1. eranskinetako adierazle-sisteman eta aginte-koadroan oinarrituko dira, eta **irismenean** honako hauei buruzko informazio garrantzitsua jasoko dute:

- Eremu estrategikoen eta ardatzen egoera orokorra.
- Helburu eragileetan eta horiei lotutako erreferentziako ekimenetan egin den aurrerapena.
- Lortutako emaitza nagusiak eta erabilitako baliabide ekonomikoak (efikaziaren eta efizientziaren ebaluazioa).
- Ekimenak egitean edo ezartzean izandako gorabehera azpimarragarrienak eta emaitzetan izan lezaketen eragina.
- Inpaktuaren zenbatespenaren proiektzioa, *GBPGDPE 2030*erako aurreikusitako azken emaitzekin alderatuta.



- Planaren alderdi ekonomikoen jarraipena egitea, indarrean dagoen bitartean kostu jakin batzuk birbideratu ahal izateko, eta, efikaziaren eta efizientziaren azterketa kritiko baten bidez, bideratutako gastuan efizientziarik ezak identifikatu ahal izateko. Horrela, kontzeptu horiengatik kostua hobetzen bada, ekintza publikoaren babesa jaso ahal izango du, eta, beraz, helburu horretarako ezartzen diren baliabide publikoen kudeaketaren hobekuntza optimizatuko da.
- 2. eranskinean jasotzen diren beste plangintza estrategiko batzuetan (EAEko Transformazio Digitalaren Estrategia 2025 eta Euskadi Next 2021-2025) aurreikusitako ekimen eta ekintzak zuzenean lotuta daude planaren helburuak lortzearekin, eta txostenek lanen, mugarren eta produktuen egoera jasoko dute, bai eta Sailarteko Batzordeak zehaztutako fitxaren formatuko aurreikuspenak ere, Batzorde Eragileak proposatuta.

GBPGDPE 2030 ingurunean gertatzen diren aldaketetara egokitzen dela segurtatzeko, **berrikuspen- eta eguneratze-prozedura** hauek ezartzen dira:

- **Aldaketa arruntak:** Ekimenen ohiko kudeaketaren berezko aldaketak, nahiz eta garrantzitsuak izan eta helburu eragileen aurrerapenari eragin diezaioketen, ez dira inpaktu handikotzat jotzen. Besteak beste, honako aldaketa hauek izango dira:
 - Hitzemandako mugarriak edo entregagaiak aldatzen ez dituzten erreferentziako ekimenetako aldaketak.
 - Ekimen berriak sartzea helburu eragileei dagokienez.
 - Adierazle berriak sartzea.
 - Atzerapenak eta bestelako gorabeheren bat gertatuz gero plangintza eguneratzea.

Aldaketa horiek ardatzaren arduradunari eskatu ahal izango zaizkio, eta hark Batzorde Eragileari jakinarazi ahal izango dizkio, *GBPGDPE 2030*ko koordinatzaile teknikoaren bidez. Koordinatzaile teknikoak edukiko ditu planaren bertsio eguneratuak.

- **Ezohiko aldaketak:** Aldaketa handiagoak edo garrantzitsuagoak, hala nola:
 - Helburu eragileen aldaketak.



- Ekimenen irismenean gerta daitezkeen aldaketa garrantzitsuak (esku hartzen duten erakundeak, egin beharreko jarduerak...).
- Aurrekontua aldatzea.
- Administrazio-organoeetan eta/edo ardatzen arduradunetan gerta daitezkeen aldaketak.

Ardatzaren arduradunak aldaketa horiek eskatu ahal izango dizkio Batzorde Eragileari, *GBPGDPE 2030*eko koordinatzaile teknikoaren bidez. Batzorde Eragileak proposamena aurkeztuko dio Planaren Sailarteko Batzordeari, onar dezan.

– **GBPGDPE 2030** berrikustea:

Planaren eremu estrategikoetan edo ekonomikoetan funtsezko aldaketak eragiten dituzten gorabeherak Gobernu Kontseiluari jakinaraziko zaizkio, Koordinazio Zuzendaritzak, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eta Aurrekontu Zuzendaritzak txostena egin ondoren.

5.6.2. Adierazleak eta aginte-taula

GBPGDPE 2030 emaitzetara bideratuta dago, eta, beraz, helburu eragile neurgarriak eta zenbakarriak ezarri dira, erreferentziako ekimenen aurrerapenaren eta eraginkortasunaren jarraipena egin ahal izateko.

Jarraipen eta ebaluazio hori 1. eranskineko adierazle-sistemaren bidez egingo da, eta estrategia eta garatutako ekimenak egokiak diren egiaztatzeko aukera emango du, helburu eragileek behar bezala aurrera egiteko eta horiek lortzeko.

Adierazleen sistemak aurrez ezarritako helburuen jarduera-adierazleak eta emaitza-adierazleak, efikaziarenak eta efizientziarenak barne hartzen ditu, bai eta inpaktu-adierazleak ere, kasuaren arabera.


Adierazleek, gutxienez, **baldintza** hauek bete behar dituzte:

- **Neurgarriak** izan behar dute; horixe da ebaluazio-tresna bihurtzeko oinarritzko baldintza.
- Termino **erlatiboetan** diseinatu behar dira, ez termino absolutuetan, hau da, aurretik ezarritako balio bati erreferentzia egin behar diote.



- Helburuen aurrerapen-maila neurtzen lagundu behar dute, kostuak kontuan hartuta (**efizientzia**) eta denbora eta baliabide finantzario, giza baliabide eta baliabide materialen arabera kostuak aztertuta, desbideratzeak zuzentzeko, halakorik dagoenean, eta hurrengo plangintza-aldia diseinatzeko tresna izan daitezten.
- **Genero-ikuspegia** txertatu behar dute, eta, horretarako, honako hauek egingo dira:
 - Adierazleek pertsonen dimentsio desberdinei buruzkoak direnean, sexuaren arabera bereiztea: bai zerbitzuen hartzaileez edo erabiltzaileez ari garenean, bai administrazioko langileak, laguntzaileak, kanpoko eragileak, adituak... aipatzen ditugunean.
 - Genero-adierazleak txertatzea, emakumeen eta gizonen berariazko egoera eta genero-harremanei dagokienez denboran izandako aldaketa sozialak erakusteko (feminizazio-indizeak, genero-arrakalak, etab.).

Adierazleen sistemak barne hartzen ditu bai aurrez ezarritako helburuen jarduera- eta emaitza-adierazleak, bai efikazia- eta efizientzia-adierazleak, bai inpaktu-adierazleak, kasuaren arabera:



29. irudia. Ebaluazioen xedearen sekuentzia

1. Politika publikoen eraginaren ebaluazioan aurrera egiteko beharrari dagokionez, erronka hori planeko 4.3 ardatzean jorratzen da, zeharkako izaerarekin EAEko Administrazio Publiko osorako. Horrez gain, Gobernantza Publikoaren arloari dagokionez, Planak *Euskadiko Gobernantza Publikoaren Adierazle Sistemaren* ekimena barne hartzen du. Aurrekoa gorabehera, agintetulan esparruei eta ardatzei lotutako inpaktu-adierazleak adierazi dira, Planaren ebaluazio finalista egin ahal izateko. Adierazle horiek 3. eranskinean jasotzen dira.



2. 2.1. ardatzaren (Araudia) helburuei dagokienez (2025erako konprometituak), behin lege-testuak onartuta helburu horiek bete ondoren eta legegintzaldi bakoitzaren amaieran planaren tarteko ebaluazio-ariketa baten testuinguruan, indarrean dagoen aldia kontuan hartuta, indarrean sartzeak eta erregulazio horien betetzeak izango duen eragina ebaluatuko duten adierazle berriak diseinatzeko aukera aztertuko da, 2030erako helburu gisa urte horretarako proposatzen diren helburu arauemaileak kontuan hartuta.
3. Planaren adierazleen artean (kasu bakoitzean inplikaturako eremuak eta ardatzak), *XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren betearazpenaren jarraipena egiteko Adierazleen Sistemaren* sartutakoak sartu dira, plan honen jarduketa-eremuei dagozkienak. Era berean, esplizituki adierazten dira planaren jarduerak, sistema horretan jarduera- eta emaitza-adierazle gisa erabil daitezkeenak. Horri dagokionez, adierazle horiek berrikusiko dira plana indarrean dagoen aldian gertatzen diren legegintzaldi-aldaketetan.
4. Bestalde, Plana koherentea da *Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2023-2026 Estatistika Planaren* proposamenarekin²¹, eta honako hauek sartzea aurreikusten da:
 - a. EUSTAT erantzule den **informazioaren eta komunikazioaren teknologiei (IKT) buruzko estatistika-eragiketa ofizialak:**
 - 220126. Informazioaren Gizartearen egoera: EAEko informazioaren gizartearen gai-eremuari buruzko estatistika-eragiketen emaitzen analisia aurkezten duen txostena sortzen du.
 - 222141. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta Administrazioan: helburua administrazio publikoan²² informazioaren eta komunikazioaren teknologietako ekipamenduak ezagutzea da, Eurostaten eragiketa baliokideen metodologiari jarraituz. Helburuetako bat da, halaber, ekipamendu horien erabilera, batez ere Internetena, eta merkataritza elektronikoen intentsitatea eta ezaugarriak neurtzea.

²¹Zerrendak aldaketak izan ditzake 2023-2026 Euskal Estatistika Plan berriaren edukiaren arabera.

²² Enpresentzako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestan jasotako eskariaren adierazleak (enpresen eta administrazio publikoen arteko elkarreraginak) hedatzeko eragiketa gisa eratzten da.



- b. Euskal sektore publikoari buruzko estatistika-eragiketa ofizialak.**
- 200190. EA Eren zerbitzuko langileen estatistika-informazioa (Funtzio Publikoaren Zuzendaritza)
- c. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren erregistroak eta haien aprobetxamendu estatistikoa:**
- Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa.
 - Ahalordetzeen erregistro elektronikoa.
 - Gaitutako funtzionarioen erregistro elektronikoa.
 - Erregistro Elektroniko Orokorra.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileen erregistroa.
- d. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bere gain hartzen dituen estatistika ofizialak, hobekuntzak eta proposamen berriak 2023-2026an landuko dira.**
- 223208 - Zerbitzu publiko elektronikoen estatistika.
 - 203022 - Atari publikoen direktorioa.
 - 203023 - Zerbitzu eta prozedura publiko elektronikoen direktorioa.
 - 222144 - Sofistikazio elektronikoen indizea.
 - 222143 - e-Administrazioaren barometroa.
 - 999105 - Sailaren estatistika-ataria.
 - 153020 - Gobernantza-adierazleen multzoa - BIG.
 - Sare sozialak EA Eko erakunde publikoetan.
 - Gobernuaren Kalitateari buruzko Inkesta (konfiantza-adierazleak gobernu-ekintzan: plangintza, aurrekontua, gastuak, zergak, aberastasunaren birbanaketa, etab.; konfiantza-adierazleak eta kudeaketa publikoaren balorazioa, oro har, eta herritarrei eta enpresei ematen dizkien zerbitzuena; administrazio publikoen eskumeneko



azpiegitura nagusien balorazio-adierazleak; elkarlaneko
governantzaren balorazio-adierazleak.

e. Estatistika ofizialean sartuta ez dauden lan estatistikoak.

- Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboaren ustiapena eta barne-hedapena (hiru hilean behin, urteko txosten bat eginda).

5.6.3. Koordinazio eta jarraipenerako tresnak

Officek hodeian duen Sharepoint aplikazio informatikoan elkarlanerako, ezagutzaren kudeaketa partekaturako eta *GBPGDPE 2030* kudeatzeko gune bat sortu da. Bertan, honako hauek daude:

- *GBPGDPE 2030*en dokumentuen liburutegia.
- Zereginen plangintza eta exekuzio-egoera, horien ardura duten pertsonak eta organoak esleituta.
- Formulazio estrategikoa eta aginte-taula adierazle-sistemarekin.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

6. OINARRI EKONOMIKOAK



Atal honen helburua da *GBPGDPE 2030*ek ekonomia eta aurrekontuaren arloan duen garrantzia ezagutarazteko informazio ekonomikoa ematea, haren izaerari eta [XII. legegintzaldirako Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda eta horien izapidetze-prozedura onartzen dituen Erabakiari](#) erantzunez, Gobernu Kontseiluak hura onar dezan EAEko sektore publiko osoak gobernantzari, berrikuntza publikoari eta gobernu digitalari buruz jarraitu beharko duen erreferentetzat.

GBPGDPE 2030 administrazio-ekimena administrazio publikoen plangintza-jardueraren esparruan sartzen da, eta, beraz, izaera programatikoa du funtsean, hirugarrenetik eskubiderik edo betebeharririk sortu gabe; hori administrazio-jardueraren beste tresna batzuei dagokie, hala nola araugintza-jarduerari. Plangintza-jarduera horrek, berez, ez du administrazio-organoen beste erabakitze-bide batzuei dagokien ahalmen loteslerik; hau da, ez da agindu orokor batzuk (antolaketakoak ere ez) edo agindu exekutibo zehatz bat ezartzera bideratutako araugintza-jarduera bat: bertan inplikaturako administrazio-organoen etorkizuneko jarduera orientatzera eta antolatuzera bideratuta dago.

Dena den, gobernantzaren, berrikuntza publikoaren eta gobernu digitalaren arloan gobernuak dituen borondatearen eta konpromisoen adierazpena da *GBPGDPE 2030*, eta, beraz, ezinbesteko erreferentea da gobernantzaren, berrikuntza publikoaren eta gobernu digitalaren arloan ekimenak dituzten administrazio-organo guztientzat; izan ere, jarduketa-arlo horiei buruzko ekimenak jasotzen dituzten beste plan batzuk ez bezala, legegintzaldiko plan estrategikotzat hartzen da.



Bestalde, *GBPGDPE 2030* epe ertain eta luzeko plangintzarako erreferentzia bat da, eta, beraz, epe horretan erabilgarri egongo diren baliabide ekonomikoak ezin dira guztiz zehaztu.

*GBPGDPE 2030*en izaera programatikoak esan nahi du helburuak gauzatzeko ekimenak eta ekintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzerako dauden aurrekontu-erabilgarritasunaren mende egongo direla.

Planaren helburuak lortzeko ekimenetako batzuei baliabide propioekin helduko zaie. *GBPGDPE 2030*en helburuak lortzeko ekimen eta ekintza batzuek kanpoko baliabideak erabiliko dituzte, eta zerbitzu digitalak emateko egungo ereduari eutsiko zaio, bitarteko propioei egindako enkarguen bidez eta, beste gai batzuetan, zerbitzu horiek hitzarmen edo kontratuen bidez fakturatuta.

Zerbitzu digitalen eta administrazio elektronikoko plataformen, gardentasunaren eta Interneteko presentziaren arloko helburuei dagokienez, IKT zerbitzuak eta horien prezioak aldakorrak dira.

Garrantzi berezia dute EAEko Administrazio Orokorren bitarteko propioei egindako enkargu hauek:

- a) EJIE, S.A. bitarteko propioari egiten zaiona, 36/2020 Dekretuaren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako baldintzetan. Xedapen horren arabera, sozietate publiko horrek, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek bitarteko propio pertsonifikatua den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzu informatikoak eta teknologikoak emango dizkie, bai eta haren sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeei ere, bateragarritasuna, komunikagarritasuna eta segurtasuna bermatzeko. Horrez gain, informazioaren zintzotasuna, fidagarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dizkie informazio eta komunikazio teknologien bidez. Agindu horrek agerian uzten du tresna hori EAEko sektore publikoaren IKT jardueraren funtsezko gunea dela.
- b) IZENPE, S.A.ri egiten zaiona.

Plana gauzatzeak eragingo dituen gastuen kuantifikaziora hurbiltzeko edo horiek zenbateteko, honako elementu hauek har daitezke erreferentziatzat:



- *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020*, aurreko planaren balantzea. (Ikus *GBPPE 2020ren* inbertsio ekonomikoen balantzearen taula, 3.2 atalean).
- Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 29ko Erabakia, EJIE SAri 2021erako egindako enkargu orokorra onartzen duena.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, IZENPEri 2021erako egindako enkargu orokorra onartzen duena.
- *GBPGDPE 2030*en eremuei lotutako jarduketak finantzatzeko 2021eko ekitaldiko aurrekontu-partidak.

Hurrengo taulan, *GBPGDPE 2030* indarrean dagoen urteetan ekitaldi ekonomiko bakoitzerako Planaren urteko zenbatespen baten laburpena jasotzen da, 1. eranskineko helburuei dagokienez. Zifra horiek handitu egingo dira 2. eranskinean jasotzen diren sail, organismo eta erakundeetan aurreikusitako ekimen sektorialak gauzatzearen arabera.

Oinarri horiek birmoldatu ahal izango dira, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuaren emaitzen arabera (5.6 atala).

20. taula. GBPGDPE 2030aren aurreikuspen ekonomikoak.

| Ardatz estrategikoa | Aurrekontua (€) | | | | | | | | | |
|---|-----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|----------------|
| | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 | 2030 | Guztira |
| Kudeaketa- eta antolaketa-kultura | 113.000 | 150.000 | 175.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 1.638.000 |
| Emakumeen eta gizonen berdintasuna | 50.000 | 55.000 | 75.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 780.000 |
| Euskara, lan- eta zerbitzu-hizkuntza | 75.000 | 100.000 | 100.000 | 125.000 | 125.000 | 125.000 | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 1.100.000 |
| Araudia | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 180.000 |
| Pertsonak antolatzeko eta kudeatzeko sistema | 0 | 50.000 | 75.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 100.000 | 725.000 |
| Antolaketa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Azpiegiturak ²³ | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Herritarrentzako arreta integrala eta kanal anitzekoa | 702.000 | 716.040 | 730.360,80 | 744.968,02 | 759.867,38 | 775.064,72 | 790.566,02 | 806.377,34 | 822.504,89 | 6.847.749,16 |
| Zerbitzu digitalak | 10.391.808 | 10.610.547,04 | 10.824.274,89 | 11.111.964,58 | 11.363.884,96 | 11.670.312,94 | 11.956.533,77 | 12.282.841,23 | 12.619.537,90 | 102.831.705,31 |
| Datuen eta informazioaren gobernantza | 256.100 | 261.222 | 266.445 | 271.774 | 277.210 | 282.754 | 288.409 | 294.117 | 300.061 | 2.498.092 |
| Plangintza | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ebaluazioa eta kontu ematea | 150.000 | 155.000 | 250.000 | 600.000 | 620.000 | 640.000 | 660.000 | 680.000 | 700.000 | 4.455.000 |
| Maila anitzeko gobernantza | 50.000 | 50.000 | 50.000 | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 65.000 | 65.000 | 65.000 | 525.000 |

²³ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoak ez du aurrekontu espezifikorik, gauzatu beharreko ekintzak ohiko aurrekontuarekin ordainduko baitira. Aurreikusitako proiektu bakoitza aurrekontu-maila baten barruan dago definituta, behar diren baliabide ekonomikoen arabera.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

| Ardatz estrategikoa | Aurrekontua (€) | | | | | | | | | |
|---|-------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|-----------------------|
| | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 | 2030 | Guztira |
| Komunikazio publikoa | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 200.000 | 1.800.000 |
| Gardentasuna | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 70.000 | 70.000 | 70.000 | 70.000 | 70.000 | 70.000 | 600.000 |
| Herritarren parte-hartzea eta lankidetzak | 136.000 | 140.000 | 140.000 | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 150.000 | 1.316.000 |
| Guztira | 12.203.908 | 12.567.809,04 | 12.966.080,69 | 13.753.706,59 | 14.045.962,33 | 14.393.131,67 | 14.750.508,79 | 15.118.335,56 | 15.497.103,79 | 125.296.546,47 |



Horregatik guztiagatik, eta laburbilduz, ohar hauek egin behar dira:

- a. *GBPGDPE 2030* aplikatzeak eragin ditzakeen aurrekontu-beharrek ez dakarte, inola ere, aurrekontu-konpromisorik.
- b. *GBPGDPE 2030* aplikatzeagatik behar diren baliabideak egokitu egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzerako esleitzen diren aurrekontu-kredituetara, ekitaldi horiek egiteko urteko aurrekontu-jarraibideen arabera.
- c. Behar gehigarri oro finantzatzeko, kasuan kasuko sailen edo erakundeen aurrekontuetan bere garaian zeuden zuzkidurak berresleitu beharko dira.
- d. Planaren helburuak lortzeko neurriak eta ekimenak dagozkien tresna juridikoen bidez landu beharko dira (arau-xedapenak, dirulaguntzen deialdiak, administrazio-ebazpenak, kontratazio-espedienteak eta/edo ohiko tresnak...), baita erakundeen lurralde-mailen bidez eta haien izaerari dagozkion prozeduren eta izapideen bidez ere, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera, eta betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailen arteko eskumen-banaketa errespetatuz.
- e. Ez da aurreikusten 5.2. atalean deskribatutako topaketa-organoen funtzionamenduak eragindako gasturik inplikaturako eragileen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako.
- f. Jarraipen- eta ebaluazio-txostenek (5.6. atala) gastuaren ikuspegia jasoko dute, eta helburu horretara bideratutako baliabideak berriz bideratu edo optimizatu ahal izango dira.



ardatz

Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. ERANSKINA. Gobernantza publikoaren eta gobernu digitalaren zeharkako ikuspegia

1. ERANSKINA. Gobernantza publikoaren eta gobernu digitalaren zeharkako ikuspegia. (GBPGDPE 2030en aginte-koadroa: Helburuak eta adierazleak).

Izartxo (*) duten adierazleak finalistak edo inpaktukoak dira.
 HHZDZ= Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.
 DBO= Euskadiko datuak babesteko ordezkaria.
 IKTZ= Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza.

IVAP = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
 BPLU = Berrikuntza Publikorako Laguntza Unitatea.
 ZEU = Zerbitzu Elektronikoen Unitatea.
 EHS= Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza

I. eremu estrategikoa: Gobernu zuzena, berdinzalea eta elebiduna

| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|--|--|---|-----------------------------------|--|-------------------|-----------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| I.1. Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | I.1.1. Kudeaketa Publikoa Aurreratuaren Eredua | Kudeaketa Aurreratuaren Eredua Administrazio Orokorrean eta haren administrazio instituzionalean ezartzeko bidean aurrera egitea, <i>Aurrerabide</i> programako tresnen bidez: diagnostikoak, ezarpen-proiektuak, kontraste bidezko autoebaluazioak eta <i>Aurrerabide</i> Kluba. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Kudeaketa Aurreratuaren Eredua ezartzeko <i>Aurrerabide</i> programa berria onartzea eta abian jartzea. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | (*) Kudeaketa aurreratuaren diagnostiko eguneratuak dituzten gobernu-unitateak. | % | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 15 | 50 | 100 |
| | | | | Sailetan abian jarritako ezarpen-proiektuak. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 70 | 120 |
| | | | | Unitateetan egindako kontraste bidezko autoebaluazioak. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 13 | 30 |
| | | | | <i>Aurrerabide</i> Klubaren jarduerak eta kideen diagnostiko, jarraipen eta kontraste bidezko autoebaluazioetako parte-hartze kopurua. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 150 | 270 |
| (*) <i>Aurrerabide</i> programan parte-hartze aktiboa duten gobernu-unitateak. | % | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 5 | 50 | 100 | | | | |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---|----------------|---|---------------------------------------|--|-------------------|--|---------------|--------------------|--------------------|
| I.1. Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | I.1.2. Balioak | Gobernuaren kalitateari eustea eta, hala badagokio, kalitatea handitzea (eraginkortasuna zerbitzuak ematean, inpartzialtasuna zerbitzu horiek ematean eta ustelkeriarik eza) ²⁴ . | Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia | (*) Gobernuaren kalitate-indizea. | Indizea | Göteborgeko Unibertsitatea | 0,969 | 1,05 | 1,1 |
| | | Herriko ²⁵ gobernuarekiko konfiantza handitzea. | Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia | (*) Eusko Jaurlaritzan konfiantza izateko joera duten pertsonak. | % | Euskobarometro | 76 | 78 | 82 |
| | | Demokraziak herrialdean ²⁶ duen funtzionamenduari buruzko iritzia hobetzea. | Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia | (*) Euskadiko demokraziaren funtzionamendurekin "oso pozik" edo "nahiko pozik" dauden pertsonak. | % | Euskobarometro | 53 | 57 | 60 |
| | | EAEko Administrazio Publikoa eraldatzeko beharrezkoak diren balio berriak identifikatzea, finkatzea eta hedatzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | EAEko Administrazio Publikoa eraldatzeko balio berrien mapa. Balio publikoei buruzko hasierako inkesta. | Bai/Ez Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez Ez | Bai Bai | Bai Bai |

²⁴ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren E50b egiturazko adierazlea.

Eskuragarri dauden neurrian, *Gobernuaren Kalitate Inkestako* adierazleak sartuko dira: Gobernuaren ekintzarekiko konfiantza-adierazleak: plangintza, aurrekontua, gastuak, zergak, aberastasunaren birbanaketa, etab.; konfiantza-adierazleak eta kudeaketa publikoaren balorazioa, oro har, eta herritarrei eta enpresei eskaintzen dizkien zerbitzuetan; administrazio publikoen eskumeneko azpiegitura nagusien balorazio-adierazleak; elkarlaneko gobernantzaren balorazio-adierazleak. (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Estatistika Plana 2023-2026).

²⁵ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren Adierazle Sistemaren E50a egitura-adierazlea.

²⁶ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren S50 sektore-adierazlea.



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---------|------|--|-----------------------------------|---|-------------------|-----------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| | | | | Balio-mapa berrikustea, hala badagokio, hasierako inkestaren ondoren. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Balio publikoei buruzko 2. Inkesta. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Ez | Bai |
| | | | | Transformaziorako balioak ezagutu eta horiekin identifikatzen diren EAeko administrazio publikoko langileen ehunekoa. | % | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | - | 50 | 75 |
| | | | | Balio-mapa berrikustea, hala badagokio, 2. inkestaren ondoren. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Ez | Bai |
| | | EAeko Administrazio Publikoko langileen artean belaunaldien arteko elkarrizketarako jarduerak sustatzea, horretarako espazio fisiko eta birtualak prestatuta. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Belaunaldi-trukerako antolatutako jardueren kopurua. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 8 | 16 |
| | | | | Belaunaldien arteko elkarrizketarako gune fisiko eta birtualak. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Belaunaldi-trukerako jardueretan parte hartzen duten pertsonak. | % | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 25 | 50 |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---|---------------------------------------|---|-----------------------------------|--|-------------------|-----------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| I.1. Kudeaketaren eta antolaketaren kultura | I.1.3. Integritatearen Euskal Sistema | Enplegatu publikoen etika-kodea eta printzipioak onartzea , bai eta kode hori hedatzeko, ebaluatzeko eta berrikusteko behar diren prozesuak eta tresnak ere. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Enplegatu publikoen etika-kodea eta printzipioak onartu dira. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Behar diren prozesuak eta tresnak, eta enplegatu publikoen etika-kodearen eta printzipioen berrikuspena onartu dira. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen 1/2014 Legean agertzen den etika-kodearen hedapenari eta aplikazioari eta betebeharren kontrolari buruzko kontuak emateko beharrezkoak diren prozesuak eta tresnak abian jartzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | (*) Prozesuak eta beharrezkoak diren tresnak onartu eta zabaldu dira. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---|--|---|--|--|-------------------|----------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| I.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna | I.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna | EAEko Administrazio Publikoan emakumeen eta gizonen erabateko berdintasunean aurrera egin ahal izateko beharrezkoak diren plangintza- eta kudeaketa-tresnak definitzea eta ezartzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2. Plana onartzea, hedatzea eta ebaluatzea. | Bai/Ez | Berdintasun-unitatea | Ez | Bai | Bai |
| | | Berdintasunerako Laborategia sortzea eta martxan jartzea, sareko aplikazio batean oinarrituta. Aplikazio horrek, ofizioz, berdintasun-jarduketan jokabidearen ebidentziak emango ditu. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Berdintasun-laborategia jardunean dago. | Bai/Ez | Giza Baliabideen Zerbitzua | Ez | Bai | Bai |
| I.3. Euskara lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza ²⁷ | I.3.1. Euskaraz lan egiteko tresna digitalak | Euskaraz lan egiteko tresna digitalak sortzea eta martxan jartzea. | Administrazio eta Zerbitzu Orokorren sailburuordetza Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza | Hizkuntza-baliabideak anonimo bihurtzeko adimen artifizialeko sistema. | Bai/Ez | IVAP | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Itzultzaile neuronal juridiko administratiboaren bertsio berriak. | Bai/Ez | IVAP | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Eskuragarri dauden itzulpen-memoriak. | Kopurua | IVAP | 1 | 3 | 6 |
| | | | | (*) Euskara-gaztelania-euskara itzulpen-segmentuak kontsultatzeko datu-baseetan eskuragarri dauden dokumentuak. | Kopurua | IVAP | 0 | 50 | 100 |

²⁷ Gobernu Kontseiluaren 2021eko apirilaren 13ko Erabakia, EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideei buruzkoa.



II. eremu estrategikoa: Gobernu berritzailea eta etengabeko ikaskuntzan diharduena

| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|-----------------------------|---|--|---------------------------------------|---|-------------------|---------------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| II.1. Araudia ²⁸ | II.1.1. Gobernantzaren, berrikuntza publikoaren eta gobernu digitalaren esparru juridikoa | Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legea onartzea, gardentasuna bermatzeko, parte-hartzea sustatzeko eta kontuak ematea errazteko. | Gobernu Irekiaren Zuzendaritza | Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legea onartu egin da ²⁹ . | Bai/Ez | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | Jaurlaritzaren koordinazio-ardura bermatzea erakunde-sarean, bikoiztasunak saihestuko dituzten lankidetzeta- eta koordinazio-mekanismoen bidez. (Euskal sektore publikoaren Legea). | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza | Euskal sektore publikoaren Legea onartu egin da ³⁰ . | Bai/Ez | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | Euskal enplegu publikoaren lege berria onartzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Euskal enplegu publikoaren Legea onartu egin da ³¹ . | Bai/Ez | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |

²⁸ 2.1. ardatzaren (Araudia) helburuei dagokienez (2025erako konprometitua), behin lege-testuak onartuta helburu horiek bete ondoren eta planaren tarteko ebaluazio-jarduera baten testuinguruan, kontuan hartuko da, planaren indarraldiaren arabera, adierazle berriak diseinatzeko aukera, indarrean sartzeak eta erregulazio horien betetzeak izan duen eragina ebaluatzeko, 2030erako helburuak urte horretarako proposatzen direla ulertuta.

²⁹ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren 148. Konpromisoaren 1. ekimenarekin zerikusia duen jarduera eta emaitza adierazlea.

³⁰ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren 147. Konpromisoaren 1. ekimenarekin zerikusia duen jarduera eta emaitza adierazlea.

³¹ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren 149. Konpromisoaren 1. ekimenarekin zerikusia duen jarduera eta emaitza adierazlea.



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---------------|---|--|---|---|-------------------|---------------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| | | Prozesu arauemaile eta administratiboen modernizazioan eta sinplifikazioan aurrera egitea, herritarren eskaerei eta arau-lanketari arinago eta laburrago erantzuteko. | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza | Arau-xedapen orokorrak egiteko legea onartu da. | Bai/Ez | Araubide Juridikoaren Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| II.1. Araudia | II.1.2. Gobernantza publikoaren arloko erregelamendu bidezko garapena | Herritarrei arreta emateari eta zerbitzu publikoak eskuratzeari buruzko erregelamendu bidezko garapena onartzea. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza | (*) Dekretua onartu egin da. | Bai/Ez | HHZDZ | Ez | Bai | Bai |
| | | Gaitutako funtzionarioen erregistroari buruzko Agindua onartzea. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza <i>Zuzenean</i> | Agindua onartu egin da. | Bai/Ez | <i>Zuzenean</i> | Ez | Bai | - |
| | | Ahalordeen erregistroari buruzko Agindua onartzea. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza <i>Zuzenean</i> | Agindua onartu egin da. | Bai/Ez | <i>Zuzenean</i> | Ez | Bai | - |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|--|---|---|-----------------------------------|--|-------------------|-------------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| II.2. Pertsonak antolatzeke eta kudeatzeko sistema ³² | II.2.1. Administrazioa berrantolatzea eta gaztetzea | Lanpostu hutsak modu planifikatuan kudeatzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Birdiseinatu eta diseinatu behar diren eta deitu behar ez diren lanpostuei buruzko txostenak, sailen arabera. | Kopurua | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 8 | 13 |
| | | | | (*) Lanpostuen automatizazio-mailaren zenbatespena. | % | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 50 | 100 |
| | | Langileak berritzeko lan- eskaintza publikoen eredu berri bat diseinatzea, funtzionario-karrera oinarritako lanpostuetatik has dezaketen gazteak erakartzeko eta hautaketa-praktiketako prestakuntza-aldi bat aurreikusteko. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Gaztetzeko lan- eskaintza publikoetarako hautaketa-prozesu estrategikoak, planteamendu estrategikoetan eta gaitasunen zenbatespenean arreta berezia jarrita. Hautaketarako prestakuntza diseinatzea gaztetzeko lan- eskaintza publiko bakoitzean. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Zuzendaritza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | | Bai/Ez | Giza Baliabideen Zerbitzua eta IVAP | Ez | Ez | Bai |

³² Eskuragarri dauden neurrian, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2023-2026 Estatistika Planeko adierazleak sartuko dira, 20019ri buruzkoak. Euskal Autonomia Erkidegoko langileen estatistika-informazioa (Funtzio Publikoko Zuzendaritza).



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|--|------------------------------------|---|-----------------------------------|---|-------------------|-------------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| II.2. Pertsonak antolatzeko eta kudeatzeko sistema | II.2.2. Talentuaren kudeaketa osoa | Talentua modu integralean kudeatzea tresna hauen bidez: ezagutzaren kudeaketa, <i>mentoring</i> -a, telelana, zerbitzuak emateko modalitatea, karrera-ibilbideak eta karrera horizontala. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | IVAPek adituen eta hasiberrien artean ezagutza eta <i>mentoring</i> -aren bidez diseinatutako ikastaroak. | Kop./saila. | Giza Baliabideen Zerbitzua eta IVAP | 0 | 13 | 26 |
| | | | | (*) <i>Mentoring</i> -arekin lotutako IVAPek kudeatu eta ebaluatutako ikastaroen kopurua. | Kop./saila. | IVAP | 0 | 13 | 26 |
| | | | | Behar bezala betetako exekuzio-konpromisoei buruzko fitxen ehunekoa. | % | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 50 | 100 |
| | | | | Exekuzio-konpromisoen prozesua bete duten bikoteen ehunekoa. | % | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 50 | 100 |
| | | | | Exekuzio-konpromisoen prozesuaren ondorioz identifikatutako hobekuntzen kopurua. | Kop./saila. | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 36 | 52 |
| | | | | Behar bezala betetako telelaneko lanpostuen exekuzio-konpromisoei buruzko fitxen ehunekoa. | % | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 50 | 100 |
| | | | | Aplikazio bat sortzea eta eskuragarri jartzea <i>Geutzen</i> aldizkarian, EAEko Administrazio Orokorreko langileek karrera autogestionatzeko aukerak banaka kontsulta ditzaten. | Bai/Ez | Giza Baliabideen Zerbitzua | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Karrera horizontala: igotzeko gradu, kategoria edo mailen sistema bat sortzea, bakoitzari dagokion ordainsaria horretarako diseinatutako ebaluazio-sistema baten arabera finkatuta. | Bai/Ez | Giza Baliabideen Zerbitzua | Ez | Bai | Bai |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---|---|--|---|---|-------------------|--------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| II.2. Pertsonak antolatzeko eta kudeatzeko sistema | | | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | (* Karrera horizontala: igoerak, oro har, ondoz ondokoak izango dira, beste aukera bat aurreikusten den salbuespen-egoeretan izan ezik. | Kop./saila | Giza Baliabideen Zerbitzua | 0 | 13 | 75 |
| | | | | Zuzendari publiko profesionalaren lanpostuaren monografia gauzatzea. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Zuzendaritza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | (* Zuzendari publiko profesionalaren lanpostu-zerrenda argitaratzea. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Zuzendaritza | Ez | Bai | Bai |
| | | | | Zuzendaritzako lanpostu publiko profesionalen hautapen-, prestakuntza- eta ebaluazio-diseinua egitea. | Bai/Ez | Giza Baliabideen Zerbitzua | Ez | Bai | Bai |
| | EAEko Administrazio Publikoa eraldatzeko prestakuntza- eta trebakuntza-plana onartzea, bereziki enplegatu publikoen gaitasun digitaletan arreta jarritz. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Administrazio Publikoa eraldatzeko prestakuntza- eta gaikuntza-plana. Onartuta eta hedapen-bidean dago. | Bai/Ez | IVAP | Ez | Bai | Bai | |
| | | | IVAPen gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-eskaintzan matrikulatutako pertsonak. | % | IVAP | 0 | 50 | 100 | |
| | | | (* Prestakuntza-eskaintzetan ebaluazioa gainditu duten pertsonak. | % | IVAP | 0 | 100 | 100 | |
| Pertsonak kudeatzeko prozesuak automatizatzea , epe ertainera giza baliabideak kudeatzeko aplikazio batean gauzatuko den sistema aditu bat sortzeko. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Antolamendua eta giza baliabideak kudeatzeko aplikazioa erabiltzaileen profilen eskura jarri da. | Bai/Ez | Giza Baliabideen Zerbitzua | Ez | Bai | Bai | | |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|--|------------------------------|---|-----------------------------------|---|-------------------|-----------------------------------|--------------------|--------------------|--------------------|
| II.2. Pertsonak antolatze eta kudeatzeko sistema | II.2.3. Elkarrizketa soziala | Enplegu publikoaren sorrera handitzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Enplegu publikoa sortzea (finko-estrukturala) ³³ . | | Eustat | | | |
| | | EAEko sektore publikoan behin-behinekotasuna eta bitartekotasuna murriztea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | (*) Guztizko behin-behinekotasun tasa (lan-kontratuko langileen behin-behinekotasuna eta funtzionarioen behin-behinekotasuna) ³⁴ . | % | Eustat | 36,3 ³⁵ | | |
| | | Enplegua finkatzeko lan- eskaintza publikoen deialdia egitea iraupen luzeko bitarteko langileentzat. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Enplegua finkatzeko enplegu-eskaintza publikoak. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 3 | 3 |
| | | Belaunaldi-erreleborako plan bat negoziatzea eta garatzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Belaunaldi-erreleborako ekintzak eta neurriak/akordioarekin edo akordiorik gabe. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 5 | 10 |
| | | Kidego eta Eskalen Legearen eta Enplegu Publikoaren Legearen onarpenaren negoziazioa eta arau-garapena. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Dekretuak, aginduak ... onartzea, negoziatu ondoren. | Kopurua | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | 0 | 10 | 20 |

³³ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren Adierazleen Sistemaren D04-2 hedapenaren adierazlea.

³⁴ XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren Adierazleen Sistemaren D04-3 hedapenaren adierazlea.

³⁵ 2016.



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|---------|------|--|-----------------------------------|---|-------------------|-----------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| | | Enplegu publikoan osasun-eta ongizate-programa bat garatzea. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Enplegatu publikoaren bizimodu osasungarrien programa bat garatzea (ekintzak/parte-hartze maila/ebaluazioa/...) /teleanari buruzko dekretu berria ezartzea. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Bai |
| | | Gizarte-laguntzen programa bat finkatzea, testuinguru sozioekonomikoaren arabera, eskaera eta joera sozial esanguratsuenak kontuan hartuta. | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Gizarte-laguntzak. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Sailburuordetza | Ez | Bai | Ez |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|------------------|--------------------------------|--|--|--|-------------------|----------------|---------------|--------------------|--------------------|
| II.3. Antolaketa | II.3.1. Kide anitzeko organoak | Kide anitzeko organoen lanerako eta kudeaketarako onlineko guneak prestatzea. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza Proiektuen bulegoa | (*) Lan-eremu eta kudeaketa espezifikoak duten kide anitzeko organoen ehunekoa. | % | HHZDZ | 5 | 50 | 75 |
| | | Lan-prozesuak digitalizatzea eta kide anitzeko organoen txostenak elektronikoki izapidetzeko , sinatzeko eta publizitate aktiborako soluzioak prestatzea. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza Proiektuen bulegoa | Tramitaguneren bidez dokumentuak elektronikoki sinatzea, txostenak izapidetzea eta publizitate aktiborako bidalketak egitea. | % | EJIE | 0 | 100 | 100 |
| | | | | Ezarritako Artxiboak Kudeatzeko Sistemaren kide anitzeko organoen dokumentuak artxibatzeke soluzio teknologikoa. | % | EJIE | 0 | 100 | 100 |
| | | Kide anitzeko organoen aldizkako ebaluazioak egitea eta kontuak ematea. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza Proiektuen bulegoa | (*) Kide anitzeko organo aktiboak, kudeaketari eta jarduerari buruzko urteko memoria gardentasun-atarian argitaratuta dutenak. | % | Gobernu Irekia | 0 | 50 | 100 |
| | | | | Kide anitzeko organoen 2. aldizkako ebaluazioa egin da. | Bai/Ez | HHZDZ | - | Bai | Bai |
| | | | | Kide anitzeko organoen eta karguen bilatzailea, pertsonen, erakundeen eta ekipamenduen datu-errepositorioaren sistemaren txertatu da, www.euskadi.eus atarian eta Open Data Euskadin. | Bai/Ez | HHZDZ | - | Bai | Bai |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|--------------------|---|---|--|--|--------------------------------|--------------------------------|---------------|--------------------|--------------------|
| | II.3.2. Gobernantza publikoaren zeharkakotasuna | Antolaketa-neurriak ezartzea, gobernantza, berrikuntza eta gobernu digitalari buruzko politikei zeharkakotasuna emateko. | Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza Proiektuen bulegoa | Eredua eta jarduketa-proposamenak egin dira. | Bai/Ez | Funtzio Publikoko Zuzendaritza | Ez | Bai | Bai |
| Egindako ekintzak. | | | | % | Funtzio Publikoko Zuzendaritza | 0 | 50 | 50 | |



| Ardatza | Gaia | Helburuak | Helburuaren arduraduna | Adierazlea | Neurketa-unitatea | Iturria | Egungo balioa | 2025erako helburua | 2030erako helburua |
|----------------------------------|---|---|---|---|-------------------------|--------------|---------------|--------------------|--------------------|
| II.4. Azpiegiturak ³⁶ | II.4.1. Batera Zerbitzuen Katalogoa | Batera Zerbitzuen Katalogoa sustatzea. | Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza | Batera Zerbitzuen Katalogoaren barnean dauden zerbitzu guztiei dagokienez, normalizatorako eta etengabeko hobekuntzarako zehaztutako metodologiarekin normalizatutako IKT zerbitzuak. | % | IKTZ (IKTPE) | 15 | 100 | 100 |
| | | | | Espero ziren emaitzekin amaitutako hornidura-proiektuak, planifikatutako hornidura-proiektuekin alderatuta. | % | IKTZ (IKTPE) | 25 | 100 | 100 |
| | | | | Espero ziren emaitzekin amaitutako bateratze-proiektuak, planifikatutako bateratze-proiektuekin alderatuta. | % | IKTZ (IKTPE) | 10 | 100 | 100 |
| | | | | (*) Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen erabiltzaileen batez besteko gogobetetze-maila. | Handia/ Ertaina/ Txikia | IKTZ (IKTPE) | - | Handia (>% 75) | 100 |
| | | | | EJIEren IKT Zerbitzuen Katalogoaren barnean dauden Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak. | % | IKTZ (IKTPE) | - | 100 | 100 |
| | II.4.2. Soluzioak eta zerbitzuak garatzea | Azpiegituren soluzioak eta zerbitzuak garatzea. | Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza | Kontainerizatutako aplikazioak, kontainerizatutako planifikatutako aplikazioekin alderatuta. | % | IKTZ (IKTPE) | - | 100 | 100 |
| | | | | Hodeian garatutako aplikazioak, aplikazio guztiekin alderatuta. | % | IKTZ (IKTPE) | - | 65 | 65 |
| | | | | Cloud plataformetara migratutako aplikazioak, migratzeko planifikatutako aplikazio guztiekin alderatuta. | % | IKTZ (IKTPE) | - | 100 | 100 |

³⁶ Eskuragarri dauden neurrian, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2023-2026 Estatistika Planeko adierazleak sartuko dira, honako hauei buruzkoak:

IKTei buruzko **estatistika-eragiketa ofizialak** (Eustat):

220126 Informazioaren gizartearen egoera Euskal AEn.

222141. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta Administrazioan: helburua administrazio publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologietako ekipamenduak ezagutzea da, Eurostaten eragiketa baliokideen metodologiari jarraituz. Helburuetako bat da, halaber, ekipamendu horien erabilera neurtzea - Batez ere Internetena - Eta merkataritza elektronikoaren intentsitatea eta ezaugarriak neurtzea.



